



**PROIEKTU ILUSTRATUA: ARRAZOIAREN  
AHALMENA, ITZALAK ETA MUGAK**

***OLYMPE DE GOUGES ETA MARY  
WOLLSTONECRAFT***

**IRALE R400**

Batxilergoa II. Filosofiaren historia ikasgairako materiala

**Nagore Portillo Bilbao**

n.portillo@irakasle.eus



**Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren Onespena du.**

**Onespenaren data: 2024-04-09**

## AURKIBIDEA:

<b><u>HITZAURREA</u></b> .....	3
<b>1. PROIEKTU ILUSTRATUA: ARRAZOIAREN AHALMENA, ITZALAK ETA MUGAK</b> .....	5
1.1. <u>ILUSTRAZIO GARAIA: ZERK ETA NORK AHALBIDETU ZUEN?</u> .....	5
1.2. <u>ILUSTRAZIO GARAIA: ZER DA?</u> .....	6
1.3. <u>ILUSTRAZIO GARAIAREN EZAUGARRIAK</u> .....	6
1.4. <u>ILUSTRAZIOAREN ARGIAK EDO ARRAZOIAREN AHALMENA</u> .....	10
1.5. <u>ILUSTRAZIOAREN ITZALAK</u> .....	12
1.6. <u>ARRAZOI ILUSTRATUAREN MUGAK</u> .....	28
1.7. <u>ILUSTRAZIOA EUSKAL HERRIAN</u> .....	31
<b>2. OLYMPE DE GOUGES</b> .....	45
2.1. <u>BIZITZA ETA OBRA</u> .....	45
2.1.1. <u>NOLA BILAKATU ZEN MARIE GOUZE OLYMPE DE GOUGES</u> .....	45
2.1.2. <u>LEHENENGO LANAK: ANTZERKIGINTZA</u> .....	45
2.1.3. <u>IRAULTZAILE HUMANISTA</u> .....	46
2.2. <u>TESTUINGURU HISTORIKOA: FRANTZIAKO IRAULTZA</u> .....	47
2.2.1. <u>SUKAR IRAULTZAILEA ETA HAREN MUGAK</u> .....	48
2.2.2. <u>ERREPUBLIKATIK "TERRORE GARAIRA"</u> .....	49
2.3. <u>KRONOLOGIA: OLYMPE DE GOUGESEN BIZITZA</u> .....	51
2.4. <u>ARRAKASTA BERANTIARRA</u> .....	52
2.4.1. <u>EMAKUMEZKOEN ADIERAZPENA EGITEKO PREMIA</u> .....	52
2.4.2. <u>BERRAURKIKUNTZA BERANTIARRA</u> .....	53
2.5. <u>SAILKATU EZINEZKO TESTUA</u> .....	53
2.5.1. <u>TESTU JURIDIKO BAT?</u> .....	53
2.5.2. <u>PANFLETO BAT?</u> .....	54
2.5.3. <u>DISKURTSO BAT?</u> .....	55
2.6. <u>TESTUAREN ATALASEAK: ERREGINARI ESKAINITAKO ESKUTITZA ETA AZKEN PASADIZOA</u> .....	55
2.7. <u>OLYMPE DE GOUGESEN FILOSOFIA</u> .....	56
2.7.1. <u>FILOSOFIA KONPROMETITUAREN AITZINDARIA</u> .....	56
2.7.2. <u>HIZKUNTZA INKLUSIBOAREN AITZINDARIA</u> .....	57
2.7.3. <u>FEMINISTA LIBERAL, ILUSTRATU ETA ABOLIZIONISTA</u> .....	58
2.8. <u>EMAKUMEA ETA EMAKUMEZKO HERRITARRAREN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA</u> .....	60
<b>3. MARY WOLLSTONECRAFT</b> .....	70
3.1. <u>BIZITZA ETA OBRA (1759-1797)</u> .....	70
3.1.1. <u>NOLA BILAKATU ZEN MARY WOLLSTONECRAFT IDAZLE</u> .....	70
3.1.2. <u>MARY WOLLSTONECRAFT IDAZLE ETA ITZULTZAILE</u> .....	70
3.2. <u>TESTUINGURU HISTORIKOA</u> .....	71
3.2.1. <u>FRANTZIAKO IRAULTZAREN ERAGINA MARY WOLLSTONECRAFTENGAN</u> .....	71
3.2.2. <u>MARY WOLLSTONECRAFTEN LANAREN ERAGINA ETA HARRERA</u> .....	72
3.3. <u>MARY WOLLSTONECRAFTEN FILOSOFIA</u> .....	73
3.4. <u>GIZONEN ESKUBIDEEN ERREIBINDIKAZIOA (1790)</u> .....	75
3.5. <u>EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERREIBINDIKAZIOA (EEE) (1792)</u> .....	77
3.5.1. <u>EEEREN NONDIK NORAKOAK, GENESIA ETA ESTILOA</u> .....	77
3.5.2. <u>EEEREN GARRANTZIA</u> .....	78
3.5.3. <u>EEEREN LABURPENA, KAPITULUKA</u> .....	78
<b><u>BIBLIOGRAFIA</u></b> .....	98

## HITZAURREA

Lan hau batxilergoko bigarren mailako *Filosofiaren Historia* arloko irakasleentzat zein ikasleentzat egin da. Dakigunez, LOMLOE ezartzearekin batera, aldatu egin da Batxilergoko 2. mailako *Filosofiaren historia* ikasgaiaren gaitegia. Eta filosofiako irakasleok baliabide falta izugarria sentitzen dugu, gai eta autore berri asko gehitu direlako batetik, eta emakume filosofoen eta euskal pentsalarien presentziari bultzada bat eman nahi diogulako bestetik. Horrez gain, orain arte landu ditugun zenbait gairi beste begi batzuekin begiratzeko beharra ere sentitu dugu (genero edo inklusio ikuspegitik, besteak beste).

Hala, *Agora Filosofia Elkarteko* filosofiako zenbait irakasle martxan jarri gara, eta hainbat jakintzagai lantzeko materiala sortzeari ekin diogu, talde-proiektu baten bitartez lana antolatuta eta banatuta. Honako hau da niri egokitu zaidan epigrafea: "Proiektu ilustratua: arrazoiaren ahalmena eta mugak. Gizakiaren eskubideak. Lehen bolada feminista: Mary Wollstonecraft eta Olympe de Gouges".

Epigrafe hori landu eta material berria sortzeko, jatorrizko iturrietatik abiatu naiz (besteak beste, Olympe de Gougesen *Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne* eta Mary Wollstonecraften *Vindication of the rights of woman* testuetatik). Lana garatzeko, bibliografian zehazten diren hainbat baliabidez ere baliatu naiz.

Hasiera batean, lanari ekitean, ilustrazio garaia laburki lantzea zen nire asmoa, Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraften obrak sakontasunez jorratu nahi nituelako, batez ere. Baina, ilustrazio garaia heltzean, arrazoiaren ahalmenaz eta haren mugez haraindi joan naiz, eta ilustrazioaren itzalak deituriko atal bat gehitu, eta dezente luzatu naiz harekin. Izan ere, sortze-prozesuan, Giza Eskubideen aldarrikapenen gaineko testuak susmoaren maisuen ereduari jarraiki aztertu ditut, itxuraz horren ederrak diren hitz horien azpian zer ezkututzen den jakiteko. Hori egitean, kartesiar egiaren argitasunarekin azaleratu da Giza Eskubideak gauzatzean aldarrikapen horiek teoria hutsean geratu zirela, gizon zuri eta aberatsei soilik aplikatu baitzitzaizkien. Ondorioz, lan honetan, hasieratik nabarmentzen saiatu naiz ilustrazioa burgesiar loturik jaio eta garatu zela, eta testuliburu gehienetan agertzen ez diren, edota nik behintzat ezagutzen ez nituen, ilustrazioaren alderdiak landu ditut: emakumeen, pobreen, homosexualen eta gaixo mentalen bazterketa, arrazismoa sorrarazi zuten teoriak –eugenismoa, frenologia...– eta hainbat egileren (Kant, Rousseau...) aurpegi ezezagun edota iluna. Halaber, Euskal Ilustrazioaren atala nahikotxo jorratu dut. Testuliburuetan, orokorrean, ezer gutxi landu da Euskal Herriko Argien Garaia; eta, landu denean, egileak eta garaia goresteke joera izan da. Nire lanean, Euskal Ilustrazioa ere era kritikoa aztertzeko saiakera egin dut. Eta, zentzu horretan, nabarmendu nahi dut ez dudala aurkitu emakumezko ilustratuen aztarnarik Euskal Herrian. Izan ere, gure Ilustrazioa gizon zuri aberatsen (jauntxo) mugimendu bat izan zen, funtsean; eta haietako hainbatek, beren burua ilustratu bai, baina aparteko garrantzia eman zioten poltsikoa aberastasunez betetzeari ere, besteak beste, esklabo salerosketaren bitartez. Izatez, XVIII. eta XIX. mendeko Euskal Herriko hainbat familia handiki eta "errespetagarri" esklabo-trafikoari esker lortu zuten aberastea. Esango nuke halako gaietan sakondu ahala hasierako ideiatik nolabait desbideratu eta Ilustrazioaren berrirakurketa kritikoa egin dudala.

Nire lanean, Olympe de Gougesi eskainitako atala ere oso landuta dagoela esango nuke. Haren izaera iraultzaile eta menderaezinak, haren indarrak, liluratu egin nau hasiera-hasieratik. Ezin dut utzi azpimarratu gabe zenbateko miresmena eragiten didan orain dela berrehun eta hirurogeita hamabost urte jaio eta heziketa formalik jaso ez zuen emakume hark, apartekoak baitira hark erakutsitako sentsibilitatea, begirada zabala, bizitza eredugarria eta arrazoitzeko zorrotasuna. Plazer handia izan da De Gougese idatziriko *Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Aldarrikapena* frantsesez irakurtzea eta itzultzea (horrek, batez ere, nire R-400eko tutore zoragarriari aparteko buruhausteak sortu badizkio ere, egilearen estiloagatik, batik bat). Lehen aldiz izan dut egile baten filosofia haren obra zuzenean irakurriz neureganatzeko aukera paregabea. Espero dut haren pentsamendua eta izpiritua ondo jasoa egotea sortutako materialetan.

*Last but not least*, Mary Wollstonecraften atala ere dezente garatu dut. Kasu horretan, *Emakumeen eskubideen erreibindikazioa* (1792) (*EEE*) (*A Vindication of the Rights of Woman*) irakurri eta haren kapituluz kapituluko laburpena egin dut, *EEE* baita Wollstonecraften filosofia aztertzeke lan egoki eta osoena. Izan ere, funtsezko testua da feminismoaren historian, eta eragin iraunkorra izan du genero-berdintasunaren aldeko borrokan. Mary Wollstonecraften kasuan, *EEE* osotasunean itzultzeke gogoarekin geratu naiz; baina, batetik, testua oso luzea da (eskuartean izan dudana edizioan, 144 orrialde trinko ditu liburua), eta, bestetik, R400 ikastaroaren iraupena lauhileko batekoa baino ez da. Hala ere, egilearen ideiak sakonki lantzeke aukera izan dugulakoan nago.

Lana bukatutakoan, hasieran egokitu zitzaidan epigrafearen erredakzioa aldatu beharra ikusi dut eta, hartara, honako hau da lanaren behin betiko titulua: “Proiektu ilustratua: arrazoiaren ahalmena, itzalak eta mugak. Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraft”. Hots, ilustrazio garaiko (Argien Mendeko) itzalei zenbateko garrantzia eman didan ikusita, beharrezkoa iruditu zait *itzal* horiek izenburuan ere aipatzea. Bestalde, “Giza Eskubideak” azpigaia kendu egin dut izenburutik. Baina ez gai hori aipatzeke edo garatzeke geratu delako. Ezta gutxiago ere! Izan ere, Olympe de Gougese eta Mary Wollstonecraften filosofien muina Giza Eskubideak dira, hain zuzen ere. Bestalde, ilustrazioa lantzean, batetik, azaldu dut zein den Giza Eskubideen iturburua, eta, bestetik, ilustrazioaren itzalen artean itzal nagusitzat jarri dut Giza Eskubideak praktikan gauzatu ez izana. Zein da, orduan, izenburutik baztertzeke arrazoa? Lanaren bizkarrezurra badira ere, ez ditudala landu bereizitako kapitulu batean. Azkenik, € euskal ilustrazioaren aipamena izenburuan egitekotan izan naiz; baina, azpigai hori “Proiektu ilustratua” atalaren barnean aurkitzen denez (momentuz ez du independentziarik lortu), ez dut sartu, azkenean.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiot R400 ikastaroko tutoreari, Iñaki Aristondori, sekulako pazientzia izan baitu nire akats errepikakorrekin, nire idazteko 80-90eko hamarkadetakoko estilo barrokoarekin (espero dut hori behintzat pixka bat zuzendu izana) eta euskarari noizbehinka ematen nizkion/dizkiodan ostiko(txo)ekin. Eskerrik asko, bihotzez, lan honetan diamante gordina ikusten jakin baituzu eta forma ederra eman baitiozu. Plazer bat izan da zurekin lan egitea. Eskerrak, *Agora Filosofia Elkarteari* ere, lan hau egiteko proiektua bultzatu izanagatik, eta, nola ez, nire R400 ikastaroko filosofiako taldekideei (Jaione Galdos, Garazi Pascual, Itsaslora Yarza, Ibai Zabala eta Markos Zapiain), plazer bat izan baita zuokin lan egitea. Aupa ekipo!

# PROIEKTU ILUSTRATUA: ARRAZOIAREN AHALMENA, ITZALAK ETA MUGAK

*OLYMPE DE GOUGES ETA MARY WOLLSTONECRAFT*

## 1. PROIEKTU ILUSTRATUA: ARRAZOIAREN AHALMENA, ITZALAK ETA MUGAK

### 1.1. ILUSTRAZIO GARAIA: ZERK ETA NORK AHALBIDETU ZUEN?

Ilustrazio garaia Ingalaterrako Iraultzaren (1688) eta Frantziako Iraultzaren (1789) arteko aldia da. Baina, Ilustrazioa definitu baino lehen, Ilustrazio garaia posible egin zuten hainbat aldaketa aipatu beharra dago, alor askotakoak.

Hasteko, kultura-mailan, aipamen berezia merezi du Isaac Newtonen *Philosophiæ naturalis principia mathematica* obrak (1687), zeren indartu egin baitzuen arrazoi enpirikoa Fisika zientzia beregaintzat hartuta eta metafisikatik guztiz askatuta. Zientziaren aurrerapauso horri loturik, aurrerakuntza teknikoek (lurrun-makina, tximistorratza...) indartu egin zuten natur zientziekiko eta esperimendazioarekiko konfiantza; eta, hala, erlijioa indarra galduz joan zen, munduari buruzko azalpenetan. Arrazoi enpirikoa indartzearekin batera, *sekularizazio prozesua* izan zen gizartean, eta Elizak galdu egin zuen ezagutzaren monopolioa. Aipaturiko hobekuntza teknikoen eskutik, alor ekonomikoan, jautzia gertatu zen nekazari- eta artisau-gizarte batetik industrian eta merkataritzan oinarrituriko gizarte batera. Hori dela eta, klase berri bat, burgesia, indarra hartuz joan zen gizarte-mailan, eta protagonista bilakatu zen. XVIII. mendean, burgesiak ezagutzera eman zituen bere balioak, pentsamendu ilustratuaren eta entziklopedismoaren korronteen bidez, eta zabaldu egin zituen, gizartean, Frantziako Iraultzaren "*Askatasuna, berdintasuna, anaitasuna*" goiburuan laburbilduta. Balio horiek mundu zeharo desberdina irudikatu zuten: handik aurrera, askatasuna, berdintasuna, aurrerapena, berrikuntza, indibidualtasuna eta lana izan ziren idealak. Hori bai, aurrerago ikusiko denez, askatasunaren eta berdintasunaren idealak gauzatzean, mugak jarri ziren: burgesiak oinarritzko eskubide bilakatu zuen jabetza pribatua. Azkenik, arlo politikoan, murriztu egin zen erregearen, kleroaren eta nobleziaren boterea, eta zalantzan jarri zen monarkiaren jatorri jainkotiarra. Hala ere, Despotismo ilustratua izan zen nagusi, ilustratu gehienak ez baitziren, politikoki, iraultza handien aldekoak. Burgesiak zuzenbide-estatua eta botere politikoaren banaketa bultzatu zituen (absolutismo feudalaren kontrakoa), baita gizarte-mugikortasuna (kasta-gizartearen kontrakoa) eta askatasun zibil eta publikoak ere (ordena erlijioso eklesiastikoaren kontrakoa). Hots, burgesiaren garaipen historikoaren ondorio dira sistema feudalaren eta Antzinako Erregimenaren amaiera.

## 1.2. ILUSTRAZIO GARAIA: ZER DA?

Ilustrazioa XVIII. mendean Ingalaterran sortu, Frantzia oinarri sendoak hartu eta, ondoren, Europa osoan garatu zen mugimendu sozial, politiko, ekonomiko eta kultural bat da, bizitzaren alor guztietan arrazoimena aplikatzea bultzatzen zuena. Ilustrazioa zeharo loturik dago burgesiaren nagusitzearekin eta indartze sozialarekin, eta horrek ezaugarri jakin batzuk erantsiko dizkio, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Ilustrazio garaia *Argien Mendea* izenez ere ezagutu ohi da, Erdi Aroaren iluntasunari kontrajarriz, arrazoiak gaina hartu baitzion fedeari eta superstizioari. Izan ere, Ilustrazioaren helburua zen erlijio-fanatismoaren eta ezjakintasunaren aurka joatea "arrazoiaren eta jakintzaren argien bidez". Hala ere, hurrengo puntuetan ikusiko dugunez, Ilustrazioaren argiak itzal nabarmenak ezkutatu zituen, aldarrikatzen zituen idealak praktikan jartzean.

Ilustrazioaren ordezkari nagusien artean, besteak beste, hauek aipa ditzakegu: **Erresuma Batuan**, David Hume, John Locke eta **Mary Wollstonecraft**; **Frantzia**, Denis Diderot eta Jean le Rond D'Alambert (*Entziklopediaren* sortzaileak), François Marie Arouet (Voltaire), Jean-Jacques Rousseau, Charles Louis de Secondat (Montesquieu), **Olympe de Gouges**, Marie-Jean-Antoine Nicolas de Caritat (Condorcet), Jean-Baptiste-Pierre-Antoine de Monet –Lamarck-eko zalduna–, Pierre-Simon Laplace eta Georges Louis Leclerc de Buffon; **Alemanian**, Christian Wolff, Gottfried Wilhem Leibniz, Johan Wolfgang von Goethe, Gotthold Ephraim Lessing eta Immanuel Kant; **Suedian**, Carl Nilsson Linnæus –Lineo–; **Espainian**, Gaspar Melchor de Jovellanos, Jose Moñino y Redondo –Floridablancako kondea–, Benito Jerónimo Feijóo eta **Euskal Herrian**, Xabier Maria Munibe Idiakez, Peñafloredako kondea (1729-1785), Joaquin Maria Egia –Narroseko markesa– (1733-1803), Manuel Ignacio Altuna (1722-1762), Pablo Olabide (1725-1803), Jose Larrañaga (1728-1806), Felix Maria Samaniego (1745-1801), Valentin Foronda (1751–1821), Fausto Elhuyar (1755-1833), Ignazio Urkixo Olano (1907-2002), Simon Arago (1720-1801) finantza gizona, Cosme Damian Txurruka (1761-1805) zientzialaria, itsasgizona eta militarra, eta Jose Mazarredo, (1745-1812) itsasgizona.

## 1.3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRIAK

Antzinako Erregimenaren aurka joatea da Ilustrazioaren bereizgarria, erregeek, nobleek eta kleroak zituzten pribilegioak ezeztatzea baitzen burgesiaren nahimena.

Ilustrazioaren ezaugarri aipagarrienak honako hauek dira:

1. KONFIANTZA, ARRAZOIAN. Ilustratuentzat, arrazoiak da gizakiaren idiosinkrasia edo ezaugarri nagusia, eta heziketaren bidez garatzen den ahalmen bat dela irizten diote. Hala, ilustratuek arrazoi autonomo, kritikoa eta enpirikoa defendatu zuten haien idazkietan: autonomia, Ilustratuen arrazoiak ez duelako kanpo autoritaterik (fedea) onartzen; kritikoa, bere mugei buruzko autokritika egiten duelako (horretan, aipatzekoa da Kanten ekarpena); eta enpirikoa, Kantek bere *Arrazoi hutsaren kritikan* zehaztu zuenez, ezagutza zentzumenen bidez jasotako datuetan oinarritu behar delako, eta ez metafisikari (arimari eta Jainkoari buruzko jakintza moduan ulertuta), hura baliorik gabea baita.

Arrazoiarekiko konfiantzan oinarrituta, *entziklopedismoa* deritzon mugimendu kulturala eta filosofikoa sortu zen. Haren helburua zen, batetik, gizateriak gai guztiei buruz zuen ezagutza biltzea eta argitaratzea, eta bestetik ezagutza mundu guztiaren esku jartzea. Denis Dideroten eta Jean le Rond D'Alamberten *Zientzien eta Arteen entziklopedia arrazoitua* (*Encyclopédie, ou dictionnaire raisonné des sciences, des arts et des métiers*, 1751 eta 1765) eta Voltaireren *Hiztegi Filosofikoa* (*Dictionnaire philosophique portatif*, 1764) dira mugimendu horren oinarritzko testuak.

2. NATURAREN IKUSPEGI MEKANIZISTA. Ilustratuek ez dute naturaren gaineko ikuspegi



**Pierre-Simón Laplace** (1749-1827) astronomo, fisikari eta matematikari frantziar bat izan zen. Newtonen jarraitzailea, ekarpen handiak egin zituen landu zituen alor guztietan (aipatzekoa da, matematikan, haren izena daraman ekuazioa).

**W. W. Rousek** *A Short Account of the History of Mathematics* obran anekdota hau kontatzen du: Laplacek, *Traité de Mécanique céleste* liburua Napoleoni aurkeztean, hark ohartarazi zion ez zuela behin ere aipatu Jainkoaren izena unibertsoaren sistema azaltzeko. Laplacek, orduan, honako hau erantzun zion: "Ez dut hipotesi horren beharrik".

magikorik onartzen, baztertu egiten baitituzte ezin azalduzko egitate edota potentziak. Ilustrazioak modu mekanizistan ikusten du mundu naturala: modu logiko eta arrazionalen. Newtonen fisikaren eraginez, ilustratuentzat, lege naturalen bidez azal daitezkeen fenomenoen multzoa da natura: mekanismo bat. Lege naturalak unibertsalak eta betierekoak dira; eta gizakiok ere, gorputza garen heinean, lege horien mende aurkitzen gara, haiek saihestu ezinik. Gauzak horrela, natura beharrezkotasunaren

erreinua bihurtzen da (determinismoa). Beraz, ez dago Jainkoaren ideiaren beharrik (ikusitakoak). Azalpen naturalek edo arrazionalak ordezkatu behar dituzte azalpen erlijiosoak edo naturaz gairik. Hori dela eta, *eskubide naturalak, zuzenbide naturala, erlijio naturala, hezkuntza naturala* eta antzeko kontzeptuez hitz egiten hasiko dira ilustratuak.

3. FEDEA, AURRERAKUNTZAN. Ilustratuentzat, etengabeko hobekuntza da historiaren motorra: Newtonek fisikari emandako bultzadan eta garapen teknologikoan oinarritzen dira baieztapen hori egiteko. Arrazoiak, ezaguerak, zientziak eta hezkuntzak bultzatzen dute etengabeko hobekuntza hori. Hortaz, Ilustratuek ikuskera baikorra dute munduaz: gizateria etengabeko perfekzio prozesuan dago. Uste dute arrazoiaren bidez natura menderatu daitekeela eta zoriontasuna lor daitekeela. Azken finean, heziketaren eta ezagutzaren bitartez mundu zuzenago bat sortzea zen Ilustrazioaren helburua.



4. ASKATASUNA/TOLERANTZIA. Ilustrazioan garrantzi handia hartu zuen askatasunak: tolerantzia aldarrikatu zen, arlo guztietan. Esaterako, Kant pentsamendu- eta adierazpen-askatasunaren defendatzaile sutsua izan zen: hark ilustrazioak aurrera egiteko nahitazeko baldintza gisa ikusten zuen adierazpen-askatasuna. Era berean, erlijioa hautatzeko askatasuna ere aldarrikatu zuen Könnisbergeko filosofoak.

#### **FIGAOREN EZKONTZA EDO ZENTSURAREN PORROTA**

Frantzia, 1789tik aurrera, monarkiak zailtasuna izan zuen ideien zirkulazioa kontrolatzeko. Horren erakusgarri izan zen Pierre Augustin Caron de Beumarchaisek zentsurarekin borroka luze-luze bat izan ondoren lortu zuen garaipena: 1784ko apirilaren 27an, *Figaroren Ezkontza* antzeztea lortu zuen –antzezlan horretan inspiratu zen, handik urte batzuetara, Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791) bere opera ospetsua egiteko–. *Figaroren Ezkontza* aristokraziaren eta Antzinako Erregimenaren kritika zorrotza da: antzezlanean, konde batek bere zerbitzari Figaroren neska-laguna lortu nahi du beretzat, botere gehiegikeriak erabiliz; baina galtzaile ateratzen da azkenean. Obran, Beumarchaisek ageriko kritika egiten dio Antzinako Erregimenaren sistema judizialari, besteak beste. Horrez gain, kontuan hartzen du Habsburgoko Jose II.ak 1783an Alemanian ezkontzei buruz argitaratutako ediktua. Ediktu horrek hiru printzipio defendatzen ditu: ezkontzak maitasunagatik izatea, ezkontideek ezkontzeko gurasoen baimenik behar ez izatea eta ezkontza lekukoen aurrean egitea.

Luis XVI.a pieza debekatzeko saiatu zen, haren indar subertsiboaz jabeturik; baina amore eman behar izan zuen ikusleen zaletasunaren aurrean, emanaldi pribatuetan zabaltzen hasia baitzen. Garaipen horrek lehen zirrikitua ireki zuen zentsuraren harresian, eta handik zabaltzen hasi ziren ideia iraultzaileak.

Baina, burgesia izanik mugimendu ilustratuaren bultzatzaile nagusia, ulertu beharra dago askatasun-eskaerak ekonomia-arloan hartu zuela, batik bat, indarririk handiena: burgesiak saleroste-askatasun handiagoa exijitu zuen, aristokraziaren pribilegioak ezabatuta aberastu ahal izateko. Baina, politikoki kontserbadorea zen, gehienbat. Hala, hainbat ilustratu Despotismo Ilustratuaren aldeko agertu ziren (Kantek berak, esaterako, ordena soziala bermatu nahian, obediencia arrazionala sustatu zuen arrazoi pribatuaren erabileran; hau da, proposatu zuen obedienciaz eta otzantasunez jokatzeari, bai hiritar bezala, bai langile bezala; eta iraultzen aurka agertu zen. Burgesiaren mugak aski ondo suma daitezke: ausartak, ekonomiari eta erlijioari dagokienez; baina zurrunik, politikan. Hitzarmen sozialaren teoriak zabaldu egin ziren, baina bakar batzuek baino ez zituzten defendatu ideia demokratiko eta berdinzaleak.

5. ERLIJIO TRADIZIONALAREN KRISIA. Aurreko mendeetako sorkuntza kulturalak eta ordena soziala Jainkoaren inguruan eratzen ziren; Ilustrazioak, berriz, gizakia eta, batez ere, haren arrazoitzeko gaitasuna jartzen ditu errealitatearen neurri gisa (antropozentrismoa). Artean, sinesmen erlijioso tradizionala nagusi zen arlo sozial gehienetan; baina erlijio tradizionala zalantzan jartzen zuten teoriak eta sinesmenak sortzen hasi ziren, intelektualen artean; *materialismo ilustratua* eta *deismoa* dira, haietan aipagarrienak.

Materialismo ilustratuak Frantzian izan zuen eragin handiena, Julien Offroy de La Mettrie-k idatzitako *Makina-gizakia* liburuaren eraginez. Liburu horretan, natura eta unibertsoa materia hutsez osatuta daudela baieztatzen du filosofo eta sendagile ilustratuak. Hala, haren iritziz, materiak osatzen ditu gauza guztiak; eta fenomeno guztiak, kontzientzia barne, materiaren elkarreraginen ondoriozkoak dira eta lege naturalen mende aurkitzen dira. Ez dago, beraz, ez jainkorik, ezta arima espiritualik ere.

Deismoa modu honetan definitu daiteke: Jainkoaren existentziaren gaineko sinesmena izatea pentsamendu arrazionalen soilik oinarrituta. Hau da, deistek sinesten dute badela Jainko bat, unibertsoa edo diren guztiak sortu dituena; baina haien Jainkoak ez du esku hartzen munduan, ezta bizitzaren inongo esparrutan ere. *Deus otiosus* deritzona da: egonean dagoen jainkoa. Haientzat, naturaren bidez jartzen da agerian Jainkoaren existentzia, errebelazioaren beharrik gabe. Laburbilduz, arrazoiaren printzipioekin eta dogmarik gabe eraikitako erlijioa da deismoa.



Saint-Martin d'Ivry-la-Bataille eliza.

Jarrera horren ondorioz, *Arrazoiaren Jainkosari* eskainitako tenpluak sortu ziren Frantzian, eta indartu egin ziren gremio-elkarte edo -erakunde deistak (eta, zenbait kasutan, teistak ere bai), hala nola **masoneria** (lehen elkarteak 1350. urtean sortu ziren, Ingalaterran). *Maçon* hitzak frantsesez “eraikitzailea” esan nahi du. Masoientzat, Jainkoa *Munduaren Eraikitzaile* edo *Arkitektoa* da (Platonen Demiurgoaren antzera). Masoien arabera, anaitasunean eta elkartasunean bizi beharra dago, bereizten gaituen guztia alde batera utzita. Hau da, klaseak, aberastasunak, politikak eta erlijioak ez dute garrantzirik, haien iritziz; eta erlijio monoteistak bata bestearekin harmonizatzen dituzte Jainko berari erreferentzia egiten diotela baieztatuz. Garai hartarako, tolerantzia erlijioso itzela adierazten zuen ikuspegi horrek, heresia kontsideratzen baitzen. Masoneriak eragin nabarmena izan zuen mundu zabalean, bai Estatu Batuetako

Independenzian, bai Frantziako Iraultzan (haren lema masonikoa da), baita Giza Eskubideen Adierazpenean ere.

## 1.4. ILUSTRAZIOAREN ARGIAK EDOTA ARRAZOIAREN AHALMENA

Arrazoimen ilustratua Ilustrazioaren funtsezko zutabea izan zen, eta oinarritzko hainbat gaitasun eta bertute sustatu zituen.

Lehenik eta behin, lehen aipatu den bezala, arrazoi autonomo, enpiriko eta kritikoarekiko fedea. Ilustratuek sinesten zuten arrazoimena gai zela arazoak konpontzeko eta gizartea hobetzeko. Horrek aurrerapenak ekarri zituen hainbat arlotan: zientzian, teknikan, filosofia politikoan eta etikan, besteak beste.

Bigarrenik, unibertsalismoa. Ilustratuen aburuz, giza arrazoia unibertsala da eta pertsona guztiei aplika dakieke, jatorri etnikoa, generoa edo gizarte-egoera edozein dela ere. Hala ere, puntu honetan, nabarmendu beharrekoa da, bizi ziren garaiko aurreiritzien eraginez, ilustratu askok defendatu zutela unibertsalismo hori gizonezko aberatsen kasuan soilik zela aplikagarria, emakumezkoak, beltzak, atzerritarrak, pobreak edota ezintasun fisikoa edo mentala zuten gizabanakoak baztertuta (Ilustrazioaren itzalen puntuan sakonduko dugu, gehiago, gai hori).

Hirugarrenik, Giza Eskubide naturalen lehen aldarrikapenak izan ziren. Haien artean, aipagarriak dira *Bill of rights* (1688), Ingalaterran, *Gizonaren eta herritarraren eskubideen adierazpena* (1789), Frantzian, eta *Konstituzioa* (1787), Amerikako Estatu Batuetan. Haien bidez, aldarrikatzen da gizabanakoek jaiotzez eskubide naturalak dituztela eta zuzenbide positiboak (edozein gobernu sortutako legeek) errespetatu egin behar dituela eskubide horiek. Nabarmentzekoa da burgesiak “jabetza eskubidea” ere eskubide naturalen artean kokatu zuela, hura nahitaezko baldintza baitzuen haren existentzia justifikatzeko.



Gizonaren eta herritarraren eskubideen adierazpena (1789).

## Gehiago sakontzeko: IRAKURRI ETA EZTABAIDATU

Jabetza-eskubidea ez da beti onartu eskubide natural gisa. Izatez, jabetza pribatua eskubide natural gisa ezartzeak eztabaida ugari piztu zituen Ingalaterran, XVI. eta XVII. mendeetan. Izan ere, Akinoko Tomasen garaitik eskubide naturalen jatorria Jainkoa zela kontsideratzen zen. Jatorri jainkotiarrek ematen die eskubide naturalei beharrezko legitimotasuna eta legezotasuna; eta, ondorioz, gizakiek sorturiko legeek, zuzenbide positiboa osatzen dutenek, errespetatu egin behar dituzte eskubide horiek. Baina arazoa da eskubide naturalak



John Locke (1632-1704), Godfrey Kneller-ek eginiko erretratuan. CC BY-SA 4.0. lizentziapean.

Jainkoak sorturikoak badira gizaki guztiek jabetza eskubide berbera izan beharko luketela. Hori “zuzentzeko” eta jabetza-pribatua posible izateko, eskubide naturalak gizatiarrak direlako doktrina zabaldu zen. Ilustrazio-garaian fedea garrantzia galduz joateak eta izate espiritual eta naturaz-haraindikoen existentzia zalantzan jartzeak indartu egin zuen eskubide naturalak gizakion sorkuntza direlako ideia.

Esandakoaren harian, John Locke (1632-1704) pentsalari liberalaren teoria aipatu beharra dago. Lockeren arabera, Estatuaren boterea mugatu beharra dago, batez ere jabetzaren eskubideari dagokionez, jabetzak bihurtzen baitu, haren iritziz, pertsona burujabea eta beregaina. Hau da, “Jainkoak denoi emandakoa” –ondasunak eta haien gozamina– “naturalki”



Gerrard Winstanley (1609-1676).

pribatu bezala birmoldatu behar dugu “autosufizientzia eskubidea” berma dadin. Hala, jabetza giza instituzioa izanik, printzipio natural gisa aurkeztea lortu zuen: eskubide aurre-politiko gisa. Era horretan, askatasuna “jabetza pribaturako askatasuna” bilakatu zen batez ere. Aitzitik, Gerrard Winstanley (1609-1676) –Marxek eta Leninek miresten zuten pentsalaria– kritikoa izan zen Lockerekiko, eta lurra eta baliabide natural guztiak herritar guztien funtsezko ondasun gisa kolektibizatzearen alde egin zuen, komunismo berdintzaile batean oinarrituta. Haren ustez, erregimen idealak nekazari eta artisau txikien ekonomia txikian izan behar zuen oinarria. Ekoizpena eta hobekuntza teknikoak herriari ondasun material ugari emateko eta naturaren indarretatik askatzen laguntzeko baliatu behar ziren.

- 1.- Har daiteke jabetza-eskubidea eskubide naturaltzat? Zenbat du naturaletik eta zenbat sorkuntzatik?
- 2.- Zer jarrera da justuagoa, zure iritziz, John Lockeren liberalismoa edo Winstanleyren komunismoa? Zergatik?
- 3.- Badago eskubide naturalak justifikatzerik? Hala bada, nola? Posible ez bada, zergatik?



Laugarrenik, berdintasunaren defentsa azpimarratu beharra dago. Arrazoi ilustratua eragile garrantzitsua izan zen eskubide-berdintasunaren eta esklabotza indargabetzearen aldeko borrokan. Mary Wollstonecraft, Olympe de Gouges, Nicolas de Condorcet, Benito Jeronimo Feijoo eta beste batzuen lanak aipatu behar dira genero-berdintasunaren sustatzaile gisa.

Bosgarrenik, ilustrazioak laizismoa edo Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa sustatu zituen, arrazoimena eta legea erlijio-agintearen gainetik zeudela aldarrikatuta.

Azkenik, baikortasuna aipa dezakegu: ilustratu asko baikorrak izan ziren arrazoiak giza izaera eta gizartea hobetzeko zuen ahalmenaz, eta horrek erreforma politiko eta sozial esanguratsuak ekarri zituen.

Laburbilduz, arrazoimen ilustratua indar intelektual ahaltsua izan zen, eta gizarte hobea eraikitzen ahalegindu zen, kritikaren, behaketaren, unibertsaltasunaren eta pentsamendu arrazionalaren eta zientifikoaren bidez.

Aipatutako sei printzipio horiek eragin handia izan zuten Ilustrazioan, mundua ulertzeko eta eraldatzeko moduan.

## 1.5. ILUSTRAZIOAREN ITZALAK

Argien Mendeak itzal anitz eta muga nabarmenak ere izan zituen, batik bat berak aldarrikatutako idealak (berdintasuna, askatasuna, eskubide naturalak...) aplikatzeko orduan.

Hasteko, zenbait gizatalde baztertu egin ziren. Gizakien Eskubideen aldarrikapen anitz izan baziren ere (aurreko atalean aipatutako *Bill of rights* (1688), Ingalaterran, *Gizonaren eta herritarraren eskubideen adierazpena* (1789), Frantzia, eta *Konstituzioa* (1789-1791), Amerikako Estatu Batuetan), gutxi batzuei soilik aplikatu zitzaizkien ustezko giza eskubide naturalak; konkretuki, gizonezko zuri eta dirudunei.

Nola?

Juridikoki. Errolda-sufragioa erabili zuten burgesek horretarako. Errolda-sufragioa sufragio mugatu bat da: mugatu egiten ditu botoa emateko eta aukeratua izateko eskubideak. Burgesiak sustatu zuen sufragio-mota hori; eta, hala, aberastasunaren edo jabetzaren arabera ezarri zituen mugak, baita heziketa-mailaren arabera ere. Hala, boto-eskubidetik kanpo utzi zituzten herritar gehienak, batez ere emakumeak, pobreak, esklaboak eta indigenak.

Idea honetan oinarritzen da errolda-sufragioa: baliabide gehien eta heziketa-maila altuena duten pertsonak bakarrik har ditzakete erabaki politiko arrazional eta arduratsuak. Izan ere, uste zuten herria ez zegoela prestatuta demokrazian parte hartzeko, erraz manipulatu edo engaina baitzezaketan demagogoen. Ilustrazioko pentsalari batzuek, hala nola Voltairek, Montesquieuk edo Rousseauk, despotismoa eta kaosa saihesteko modu gisa defendatu zuten errolda-sufragioa. Beste ilustratu batzuek, berriz, hala nola Condorcetek edo Diderotek, kritikatu egin zuten eta sufragio unibertsalaren alde egin zuten: hau da, herritar guztiek, bereizketarik gabe, boto-

eskubidea izatearen alde. Egile horien ustez, errolda-sufragioa bidegabea eta berdintasunaren, herri-subiranotasunaren eta giza eskubideen printzipioen aurkakoa da. Gainera, adierazi zuten eliteen interesak bultzatzen zituela eta gizarte-bidegabekeriak betiketzen zituela.

Errolda-sufragioa Frantzia, Estatu Batuetan, Ingalaterran edo Espainian aplikatu zen, XVIII. eta XIX. mendeetan. Hala ere, denborarekin, sufragio unibertsalak ordezkatu zuen errolda-sufragioa, gizarte-mugimenduen borroka eta aldarrikapenei esker. Aipatzekoak dira, mugimendu eta gertakari horien artean, Frantziako Iraultza, Estatu Batuen Independentzia, Industria Iraultza, emakumeen sufragioa edo Latinoamerikako herrialdeen independentzia.

Errolda-sufragioa lehen erregimen parlamentarioen eta liberalen ezaugarria izan zen, eta onartu beharra dago mugatua baldin bazen ere lorpen esanguratsua izan zela demokrazia politikorik eza erakusten zuen absolutismoaren aldean.

Baina nola gauzatu zen errolda-sufragioa?

Errolda-sufragioa lehen aldiz izan zuten herrialdeak, Frantziak eta Prusiak kasu, “hiritar aktibo eta hiritar pasibo” kontzeptuez baliatu ziren. Zehazki, Sieyès abadeak, 1789ko uztailean, Frantziako Batzar Konstituziogilean, proposatu zuen hiritarrak “aktibo” eta “pasibo” artean bereiztea. Bereizi nahi zituen, alde batetik, kudeaketa publikoan eta ordezkartza-karguetan parte hartzeko eskubidea zuten herritarrak eta, bestetik, Estatuaren prestazioak jasotzeko eskubidea baino ez zutenak. Hiritar aktiboak zergak ordainduta Estatuari eusten laguntzen ziotenak ziren; hiritar pasiboak, berriz, emakumeak, haurrak, atzerritarrak eta pobreak. Ideia hori kritikatu egin zuten iraultzaile batzuek, hala nola Robespierrek, gizonezkoen sufragio unibertsala defendatzen baitzuten. Hala ere, Frantzia *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenaren* aplikazioan (1789) bereizketa egin zen eskubide politikoak lortu zituztenen eta ez zituztenen artean.

Eskubide politiko horiek zituztenei *hiritar aktibo* deitu zitzairen. Hiritartasun aktiboa lortzeko, gutxienez 25 urteko gizon frantsesa izan beharra zegoen, hiru eguneko lanaren ordainaren pareko zergak ordaindu eta askea izan. Adierazpenaren garaian, aberastasun edo jabetzak zituzten gizonezkoek soilik betetzen zituzten baldintza horiek. Hiritar aktibo izateko ezarritako eskakizuna zela eta, Frantzia, gutxi gorabehera 4,3 milioi frantziarri bakarrik aitortu zitzairen botoa emateko eskubidea, populazioa 29 milioi izan arren.

*Hiritar pasibo* kontzeptua *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenaren* jasotako eskubide politikoetatik kanpo zeuden populazioaren multzo horiek izendatzeko sortu zen.

Hiritar aktiboen eta pasiboen arteko bereizketa horrek zuzenean eragiten die *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpeneko* 6., 12. eta 14. artikuluei.

Iraultzak iraun zuen denbora osoan, tentsioak sortu ziren hiritar aktiboen eta pasiboen artean. Hori gertatu zen hiritar pasiboak eskubide gehiago eskatzen hasi zirenean edo herritar aktiboek agertutako idealei entzungor egin zirenean.

1849ko maiatzaren 30ean, Prusiak hiru estamentutan oinarritutako hauteskunde-sistema ezarri zuen Ordezkarien Ganberarako. Gizon bakoitza –emakumeek ezin zuten bozkatu– hiru estamentuetako batean kokatzen zen, ordaintzen zituen zergen baturaren arabera. Lehen klasea edo estamentua lur-jabeek eta nobleek osatzen zuten, batez ere; bigarrena, merkatariak; eta hirugarrena, bozkatzeko eskubidea zuten gainerako pertsonak. Azken multzo horretan kokatzen zen hautesleen % 83. Estamentu horietako bakoitzak Ordezkarien Ganbarako lekuen herena aukeratzen zuen, eta horrek esan nahi du hiritar aberatsek, populazioaren gutxiengoa izanik, diru-sarrera txikikoek baino erabakitze ahalmen askoz handiagoa zutela. Alemaniako enperadorearen abdikaziora arte –Lehen Mundu Gerraren amaieran– ez zen aldaketa handirik egin Alemaniako hauteskunde-legean.

Jaso eta azter dezagun, orain, zer esan zuten ilustratuek Argien Mendean bazterturiko talde bakoitzari buruz.

#### EMAKUMEZKOEN BAZTERKETA

Ilustrazioko filosofoek askotariko ikuspegiak zituzten emakumeez, aldi horretako pentsamendu-aniztasunaren isla. Filosofo batzuek, Jean-Jacques Rousseau kasu, ikuspuntu tradizional eta heteropatriarkalak zituzten emakumeen rol eta gaitasunei buruz. Hala, Rousseauk, *Emilio edo Heziketak* (1722) lanean, argudiatu zuen emakumeak berez emazte eta ama gisa etxeko roletarako egokiak zirela eta rol horietara bideraturiko heziketa aproposa jaso behar zutela, gizonen heziketa ez bezalako.

#### Gehiago sakontzeko: IRAKURRI ETA EZTABAIDATU



Jean -Jacques Rousseau: *Emilio*, Alianza Editorial, 1990 (zatiak).

1)“Sexuaren patu bereziari erreparatzen diodanean, haien (sexu bakoitzaren) joerei edo betebehareiri erreparatzen diodanean, denak era berean adierazten du zein den haietariko bakoitzari hobekien egokitzen zaion hezibidea. Gizonak eta emakumeak bata bestearentzat eginak daude, baina elkarrekiko mendekotasuna ez da maila berekoa. Gizonak emakumeen mendeko dira, beren nahien arabera bakarrik; emakumeak gizonen mendeko daude, bai beren nahien arabera, bai beren premien arabera. Hobeto iraua genezake guk haiek gabe, haiek gu gabe baino”.

J.J. Rousseau (1712-1778)

2) “Horregatik, emakumeen heziketak gizonezkoen beharretara egokitua izan behar du beti. Gurekin atseginak izan, guretzat baliagarri, guk haiek maitatzea eta estimatzea lortu, gaztetan gu hezi eta nagusitan zaindu, gure aholkulari izan, gure kontsolatzaile, gure bizitzak erraz eta atsegin bihurtu: horiexek dira emakumeen betebeharrak beti, eta hori irakatsi behar zaie, umetatik. Printzipio hori errepikatzean huts egiten dugun heinean, aldendu egiten gara helburutik; eta ematen zaizkien jarraibide guztiek ez dute laguntzen, ez haien zorionean, ez gurean”.

-

--

3) “Arrazoi berarengatik, emakumeek oso askatasun gutxi dute edo izan behar dute;

edo zertan utzi egiten baldin bazaie, oso barkaberak dira beren buruekiko. Gustuko dute edozer gauza muturreraino eramatea; jostetan ere, haurrak baino txoroagoak dira”.

-

4) “Izaera ona edo nortasun leuna izatea da emakume baten lehen ezaugarria eta inportanteena. Gizona bezalako izaki inperfektu bati (sarritan, bizioz betea; eta, beti, hutsegitez betea) obeditzeko trebatua, ikasi egin behar du, denborarekin, baita senarraren bidegabekeria pairatzen eta haren irainak kexatu gabe jasaten ere. Izaeraz xaloa izan behar du: ez senarraren begirunez, baizik eta bere buruaren begirunez”.

-

5) “Sexu bakoitzak bere berezko tonuari eta jokamoldeei eutsi behar die. Senar otzanak emazte lotsagabea eragin dezake. Baina emakumearen jarrera otzanak beti ekarriko du gizona arrazoiria, senarra astakilo hutsa ez bada behintzat; eta lehenago edo geroago garaitu egingo du hura”.

-

6) “Bere jokabidearen zuzentasunaz ziur dagoen gizona bere buruaren mende dago soilik, eta desafio egin diezaioke iritzi publikoari; baina emakume batek bere betebeharraren erdia bakarrik betetzen du ondo jokatuz gero, ezen balio bera dute haren gaineko iritziek eta haren benetako izateak. Hortik ondorioztatzen da emakumeen hezibideak, horri dagokionez, gurearen guztiz bestelakoa izan beharko lukeela. Gizonon artean, iritzia bertutearen hilobia da; baina, emakumeen artean, tronua”.

#### **EZTABAIDATZEKO GALDERAK/PROPOSAMENAK:**

**1.- Lehen testuan, egin esaldi honen gaineko iruzkina:** “Hobeto iraun genezake guk haiek gabe, haiek gu gabe baino”.

**2.- Zein da emakumearen funtzioa, bigarren testu-zatiaren arabera?**

**3.- Norekin parekatzen ditu 3. zatian emakumezkoak Rousseau jaunak?**

**4.- Laugarren zatia kontuan izanik, zein da Rousseauren jarrera tratu txarreko?**

**5.- Bosgarren zatia: Rousseauren ustez, nolakoa izan behar du senarrak emaztea lotsagabetzeko arriskurik izan ez dadin? Eta zer espero behar du emakumeak, senarra astakilo hutsa bada eta hura lasaitzea lortzen ez badu?**

**6.- Seigarren zatia esamolde honekin laburbil daiteke: “Zesarren emazteak ez du soilik ondradua izan behar, ondradu-itxura ere eman behar du”. Zertan eragiten da kaltea emakumea ez bada itxuraz ondradua? Hau da, Rousseauren aburuz, zer da okerrean iritzi publikoak, gezurrezkoa bada ere, emakume baten portaera zalantzan jartzen duenean?**

Immanuel Kantek, Ilustrazioko filosofo ospetsuak, ere ikuspuntu bitxiak eta, sarritan, eztabaidagarriak zituen emakumeez. Kanten iritziek haren garaiko gizarte-arau eta gizarte-sinesmen nagusien eragina izan zuten; eta arau eta sinesmen horiek, askotan, patriarkalak ziren eta emakumeen rola eta eskubideak mugatzen zituztenak. Kantek generoen bereizketan sinesten zuen, eta sexuan oinarritutako gizarte-rolak zorrotz banatzearen alde egin zuen. Haren esanetan, emakumeak gizonen azpitik zeuden, fisikoki eta intelektualki, eta uste zuen etxeko esparruan gorde eta emazteen eta amen papera izan behar zutela. Gainera, Kantek emakumeen arrazoinamendu moral eta gizonena berez desberdinak direla defendatu zuen. Izan ere, haren esanetan, gizonen printzipioetan oinarritutako arrazoinamendu moral gorena dute; eta emakumeek, berriz, sinpatiarako eta erantzun emozionalak emateko joera. Argi ikus daiteke Kanten aburuz emakumeak ez direla egokiak jarduera filosofiko edota politikoetarako.



### **Gehiago sakontzeko: IRAKURRI ETA EZTABAIDATU**

Kant honela mintzo da heziketa jaso eta esparru pribatuaren muga naturalak gainditu nahi zituzten emakumezkoek:

«Burua grekoz beteta duen emakume letradun batek, hala nola Dacier andereak, edo mekanikari buruzko eztabaida sakonetan parte hartzen duen emakume batek, hala nola Chateletoko markesak, bizarra izan beharko luke; hala, hobeto nabarmenduko litzateke pentsalari sakonak direlako irudia, hori lortzeko borrokatzen baitira».

«Emakume ikasiei dagokienez, emakume horiek erlojuak bezain beharrezkoak dituzte liburuak; hau da, zer duten ikus dadin eramaten dute erlojua, nahiz eta geldirik egon edo eguzkiaren arabera orduan jarrita ez egon».

"Emakumeen bertutea ederra izatea da; gizonena, noblea izatea. Emakumeek gaitza saihesten dute, ez bidegabea delako, gogaikarria delako baizik; eta ekintza bertutetsuak moralki ederrak dira haientzat. Ez diezaiegun hitz egin beharrezkotasunaz, betebeharrak, obligazioez... Esango nuke sexu ederrak ez duela printzipioen arabera jokatzeko".

Kant, 1764: *Ederraren eta bikainaren sentimenduari buruzko oharra*.

**1.- Zeinekin parekatzen ditu Kantek gizonezkoen heziketa bera jaso duten emakumeak?**

**2.- Kanten ustez, zer balio zuten liburuek edo heziketak, emakumeentzat?**

**3.- Kontuan harturik pertsona guztiak gure garai eta kulturaren produktu garela, ba al dago gure garaitik epaitzerik aurreko garai bateko egile baten iritziak? Zergatik?**

Bestalde, ilustrazioko beste pentsalari batzuek emakumeen eskubideen alde eta berdintasun handiagoaren alde egin zuten. Adibidez, Mary Wollstonecraftek, *Vindication of the rights of woman* (1792) lanean, sutsu defendatu zituen emakumeen heziketa eta eskubide politikoak; eta emakumeak arrazionaltasun handiko eta aukera-berdintasuna merezi duten gizabanako gisa ikusten ditu.




'Denis Diderot-en erretratua'(1767), Louis-Michel van Loo.

Denis Diderotek, *Entziklopedian*, aurre egiten die genero-rol tradizionalei eta emakumeen ekarpen intelektualak nabarmentzen dituzten artikuluak jasotzen ditu.

David Hume (1711-1776) –ilustrazioko filosofo garrantzitsua hura ere– etengabe defendatu zuen emakumeen gaitasun intelektualen berdintasuna, eta haien heziketaren eta ahalduntzearen alde egin zuen. Hume desafiatu egin zituen ohiko genero-estereotipoak. Uste zuen emakumeek gizonen potentzial bera zutela hazkunde intelektualerako eta garapenerako, eta aukera berberak izan behar zituztela hezkuntzan eta jarduera intelektualetan. *Of the Standard of Taste* saiakeran, Hume adierazi zuen emakumeek gizonen parekoa edo are handiagoa zutela gustu eta iritzi naturala. Argudiatu zuen seriotasunez hartu behar direla emakumeek estetikaz eta gustuaz dituzten iritziak eta ez direla baztertu behar soilik haien generoagatik. Hume emakumeei buruz zituen iritziak oso aurrerakoiak ziren bere garairako, baina merezi du aipatzea hala ere bazituela zenbait aurreiritzi eta estereotipo emakumekiko. Bereziki, haren gutun eta idazki pertsonaletan antz ematen da hori, noizean behin emakume izaerari buruzko orokortzeak egiten baititu.



David Hume (1711-1776)ren erretratua, Allan Ramsayk egina.



Benito Jerónimo Feijóo (1676-1764).

Espainian, Benito

Jeronimo Feijoo (1676-1764) fraide beneditiarra aipatu beharra dago. Salamancan hezia, Teologiako katedra bat irabazi zuen, oposizio bidez, Oviedoko Unibertsitatean; eta han bizi izan zen 1709tik hil arte. Ikasten, irakasten, poemak konposatzen eta bere lanen defentsan eman zuen bizitza; eta epistolario aberats bat sortu zuen. Besteak beste, *Emakumeen defentsa* liburuaren egilea da. Liburu hori Espainiako feminismoaren lehen tratatutzat jotzen da. Literatura-mailara jaso zuen saiakeraren generoa, Espainian; eta, Gregorio Mayanekin batera, Espainiako lehen ilustratutzat hartzen da. Obra oparoa garatu zuen. Haren lan guztien ezaugarria da sineskeria ororekin amaitzeko eta era guztietako berrikuntza zientifikoak zabaltzeko ahalegina. "Letren errepublikako hiritar aske" esaten zion bere buruari. Filosofikoki, Francis Baconen enpirismoa eta haren *Novum Organum* (1620) izenburuko liburua aukeratu zituen ardatz gisa, eta eklektizismoa eta eszeptizismoa uztartu zituen. Francis Bacon ez gainera, Newton, Gassendi, Maignan, Descartes, Malebranche, Boyle eta Locke dira gehien aipatzen dituen egileak. Estetikari dagokionez, arras modernoak izan zen eta aitzindaria izan zen gerora Erromantizismoak defendatu zituen jarreretan.

#### ARRAZAKERIA ETA ARRAZA ZURIAREN GAILENTASUN FALTSUA

Arrazakeria modernoa<sup>1</sup> Frantzia sortu zen doktrina gisa. Baliozkotzat hartuko dugu György Lukácsen *Die Zerstörung der Vernunft (Erasoa arrazoimenari)* (1968) obran zehazten duen tesia: hots, arrazakeria XVIII. mendean sortu zela eta XIX. mendean hedatu eta finkatu zela.

<sup>1</sup> Zentsu hertsian, ez dago besterik.

Biologiaren eta genetikaren erabilera politiko zitalari buruzko lan batean (1946an, data esanguratsu batean, argitaratua), Leslie Clarence Dunn eta Theodosius Dobzhansky genetikariek iruzkin interesgarri bat egin zuten:

"Giza aurreiritzien artean, zaharra (antzinakoa) da sinestea norberaren familia edo arraza bizilagunenak baino hobeak direla; baina nahiko berria da nagusitasun hori herentzian jasotako ezaugarri biologikoei atxikitzeko ideia. Duela 2000 urte baino lehenagoko heleniarrak ziur zeuden barbaroak baino hobeak zirela (heleniar ez ziren guztiei deitzen zieten *barbaro*); baina barbaroak ez zituzten behe mailakotzat hartzen haien gorputzek zerbait txarra zutelako, baizik eta mahaian modu finik ez zutelako".

Hau da, barbaroen gutxiagotasuna ez zen somatika edo biologikoa. Persiarrek ere beste guztiak baino gehiago zirela uste zuten. Eta, egia esan, edozein komunitatek, oso txikia izan arren, uste du kosmosaren erdian dagoela. "Nagusitasunaren" ideia mundua bezain zaharra da. Baina hori ez da arrazakeria, zentzu hertsian. Lehen alderdi hori nabarmendu nahi dugu. Horregatik, "arrazakeria modernoa" esatea pleonasma bat da.

XVIII. eta XIX. mendeetan agertu zen arrazakeria "zientifikoa" edo naturalista; eta orduan sortu ziren hainbat teoria eta praktika ustez zientifiko, hala nola era guztietako "eboluzionismoak", "gizarte-darwinismoa", "jaraunspeneko determinismoa", "eugenesia", "kraneometria" edo "frenologia". Hala ere, ñabardura garrantzitsu bat erantsi behar dugu hemen. Izan ere, Lukácsék gai horien azterketan ondo ikusten zuenez, kontu handiz ibili behar dugu ulertzeko horrek guztiak ez zuela zerikusirik biologiarekin, zientzia gisa. Filosofo, antropologo, soziologo eta psikologo multzo handi batek iruzur eginez erabili izan ditu kontzeptu biologikoak, desitxuratuta, gizakien arteko desberdintasun guztiak "naturalizazioaren" bide zabaletik justifikatu eta sendotzeko. Hala, desberdintasunen jatorria ez litzateke izango sozioekonomikoa edo heziketa-mailakoa edota kulturala, baizik eta banaketa edo antolamendu "natural" batek bermatua. Hartara, erakundeen ezein esku hartzek ez luke izango egoera hori aldatzeko modurik. Agerikoa da horrek guztiak zenbateko eragina izan duen zenbait ideologiatan. XX. mendeko lehen hamarkadetan, klimax izugarri bat lortu zuten teoria horiek guztiek. Gaur egun, ziur gaude doktrina "zientifiko-natural" haiek guztiak "gizakiaren neurri faltsua" zirela, Stephen Jay Gould-en (1984) adierazpen oso doia erabiltzeagatik. Eta Giza Genomaren azterketari esker, badakigu giza arrazak ez direla existitzen; ikuspuntu biologiko batetik abiatuta. Hala ere, horrek ez du eragozten XVIII. eta XIX. mendeetako sasi-jakintzen eragina benetan handia izatea gaur egun ere iruditeria politikoaren eta propagandaren eremuan.

**GEHIAGO SAKONTZEKO:**

*Eugenesia* hitzak jatorri greziarra du: *eu* hitzak 'on' esan nahi du; eta *genesis* hitzak, 'sortzea'. Hortaz, literalki, hitzak "sortze ona" esan nahi du. Gauza jakina da espartarrek eugenesia praktikatzen zutela, hots, ahuleziaren batekin jaiotako haurrak amildegi batetik behera bota eta hil egiten zituztela. Platonek ere, bere gizarte idealean, *Kalipolisean*, eugenesia praktikatzea proposatzen du.

XVIII. mendean “arrazismo zientifikoa” sortzearen ondorioz, indarra hartu zuten doktrina eugenetikoen. Herrialde katolikoetan, ez zuten ia eraginik izan; baina indar handiz errotu ziren nazio anglo-saxoi eta protestanteetan. Eugenesiari buruzko lehen nazioarteko kongresuak Londresen (1912) eta New Yorken (1921) egin ziren. Baina, are garrantzitsuagoa, ideia horien lehen aplikazio praktikoa (“borondatezko” edo nahitaezko esterilizazioko gobernu-programak) Estatu Batuetan eta Eskandinaviako herrialde batzuetan gauzatu zen. Suedian, adibidez, nahitaezko esterilizazioa aplikatu zitzaizen “ezbeharrekoei”, XX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera (hirurogeita hamarreko hamarkadan ere, egiten zen oraindik). Naziek, zentzu horretan, aitzindariak izan zituzten; eta haiengandik ikasi zuten.

**1.- *Gattaca* filman, etorkizuneko gizarte bat irudikatzen da. Gizarte horretan, gurasoen seme-alaben ezaugarri genetikoak (altuera, begien kolorea, gaixotasunak ez izate a...) aukeratu ahal dituzte. Halako gizarte batean, ez litzateke izango mioperik, lodirik, diabetikorik, *Down* sindromedun pertsonarik... Zure iritziz, desiragarria litzateke halako gizarte mota bat? Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna bikoteka; eta, gero, eztabaidatu klasean. Azkenik, egin iruzkin kritiko bat (250-300 hitz).**

XVIII. mendeko pentsalari batzuek, erabat arrazistak diren nozioak aurkitzen ditugu. “Arrazakeria zientifikoa” deiturikoa ilustratu ospetsuek garatu zuten, batez ere Frantzia eta eremu anglo-saxoian, germaniarrean eta eskandinaviarrean.

Lineo suediarren (1707-1778) *Systema naturae* liburuan (1735) zirriboratu zuen denbora luzez kanonikoa izan den giza arrazen sailkapen eta banaketa: *zuria* (gizon europarra), *beltza* (gizon afrikarra), *horia* (gizon asiarra) eta *gorria* (gizon amerikarra). Eta honako hau da adierazgarriena: haren iritziz, ezaugarri morfologikoen edo fenotipikoen ez ezik, izaerak, ezaugarri moralek eta portaerazkoek, eta ezaugarri kognitiboek ere definitzen edo bereizten dute arraza horietako bakoitza. Hori guztia erakusten saiatu zen, premisa faltsuetatik abiatuta.

1776an, Johann Friedrich Blumenbach alemaniarren (1752-1840) sakondu egin zuen naturalista suediarren sailkapen horretan; eta barietateren bat gehitu eta, batez ere, areagotu egin zuen arraza batzuen eta besteen arteko hierarkizazioa. Blumenbachentzat, Kaukasoko barietatea dago gailurrean. Nola ez! Dirudienez, Blumenbachek Kantekin idazki arrazistetatik hartu zituen bere ideietako batzuk.

#### **Gehiago sakontzeko: IRAKURRI ETA EZTABAIDATU**

Ezeri ekin baino lehen, aipatu beharra dago XXI. mendean Immanuel Kantekin figuraren berrikuspen kritikoak izaten ari dela. Arrazoiak da XXI. mendera arte Kantekin irudia idealizatzeko joera egon dela, haren testu ezagunenak –*Arrazoi hutsaren kritika* (1781) eta *Arrazoi praktikoen kritika* (1784)– soilik kontuan hartuta. Baina, mende honetan, Kantekin testu ezagunak aztertzearekin batera, Königsbergeko pentsalariaren beste irudi bat, itsusiagoa eta zikinduagoa, agertzen ari da: emakumeekiko eta beste arrazekiko gutxiespena sentitzen zuen gizon zuri europar matxista, etnozentriko eta arrazista batena, alegia.

Arrazen arteko ezberdintasunaren gaia bi idazki laburretan jorratzen du Kantekin, beren-beregi: *Gizakien askotariko arrazei buruz* (1775) eta *Giza arraza baten kontzeptuaren*

*determinazioa* (1785). Bi testuetan, Kantek giza arrazak badirela egiaztatzen du, bata bestetik bereziak. Lehenengoan, berariaz baieztatzen du honako hau: "Nahiz eta beltzak eta zuriak gizon-mota ezberdinak ez izan, bi arraza bereiz dira". Hori agerikoa da, Kantentzat. Izan ere, bi arrazak nahasiz gero, seme-alabak mestizoak dira; eta, zurien eta beltzen arteko nahasketa badira, mulatoak. Puntu hori argitzeko, Kantek arraza bereko gizabanakoen arteko ezberdintasunak –gaztaina-koloreko ilea dutenen eta ilehorien arteko aldea– jartzen ditu adibidetzat. Kasu horretan, nahasketa horretatik sortzen diren seme-alabak beltzaranak izan daitezke denak edo ilehoriak denak, edo batzuk ilehoriak eta beste batzuk beltzaranak; baina ez tarteko ile-kolorekoak. Adibide horretan, "zuriaren joko-zelaian mugitzen gara" dio Kantek. Baina arrazak haien artean gurutzatzen badira, emaitza –mestizoa– tartekoa da, arraza bereko kideen artean ez bezala.

Hala, arrazaren parametroa erabiliz, egileak funtsezko lau arraza bereizi zituen: "Nire ustez, beharrezkoa da onartzea lehen begiradan ezagut daitezkeen lau arraza daudela. Hauek dira: 1) Zuriaren arraza, 2) Arraza beltza 3) Hunoen arraza (mongoliarrak) 4) Hinduen edo Hinduisten arraza. Lau arraza horietatik abiatuta ondoriozta daitezke herrien beste ezaugarri heredagarri guztiak." (Kant, *Gizakien arraza ezberdinei buruz*). Aurrerago, bosgarren arraza bat gehitu zion Kantek sailkapenari: Ipar Amerikako indiarrei zegokien arraza kobre kolorekoa edo gorria.

Hala ere, Kant ohartzen da arrazen bereizketan oinarrituta ezin dela baieztatu gizakiak lau "sustrai" dituela, arraza bakoitzeko bat; hots, ezin dela poligenismoa defendatu. Kantek, Buffonen antzera, monogenismoa defendatu zuen –hots, gizaki guztiok sustrai bakarra eta komuna dugula–, eta Johann Georg Adam Forster alemaniar naturalista, etnologo eta iraultzaile poligenistaren aurka agertu zen. Izan ere, Kanten arabera, gezurtaezina da mestizoak badirela; eta, mestizoak existitzeko, ezinbestekoa da ugalketa posible izatea bi arrazatako kideen artean. Hortaz, arrazen arteko distantzia, agerikoa bada ere, ez da ezin gaindituzko muga bat izatera iristen. Are gehiago, tarteko arrazak –mestizoak– ugalkorrak direla kontuan hartuta (animalia-espezieen arteko nahasketan ez bezala; adibidez, zaldiaren eta astoaren nahasketa diren mandoak antzuak dira). Beraz, Kanten arabera, nahitaezkoa da jatorrizko sustrai bat existitzea; eta, konkretuki, gaztaina-koloreko ilea duten zuriaren arraza ezarri zuen lehen iturri gisa. Hala, zuriaren lehentasuna eta funtsezko nagusitasuna ezarri zuen: zuriak dira jatorritik, iturritik, hurbilen daudenak. Gainontzeko arrazak urrunago daude jatorrizko espezieetik, eta honako hau da hierarkia:

Jatorrizko enborra: zuria, gaztaina-koloreko ilea duena.

Lehen arraza: zuri ilehoria (Eskandinaviarra, Europarra), [klima] hotz hezekoa.

Bigarren arraza: kobre-koloreko gorria, [klima] hotz lehorrekoa (amerikarra).

Hirugarren arraza: beltza (Senegaldarra), [klima] bero hezekoa.

Laugarren arraza: oliba-horia, [klima] bero berokoa (indiarra).

(Kant, *Gizakien askotariko arrazei buruz*)

Hala ere, Kantentzat, arraza zuriaren nagusitasunaren oinarria ez da jatorrizko iturriarekiko hurbiltasun handiagoa izatea bakarrik: arraza zuria gizatasunaren gailurra ere bada. Hori argi ikusten da Kantek eginiko adierazpen hauei erreparatuta: "Gizateriak

zurien arrazan aurkitzen du perfekziorik handiena. Indiar horiek talentu txikiagoa dute. Beltzak oso azpitik daude, eta, beheko tokian, herri amerikarren zati bat dago."(Kant, *Geografia fisikoari buruzko irakaspenak*, 1804). Esaldi horretan, beraz, talentu mailaren araberako antolamendu bat ezartzen da: arrazen hierarkia bat. Zuria gailurrean dago, eta, hari erreferentzia eginez, Kantek "handik behera" ordenatzen ditu besteak, harik eta maila txikienera iritsi eta honako hau egiaztatu arte: "(...) baldintza espiritualei dagokienez, giza espezieko gainerako kideen oso azpitik hondoratu diren arrazak dira amerikarrak eta beltzak". Eta, obra berean, Kantek zeritzon ezen Ameriketako indigenek ez dutela kultura eskuratzeko gaitasunik eta oso axolagabeak direla. Beltzei buruz dio sutsuak direla, hau da, ez direla gai beren grinei eusteko eta, horren eraginez, esklabo arraza bat bilakatu direla, eta buruzagitza baten mende egoteko premia dutela. Bestalde, eta betiere Kanten iritziz, amerikarrak beltzak baino adimentsuagoak dira: indiar oliba-horien antzekoak. Hala ere, kultura propioak eraikitzeke gai izan arren, "homo europeus"-aren kulturak baino maila eskasagoa dute haien kulturek, ez baitute zientzia egiteko gaitasunik. Azken baieztapen hori, zenbait oharrekin osatzen du, hala nola: "Europakoek ez bezala, beste herriek ez dute bidaiatzen; eta horrek frogatzen du zer-nolako muga duten beste guztiek espirituari dagokionez". Zentzu berean, esango du europarrak, eremu klimatiko moderatuetako biztanleak direnez, "(...) ederragoak direla gorputzez, langileagoak, txantxazaleagoak, grinetan neurritsuagoak: beste edozein gizon-mota baino arrazionalagoak". Laburbilduz, arraza zuria, Kantentzat, besteak baino arraza garaiagoa da: "zibilizazioaren kultura" baten egilea, liderra eta aitzindaria izatera deitua.

Horren ondorioz –dio, zehazki, bere *Geografia fisikoan*–, "herri horiek [zuriei erreferentzia eginez] armaz hezi eta menderatu dituzte besteak, garai guztietan". Hortaz, Kanten aburuz, haien nagusitasun naturalak jarri ditu zuriak beste arrazekiko botere-posizioan. Horrela, kolonizazioaren justifikazio teoriko bat ezarri zuen Kantek. Baina Kantek eginiko adierazpen arrazistak –gaur egun, zientifikoki eta etikoki, onartezinak– ez ziren hor bukatu. *Ederraren eta bikainaren sentimenduari buruzko oharra* (1764) testuan, David Hume filosofoaren hitzen berri eman zuen, eta berretsi egin zituen: "Afrikako Beltzek ez dute, berez, gauza hutsaletik goragoko sentimendurik. Hume jaunak erronka bota zuen: ezetz inork aurkitu beltzen artean talentuko gizonaren adibide bakar bat ere; eta baieztatu zuen haien herrialdeetatik kanpo eramanak izan diren ehundaka mila beltzen artean, haietako asko aske utzi badituzte ere, ez dela aurkitu bakar bat ere ezer aipagarria egin duenik artean, zientzian edo garrantzizko beste alorren batean. Zurien artean, aldiz, sarritan gertatzen da gizarte-maila apalenetik hasi, eta ekoizpen bikainen bidez gora egin, eta munduan izen ona lortzea. Gizakiaren bi arraza horien arteko aldea berezkoa da, eta ematen du adimen-gaitasunean duten aldea kolorean duten aldea bezain handia dela".

Hiru dira, gutxienez, testu horretatik ondorioztatzen diren ideiak: beltzak ergelak, txatxuak, buruarinak direla, talenturik ez dutela eta adimen-gaitasun falta erabatekoa dutela. Hori ikusteko, nahikoa da Kantek afrikar baten iritziari buruz egiten duen juzgua aipatzea: "Tipo hura erabat beltza zen, burutik oinetara, froga gezurtaezina esateko hark esandakoa ergelkeria hutsa zela." (Kant, *Giza arraza ezberdinei buruz*). Beraz, Humen iritziz, larruazalaren kolore iluna, estu-estu lotuta egongo litzateke beltzen gabezia intelektualekin. Kantengan, ordea, beltzenganako gutxiespen deigarri horrek ez dio

beltzen talentuari edo adimen-gaitasunari soilik eragiten: beltzekiko gutxiespenak barne hartzen ditu hainbat eta hainbat alderdi: alderdi fisikotik (haien usaina eta itsustasuna) hasita, haien kalitate moraleraino. Horren adibide, haren gutunetan jasotako pasarte hau: "(...) beltz kirats gogor bat, inolako garbiketaren bidez aldendu ezin daitekeena".

Azkenik, funtsezkoa da agerian jartzea Kantek "aurreiritzirik gabe" jokatzeko duelako ustean egiten dituela ohar eta adierazpen horiek: "gertaera natural" batez arituko balitz bezala. Ezberdintasun horren arrazoia Natura dela ezartzeak ondorio gisa dakar mugiezina dela arrazen arteko nagusitasun-ordena. Naturak ezarri ditu ezberdintasun horiek, eta horrek gaindiezin bihurtzen ditu.

#### **GALDERAK/PROPOSAMENAK:**

**1.- Zelan azaltzen du Kantek arrazen jatorria? Nola du izena teoria horrek?**

**2.- Zergatik zegoen Kant poligenismoaren aurka?**

**3.- Bazuten oinarri zientifikorik haren baieztapenek?**

**4.- Justifikagarria da, Kantentzat, esklabotza? Kanten aburuz, ekidin daiteke arraza zuriak beltzak esklabo gisa erabiltzea?**

**5.- Ba al da kontraesanik beltzen esklabotzari buruz egiten dituen baieztapenen eta Inperatibo Kategorikoaren artean? («Joka ezazu gizateria osoa —bai zeure buruarengan, bai beste norbaitengan— helburutzat hartuz beti, inoiz ez bitarteko huts gisa bakarrik» edota «Joka ezazu ekintzara bultzatzen zaituen printzipioa lege unibertsal bihurtzea nahi bazenu bezala»).**

**6.- Zure iritziz, kasualitatea ala kausalitatea da Kantek adieraztea gaztaina-koloreko ilea duten gizon zuriena dela jatorrizko arraza, kontuan hartuta hark ere ezaugarri fisiko horiek zituela?**

Ildo honetan, aipatzekoa da Georges Louis Leclerc frantziarra ere, Buffoneko kondea (1707-1788). XVIII. mendeko zientzialari "*monogenista*" garrantzitsuenetakoa izan zen (aipatutako Blumenbachek ere korrante horretan parte hartzen du). Monogenismoak gizaki guztiak iturri bakar eta beretik datozela defendatzen du. Jatorrizko iturri hori *Bibliako* Adam eta Eba ziren, noski. Hala, Buffonen ustez, Jainkoak Adam eta Eba (jatorrizko giza tipoak) ahalik eta zurien sortu zituen, perfektioaren sinonimoa baitzen zuritasuna. Hortaz, zuriak ez ziren beste arrazen existentzia azaltzeko, modu bakarra aurkitu zuen: "endekapena". Nola sortu ziren, orduan, askotariko arrazak? Giza arrazak Paradisuaren perfektioaren endekapenaren ondorio izan behar zuten. Baina arraza batzuk beste batzuk baino gehiago "endekatu", hau da, "ilundu" ziren.

Hemezortzigarren mendeko entziklopedismoaren ordezkari enblematikoenetakoa batzuk arraza-supremazismoaren aldekoak izan ziren. Gogora dezagun, adibidez, Voltairek mundu-ikuskera biziki arrazializatua erakutsi zuela, esanez itsu batek bakarrik jarri zezakeela zalantzan zuriak, beltzak, laponiarrak, amerikarrak eta txinatarrak "arrazak erabat desberdinak" direla. Haren ustez, garaiko etnozentrismoari ohore eginez, zuria da gailurrean dagoen arraza. Era berean, *Legeen espiritua* obran, Montesquieuk honako hau idatzi zuen:

"Hizpide ditugun izaki hauek beltzak dira burutik oinetara, eta, gainera, hain dute zapala sudurra, non ia ezinezkoa baita haietatik errukitzea. Pentsaezina da Jainkoak, izaki



infinituki jakintsua izanik, arima bat, eta batez ere arima on bat, eman diezaiokeenik gorputz guztiz beltz bati [...]. Begien bistan dago beltzek ez dutela zentzu komunik, zeren kasu gehiago egiten baitiote beirazko lepoko bati urrezko bati baino; nazio zibilizatueta, ordea, urrezkoak arreta handiagoa eskuratzen du. Ezinezkoa da pertsona horiek gizakiak direla pentsatzea, gizakitzat hartuko bagenu gu kristauak ez garela sinesten hasiko ginatete eta. "

Hortaz, Montesquieurentzat, "esklabotza-eskubidearen benetako jatorriak". "gauzen izaeran" du oinarria: esklabotza arrazoizkoa da gizaki aske baina ahul batek bere egoera hobetzeko nagusi bat aukeratzen badu; eta arrazoizkoa da, halaber, klimak pertsona alfer bihurtzen badu. Beraz, esklabotza ona da, herrialde batzuetan; baina beste batzuetan, ez. Jakina, European, esklabotza txarra da; baina, Afrikan eta Amerikan, ona izan daiteke.

*Legeen espiritua* obrako zati horren analisisa egitean, argi eta garbi ikusten da Montesquieuk ezin izan ziela ihes egin bere aurreiritzi arrazista eta etnozentristeri. Montesquieuren logika erori egiten da: izan ere, alde batetik, esklabotza askatasunaren kontrakoa dela baieztatzen du eta, bestetik, defendatzen du arraza, klima, erlijio edo ohiturengatik talde batzuk esklabo izan daitezkeela eta beste batzuk ez. Aipatu beharra dago, liburuaren parte horri dagokionez, Montesquieuk honako hau esan omen zuela: "Ez dakit kapitulu hau adimenak edo bihotzak diktatu didan".

Franz Joseph Gall (1758-1828) anatomista eta fisiologo alemaniarraren *frenologiak* eman zion hasiera arrazismo zientifikoari. Sinetsita zegoen funtzio intelektualak garunaren eremu oso espezifikotetan daudela, eta garezuraren azalerak eremu horien garapen handiagoa edo txikiagoa islatzen duela. Haren iritziz, garezuraren protuberantziak aztertuz gero, subjektuaren nortasunaren ezaugarri bereizgarrienak identifika daitezke. Galli jarraiki, Paul Broca (1824-1880) mediku, anatomista eta antropologo frantses ospetsua, Pariseko Antropologia Elkartearen sortzailea, "kraneometriaren" edo garezuraren neurketaren defendatzaile sutsua izan zen. Brocaren eboluzionismoaren jarraitzailea baitzen, esaten zuen gizonezkoen garuna emakumezkoena baino nabarmen handiagoa dela neurritz; handiagoa, gizon gailenen artean gizon kaskarren artean baino; eta handiagoa, "goi mailako arrazen" artean "behe mailako arrazen" artean baino. Ziurtatzen zuen aipaturiko ezberdintasunak errealitate egiaztagarria zirela, izan ere: "Azal beltzeko, ile iletsuko eta aurpegi prognatikoko talde bakar bat ere ez da inoiz gai izan berez zibilizazioaren mailara igotzeko". Hau da, Brocaren aburuz, ezin dugu utzi amets etiko hutsalek engaina gaitzaten; naturak ezarri ditu hierarkia mugiez eta iraunkorrak.

Era berean, Gustave Le Bon (1841-1931) –masen psikologiari buruzko ikasketek egin zuten ospetsu– ere ukitu arrazista-misoginoa eman zion Brocaren teoriari, emakumearen garunaren gutxiagotasuna azaltzean. Haren ustez, emakumezkoen ezintasuna nabarmena da pentsamendu abstraktuarekin eta analisi logikoarekin zerikusia duen edozertan. Emakumeen ahalmen intelektuala beheko arrazen maila oso eskasean kokatzen zuen Le Bon ez hain onak. Izan ere, haren aburuz, emakumearen adimen-gaitasuna gertuago egongo litzateke basatiaren eta haurren mailatik, gizon heldu eta zibilizatuarenetik baino. Hortaz, emakumeei eta gizonei heziketa bera ematea benetako zentzugabekeria litzateke.



Laburbilduz, aipaturiko ilustratuen pentsamoldeak ezarri zituen arrazismoaren oinarri teorikoak eta justifikatu zituen Europar kolonialismoa eta inperialismoa.

Kolonialismoa, batez ere, Amerikan garatu zen, XVIII. mendean, kolonia handiak baitzituzten han Espainiak, Portugalek, Frantziak, Ingalaterrak eta Holandak. Haietatik, lehengaiak, eskulana eta merkatuak eskuratzen zituzten. Kolonia horien jabetzak gatazkak eragin zituen metropolien artean, haien interesak defendatu edo zabaldu nahi zituztelako. Gatazka horien adibide dira Espainiako Ondorengotza Gerra (1701-1714), Zazpi Urteko Gerra (1756-1763) eta Estatu Batuetako Independentzia Gerra (1775-1783).

Inperialismoa, aldiz, indar handiagoz agertu zen XIX. mendean, europar potentziek Afrikan, Asian eta Ozeanian hedatzeko eta lurraldeak konkistatzeko olatu berri bati ekin baitzioten. Eskualde horiek baliabide naturalen iturri berriak, eskulan merkea eta produktu industrialetarako merkatu potentzialak eskaintzen zituzten. Inperialismoak arrazoi estrategiko, politiko eta kulturei ere erantzuten zien, hala nola prestigioa bilatzea, nazioen arteko lehia, zibilizazioa eta erlijioa hedatzea, eta teoria arrazistak eta darwinistak aplikatzea.

#### HOMOSEXUALEN KRIMINALIZAZIOA

Frantzian, 1791ean despenalizatu ziren sexu-harreman homosexualak. Alemanian eta Britainia Handian, berriz, legez kanpokoak izaten jarraitu zuten 1945era arte, alegia Bigarren Mundu-Gerraren amaiera arte. Ondorioz, esan dezakegu Europan ez zegoela homogeneotasunik sexualitate homosexualaren gaineko iritzia dagokionez.

Aro Modernoan, Europako herrialde gehienetan, heriotza-zigorra ezartzen zitzaion sodomian<sup>2</sup> harrapatutakoari. Kontuan izan behar da legeen hizkeran ere agerian geratzen zela kultura judu-kristauaren eragina. Sodomia krimen gisa kontsideratzen zen: Jainkoaren aginduak argi eta garbi desobeditzeaz gain naturari berari ere desafio egiten zion krimena.

Hala eta guztiz ere, XVIII. mendean, berriz aztertzen hasi zen sodomiari heriotza-zigorra ezartzearen gaineko auzia, herrialde gehienetako agintariek nahiago baitzuten epaiketak saihestu eta zigor arinagoak ezarri. Izan ere, agintarien iritziz, epaiketek sortzen zuten publizitateak gizarte zibilari ondorio negatiboak ekar diezazkiokeen (esaterako, homosexualitatea zabaltzea), eta hobe zen gizartea babestea gertaera horiek ezkutuan gordez. Hartara, zigorrak aldatuz joan ziren, leku batzuetan. Gizonezko homosexualen kasuan, heriotza-zigorraren ordez, bestelako zigorrak ezartzen hasi ziren: poliziak egindako ohartarazpen soilak edota aste batzuetako atxiloketak.

Alemanian, 1726an exekutatu zen, azken aldiz, homosexual bat: mutil bat bortxatu izana leporatuta kondenatu zuten akusatua. Frantzian, berriz, 1750ean, bi langile hil zituzten sutan erreta, gau batez Pariseko kale batean sodomian aritzen harrapatu zituztelako. Heriotza-zigor hori izan zen ustezko sodomia-delituarengatik exekututako azken

---

<sup>2</sup> *Sodomia* terminoa gizonezkoen arteko praktika sexualak izendatzeko erabiliko dut, hala izendatzen baitziren garai hartan. Emakumezkoen arteko praktika sexualak izendatzeko, *safismoa* erabiltzen zen.

heriotza-zigorra. Hala ere, sodomiaren aurkako etsaitasun bortitzena Ingalaterran izan zen. Han, XVIII. mendearen erdialdeko estatistikek erakusten dutenez, Londresen, hamarkada bakoitzeko exekuzio bat izan zen, gutxienez mende osoan. Datuak are beldurgarriagoak dira Erresuma Batuko beste hiri batzuetan. Gainera, ezarritako zigorretako bat pikota zen: hala, jendetzaren aurrean erakutsita, munstro gisa aurkezten zen sodomita.

Prusian, sodomiaren aurkako legeak zigor-kodean iraun zuen, harik eta 1837an heriotza-zigorraren ordeztu zela zigorra ezarri zitzaion arte. Aldi horretan, Erresuma Batuk sodomiaren kontrako legedi gogorrenarekin jarraitzen zuen: urkamendian hiltzeko zigorrak 1861era arte jarraitu zuen indarrean.

Frantzia, *Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren* (1789) bidez herritarrei aitortzen zitzaizkien askatasun pertsonal ugariak urrats garrantzitsua izan ziren homosexualitatearen kontrako diskriminazioa amaitzeko. Hartara, bi urte beranduago, 1791ko Frantziako Zigor Kode berriak ez zuen sodomia delitu gisa aipatzen; eta, beraz, ezin zen inor auzipetu horregatik.

Bestalde, Espainian, Inkisizioak jazarri egin zituen homosexualak, Erdi Arotik, heresia kasuetan inplikaturik egonez gero: 25 urtetik gorako heriotza-zigorra ezartzen zitzaienten, eta sutan erreta betetzen zen. Adingabeei, berriz, jipoi-zigorra ezartzen zitzaienten edota galeretara kondenatzen zituzten. Inkisizioaren helburu nagusia, ordea, Espainian heresia jartzeko zen; horregatik, homosexualak baino errepresio handiagoa jasan zuten juduek eta moriskoek.

Inkisizioaren arau hori, geroago, Felipe II.ak Madrilen 1598an emandako Pragmatikan jasota dago: *De la forma como se ha de tener probado el pecado contra naturam* deritzon legean. Dokumentu horretan, zenbait neurri ezartzen dira delitua errazteko frogatzeko. Ondoren, Bilduma Oso Berria (Novísima Recopilación) (1805), aurreko tradizioa jasota, eta ezartzen da sodomita hil egin behar dela, baita jokabide hori onartzen duena ere, salbu eta 14 urte baino gutxiagoko adingabea bada. Adingabe horiek jipoitu, galeretara bidali, giltzapetu eta konplizea nola erretzen zen ikustera eramaten zituzten. Dokumentuetan jasota dago izan zirela garai horretan guztian sodomiarengatik sutan erretakoak eta sodomia zigortu egin zela.

Jasota eta frogatuta dago, halaber, haien artean sexu-harremanak izaten zituzten emakumeak ere zigortu egiten zituztela. Emakume horiek berrehun zartako jasotzen zituzten, eta auzitegiek betiko erbesteratzen zituzten Erresumatik edo erre egiten zituzten, bekaturik egiteko moduaren arabera. Egoera horrek 1848ko Zigor Kodea aldarrikatu arte iraun zuen. Espainian, hortaz, jokabide homosexualak heriotza-zigorrarekin zigortzen ziren, XIX. mendera arte.

Maila juridikoa alde batera utzita, aipatu beharra dago ilustratuetako batzuek homosexualitateari buruzko iritzia eman zutela, bai homosexualitatea gaitzesteko, bai onartzeko edota justifikatzeko. Hona hemen adibide batzuk:

- Voltaire. Filosofo frantsesa homosexualitatearen kritiko zorrotzenetakoa izan zen, naturaren aurkako aberraziotzat eta Jainkoaren aurkako iraintzat jotzen baitzuen. *Hiztegi filosofikoan*, hau idatzi zuen: "Sodomia krimen higuigarria da, beti izan baita zigortua, juduen, mahomatarren, kristauen zein basatien artean. Naturaren aurkako krimena da, gizakia desohoratzen duena eta Jainkoarentzat gorrotagarri bihurtzen duena". Voltairek antzezlanetan eta gutunetan ere, iseka egin zien homosexualiei, eta leporatu zien antzinako gizartearen gainbeheraren erantzule izatea. Hala ere, bere *Candide ou l'Optimisme* (euskaraz, *Kandido edo Baikortasuna*) lanean, Kandido, pertsonaia nagusia, elizgizon baten sodomiaren biktima da. Hori Elizaren hipokrisia eta ustelkeria salatzen duen gisa uler daiteke. Izan ere, Elizak gaitzetsi egiten zuen homosexualitatea publikoan; baina, ezkutuan, praktikatu egiten zuen. Voltairek, sexuarekin lotutako gaietan, beste herri batzuetako ohituren tolerantzia eta errespetua ere defendatu zituen, hala nola persiarrena edo txinatarrena, sexualitatearen ikuspegi irekiagoa baitzuten. Beraz, esan liteke Voltairek jarrera anbibalentea zuela sodomiarekiko, bere garaiko kontraesanak eta eztabaidak islatzen baititu.
- Montesquieu. Frantziako legelari eta politikari ospetsua Voltaire baino neurritsuagoa izan zen, eta defendatu zuen ohiturak eta legeak erlatiboak zirela klima eta kultura bakoitzaren arabera. *Legeen espiritua* lanean, baieztatu zuen herrialde beroetan hotzetan baino ohikoagoa zela homosexualitatea, eta herri bakoitzaren hezkuntzaren eta erlijioaren mende zegoela. Guztiarekin ere, haren iritziz, homosexualitatea ordena naturalaren aurkakoa da eta Estatuak erreprimatu egin behar du. Ez zigor latzekin, hala nola heriotzarekin edo torturarekin, baizik eta proportzionalekin.
- Rousseau. Suitzako filosofo eta pedagogoa bere garaikideak baino tolerantetagoa izan zen; eta onartu zuen homosexualitatea berezko joera zela eta ez zela jazarri eta zigortu behar. *Emilio, edo Heziketaz* lanean, planteatzen du homosexualitatea inori kalterik egiten ez dion maitasun modu bat dela, eta aurreiritzi sozial eta erlijiosoek soilik baztertzen dutela. Rousseauk defendatu zuen homosexualek zoriontsu izateko eta beren sentimenduak eskandaluaren edo indarkeriaren beldurrik gabe adierazteko eskubidea dutela. Hala ere, homosexualitatea giza izaeraren desbideratze bat dela ere adierazi zuen, zibilizazioaren ustelkeriaren ondorio zela eta ugaltzeko betebeharrak soziala betetzea eragozten zuela. Beraz, Rousseauk sodomiaren ikuspegi kontraesankorra zuen, egoera natural eta bertutetsu batera itzultzeko ideala islatzen baitu.
- Diderot. Idazle eta entziklopedista frantsesa aurrerakoiena izan zen ilustratuen artean, eta hark defendatu zuen gehien homosexualitatea giza sexualitatearen aldaera legitimo gisa. *Rameauren iloba* lanean, pertsona homosexual bat aurkezten du, bere izaeraz harro dagoena eta gizartearen hipokrisia eta intolerantzia kritikatzeko dituen. Diderotek hainbat testu erotiko ere idatzi zituen, eta haietan sexu bereko pertsonen arteko maitasun-eszenak deskribatzen ditu, bai gizonezkoenak, bai emakumezkoenak, askatasun eta sentsualitate handiz.

Ikus daitekeenez, ilustratuek ez zuten ahobatezko iritzia izan homosexualitateaz; aitzitik, gai horren aniztasuna eta konplexutasuna islatu zuten, eta gaur egun ere gai hori eztabaidatu eta aldarrikatu egiten da.

## MENTALKI EZGAITUEN BAZTERKETA

XVIII. mendean, gaixo mentalen eskubideak oso mugatuak ziren, eta herrialde bakoitzeko egoera historiko, sozial eta kulturalaren arabekoak. Oro har, esan daiteke pentsatzen zela gaixo mentalak izaki irrazionalak, arriskutsuak edo naturaz gaindiko indarrek hartuak zirela; hargatik, tratamendu krudel, anker edo ez-eraginkorrak jasaten zituzten, hala nola itxialdia, isolamendua, zigorra, tortura edo exorzismoa.

Hala ere, izan ziren aurrerapen eta erreforma batzuk gaixo mentalen arretan ere, Ilustrazioaren mugimenduak bultzatuta, arrazoa, zientzia eta giza eskubideak defendatzen baitzituen. Hona hemen aurrerapen horien adibide batzuk:

- Philippe Pinel (1745-1826) mediku frantziarra psikiatria modernoaren aitatzat jotzen da. Pinelek proposatu zuen lehen aldiz adimen-urritasuna gaixotasun gisa tratatzea: metodo arrazional eta gizatiarrekin, eta ez zigorrekin edo itxialdiekin. Pinelek kirurgia moralaren kontzeptua sortu zuen: pazienteei giro lasaia, errespetuzkoa eta estimulatuzailea eskaintzea, haien gaitasunak garatzeko eta duintasuna berreskuratzeko.
- Jean-Étienne Dominique Esquirol (1772-1840) Pinelen ikasle izan zen, eta frantziar psikiatriaren sortzaileetako bat da. Esquirolek lau kategoriatan sailkatu zituen desgaitasun mentalaren formak: ergelkeria, dementsia, mania eta monomania. Esquirolek desgaitasun mentalaren gizarte- eta ingurumen-arrazoei ere erreparatu zien, eta defendatu zuen erakunde espezializatuak eta hezigarriak sortu behar direla ezintasun mentala dutenentzat.
- Johann Heinrich Pestalozzi (1746-1827) pedagogo suitzar bat izan zen, haur pobre eta baztertuen heziketan aritu zena. Pestalozzik uste zuen hezkuntzak pertsonaren garapen integrarean oinarritu behar zuela, eta ez soilik ezagutzen transmisioan. Pestalozzik bere hezkuntza-printzipioak aplikatu zizkien adimen-urritasuna zuten haurrei, eta uste zuen gai zirela ikasteko eta aurrera egiteko, giro afektibo, natural eta aktiboa eskainiz gero.

XVIII. mendean gaixo mentalen egoera hobetzeko egin ziren ahaleginen adibide batzuk baino ez dira horiek; baina oraindik bide luzea zegoen egiteko haien eskubideak erabat aitortuta izan arte eta gizartearen errespetua lortu arte.

Aurreko guztia kontuan hartuz, argi asko geratzen da ugariak izan zirela Ilustrazioaren itzalak. Ez zituen deuseztatu gizartean zeuden desberdintasunak (hainbat talde baztertu baitzituen, aipatu denez), eta hainbat ilustratuk justifikatu egin zituzten, teorikoki, inperialismoa eta kolonialismoa, eta arraza zuriaren gailentasunaren kontzeptua ezarri zuten.

Hortaz, garrantzitsua da aitortzea Ilustrazioak alderdi positiboak zein negatiboak izan zituela, eta historian izan duen eragina konplexua eta askotarikoa izan dela.

## 1.6. ARRAZOI ILUSTRATUAREN MUGAK

Arrazoi ilustratua Ilustrazioaren muina izan zen, eta ideia honetan zuen oinarria: giza arrazoa erabil zitekeela munduaren alderdi guztiak ulertzeko eta hobetzeko, politikatik hasi eta erlijioraino edo zientziaraino. Hala ere, arrazoimenean sineste horrek mugak eta erronkak ditu.

Hasteko, arrazoimen-ilustratuak muga kognitiboak ditu: giza izaerak mugatzen du arrazoitzeko eta ulertzeko gaitasuna. Gizakiek akats logikoak egin ditzakete, aurreiritziak eta joera kognitibo jakinak izan ditzakete, eta horrek oztopa dezake egia bilatzea.

Halaber, kontuan hartu beharrekoak dira testuinguru kulturala eta sozioekonomikoa. Arrazoa ez da ezerezean aplikatzen. Hau da, testuinguru kulturalan eta sozialean errotutako sinesmenek eta balioek eragina dute gizabanakoen arrazoiketan –ikusi dugu pentsalari ilustratuek garaiko hainbat aurreiritzi mantendu zituztela emakumeez, homosexualez, gaixo mentalez eta beste arrazetako gizakiez–. Ondorioz, testuinguruaren ezaugarriek baldintzatu egiten dute objektibotasuna. Kantek defendaturiko “arrazoi huts” hori ez da existitzen. Puntu honetan, aipatu beharra dago Karl Marxek, XIX. mendean, arrazoi ilustratuari eginiko kritika. Ilustratuek, Kantek esaterako, defendatzen zuten gizakiok indibidualki pentsatzeko gaitasuna eta askatasuna dugula eta baieztatzen zuen pentsatzeari uko egitea, alegia, Platonen haitzuloaren barrenean preso geratzea gizabanakoaren “errua” zela. Hala ere, tranpa da erantzukizun hori gizabanakoari ezartzea, Marxek azaleratu zuenez. Izan ere, baldintza ekonomikoek, hau da, gizartearen azpiegiturek, baldintzatu egiten dituzte, hein handi batean, gizabanakook arrazoiak baliatzeko ditugun aukerak.



## Gehiago sakontzeko. BEGIRATU IRUDIAK ETA EZTABAIDATU

- 1.- Zer adierazten dute, zure ustez, irudietako neskatoen aurpegiek?
- 2.- Ze aukera dituzte, bizitzan, ezkontzara derrigorturiko neskatoek, eskolara joaterik ez badute?
- 3.- Zure ustez, zenbatekoa da baldintza sozioekonomikoen eta kulturalen eragina?
- 4.- Gizabanakoarengan (Kant) jarri behar da fokua, ala gizarte-egituretan (Marx)?

Giza emozioak eta grinak ere aipatu behar dira. Arrazoa ezin da erabat bereizi giza emozio eta grinetatik. Gaur egun, XXI. mendean, ondotxo dakigu hori, zientziari esker, gaitasuna baitugu sistema linbikoak (emozioen zentroak) neokortexean (arrazoiketa zentroan) duen eragina deskribatzeko eta azaltzeko. Batzuetan, emozioek adimen arrazionala lainotu dezakete eta erabaki irrazionala eraman gaitzakete. Gainera, Freuden psikoanalisiak ere, XIX. mendetik hasita, argi utzi zuen ezen gizakion parte arrazionala inkontzienteko bulkadaitsu eta irrazionalen mende dagoela.

Ziurgabetasuna, zientzian: arrazoimenean eta zientzian sinetsi arren, fenomeno batzuk zalantzazkoak edo konplexuak dira, berez. Stephen Hawkingek bere *Denboraren historia laburra* lanaren hasieran dioenez, zientziak oraindik ez du aurkitu errealitatea azaltzeko behin betiko teoriarik. Gure dimentsioan eta makrokosmosean gertatzen diren fenomenoak azaltzeko, Albert Einsteinen erlatibitatearen teoria erabiltzen du; eta mikrokosmosean gertatzen diren fenomenoak azaltzeko, berriz, Max Plancken teoria kuantikoa. Bi teoria horiek oraindik ez dira bateratu behin betiko teoria batean. Izan ere, orain dela urte batzuk, 2011an, zalantzan jarri zuten Einsteinen teoria. Genevatik gertu dagoen CERN ikerketa institutuko fisikariek aurka egin zioten Albert Einsteinen Erlatibitate Bereziaren Teoriari (1905), adieraziz *neutrino*<sup>3</sup> izeneko partikula subatomikoek argiak baino azkarrago bidaiatzen zutela. Azkenean, argitara atera zen esperimendua egitean akatsen bat izan zela; baina, arrakastatsua izan balitz, esperimenduak kolokan jarriko zukeen Einsteinen teoria.

Perspektiba-aniztasunari edo interpretazioari ezin ihes egin, Hans-Georg Gadamerrek *Wahrheit und Methode (Egia eta Metodoa)* (1960) obran dioenez, gizabanako bakoitzak bere garaiak ezarritako ikusmugak ditu errealitatea ulertzeko (Ortegak *perspektiba* deitzen zien). Hau da, garai eta kultura jakin bakoitzeko ezaugarriek xedatzen dute zer uler, pentsa edo sor dezakeen gizaki bakoitzak. Edozein gizakiren testua edo ekoizpena ikus-muga jakin baten barnean sortua da. Horrek esan nahi du testu edo errealitate bat ulertzean fusioa izaten dela gizabanako bakoitzaren eta testu edo errealitate horren ikus-mugen artean. Bestela esanda, ulertzea interpretatzea (hermeneutika) da. Horrek azalduko luke, esaterako, zergatik hartzen duen arrazoi ilustratuak askotan ikuspegi eurozentrikoa eta maskulinoa. Izan ere, gehienetan, Europako filosofia klasikoak ez ditu kontuan hartu beste kultura batzuen edo ohikoak ez diren generoen ahotsak eta ikuspegiak, eta horrek mugatu egin du haren printzipioen irismena eta aplikagarritasuna.

---

<sup>3</sup> Einsteinen Erlatibitate Bereziaren Teoriak unibertsoak nola funtzionatzen duen azaltzen du, eta esaten du ezerk ezin duela argiak baino azkarrago bidaiatu, eta hori egitea iraganera bidaiatzea bezala izango litzatekeela, hau da, ezinezkoa. Izan ere, Einsteinen teoriaren aburuz, etorkizunera bidaiatzea soilik litzateke posible.

**GEHIAGO SAKONTZEKO IRAKURRI FABULA HAU ETA ERANTZUN GALDEREI.**



Baziren behin sei itsu, beren buruak oso jakintsutzat zeuzkatenak. Beti aritzen ziren haien artean era guztietako gaiez eztabaidatzen. Egun batean, elefante bat heldu zen haien herrira, eta animalia nolakoa zen ezagutzera joan ziren.

Lehenengo itsuak elefantearen tronpa ukitu, eta esan zuen suge baten antzekoa zela. Bigarrenak, letagina ukitu, eta baieztatu zuen lantza baten modukoa zela. Hirugarrenak, berriz, elefantearen belarria ukitu, eta haizemaile baten itxura hartu zion. Laugarrenak, elefantearen hanka ukitu, eta aldarrikatu zuen zutabe baten antza zuela. Bosgarrenak, elefantearen sabela ukitu, eta horma baten itxura zuela. Azkenik, seigarrenak, buztana ukitu, eta esan zuen soka baten formakoa zela. Ondoren, elkarrekin eztabaidatzeari ekin zioten, bakoitzak pentsatuz besteak oker zeudela. Badirudi errege bat edo Buda (bertsio bat baino gehiago dago horretaz) pasatu zela handik, eta honela mintzatu zitzaizela: “Denok diozue egia, baina zuen egia hori errealtatearen ikuspuntu txiki bat baino ez da. Elefantea zuen ikuspuntu guztien batura da”.

Fabula horrek José Ortega y Gasseten *perspektibismoa* ilustratzen du. Hots, bakoitzak, gure garai, kultura, ingurumen eta ezaugarri individualen arabera (Ortegak *sinistek* deitzen die), errealtatearen perspektiba bat baino ez dugu. Horrek, alde batetik, egia absolutua ezagutzea eragozten du, inork ez baitu perspektiba absoluturik; eta, bestetik, sofisten erlatibismoa ere ukatzen du: egia existitzen da, baina perspektiba guztien batura da, alegia.

**Galderak:**

- 1.- Bizi izan duzu inoiz sei itsuen fabulakoaren antzeko egoerarik: denok eztabaidan aritu eta denok arrazoia izatearena?**
- 2.- Bat zatoz egia perspektiba guztien batura delako ideiarekin? Arrazoitu zure erantzuna.**
- 3.- Fabula honen arabera, bateragarriak dira aurkako perspektibak? Esaterako, EH Bilduren eta Voxen ikuspuntuak? Arrazoitu.**

Laburbilduz, arrazoimen ilustratua motor garrantzitsua izan zen ilustrazioan aurrera egiteko eta emantzipatzeko; baina mugak izan zituen, eta horiek aintzat hartu eta landu egin behar dira, mundua eta giza gaiak hobeto ulertzeko.



## 1.7. ILUSTRAZIOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Ilustrazioa XVIII. mendean Euskal Herriko elite soziala osatzen zuten familiek, handikiek, sortu zuten. Ez zen mugimendu espekulatibo soil bat izan, baizik eta neurri bateko erreforma ekonomikoak eta sozialak gauzatzeko saiakera bat. Aipatzekoa da ez zela izan euskal Ilustrazioan emakumezkoen ordezkariak.

Idea ilustratuak hiru bide nagusitatik iritsi ziren Euskal Herrira, hurrenez hurren, jauntxoek Frantzian eginiko ikasketak, liburu eta egunkariak eta solasaldi edo tertulia ilustratuak. Hain zuzen ere, kostaldeko hiri eta herrietan kokatu ziren Ilustrazioaren gune ugari, solasaldiak nahikoa maiz izaten baitziren haietan: Lekeition, Mutrikun, Bilbon edo Donostian. Paradoxikoki, fokurik dinamikoena Gipuzkoako barnealdeko herri batean kokatu zen: Azkoitian.

Solasaldi ilustratuak mota askotakoak ziren: tabernetako solasaldi herrikoietatik hasi eta etxe partikularretan eta udaletxeetan eginiko solasaldi elitistetaraino. Madariaga Orbea historialariak aztertu ditu, besteak beste, gizarte-harremanetarako gune horiek.

Handikiak etxe partikularretan eta udaletxeetan biltzen ziren. Batez ere, 1748tik aurrera zabaldu ziren topaketa horiek Euskal Herrian. Lekeition, Bergaran, Azkoitian, Amorebietan, Markinan eta beste hainbat herritan biltzen ziren ilustratuak, fisikaz, lur-neurgintzaz, historiaz edo geografiaz hitz egiteko, itzulpen zientifiko edo literarioak komentatzeko, musika entzuteko edo operetak antzezteko, baita irakurketa publikoak egiteko ere.

Ilustratu ospetsu batzuek –hala nola Samaniegok, Peñafloidak, Altunak, Narrosek– erregulartasunez eta modu egituratuan azaleratu zituzten ordura arte gizarte-eliteen kezka eta interes ezkutuak zirenak. Jauntxo horien kezkak askotarikoak ziren: egituren eta ekonomiaren gainekoak (burdinolak, ikatza, industriak, kontserbak...), literarioak, musikalak... Aipatzekoak dira, adibidez, Azkoitiako Peñafloidako kondeak, Bilboko Mazarredotarrek, Baltasar Manteli turuta-jotzaile, liburu-saltzaile eta inprimatzaileak eta Gasteizko Montehermosoko markesak antolatutako musika-gauak. Ez ziren noizbehinkako jarduerak, baizik eta nolabaiteko jarraitutasuna zutenak. Kontzertuetan, antolatzaileen familietako musikariek eta abeslariak ez ezik, haien lagunek eta soldatapeko profesionalak ere parte hartzen zuten (eskualdeko erakundeetako musikariek: kapera-maisuak, udaleko turuta-jotzaileak, organistak), baita batzuetan herri-musikariak ere: txistulariak eta dultzaineroak. Beraz, XVIII. mendeko solasaldi horiek ez dira hizketa-gune huts gisa ulertu behar, baizik eta entretenimendu-mota ugari –musika, dantzak eta jolasak– biltzen zituzten bilera edo ekitaldi gisa. Solasaldi elitista horiek indartsu iraun zuten XIX. mendeko bigarren hamarkadara arte.

Euskal Ilustrazioak ezaugarri berezi eta espezifikoak izan zituen:

- Moderantismo soziala. Landa-eremuko aristokrazia baten eraginez sortu zen. Aristokrazia horrek nekazaritza-interesak zituen, baina baita industria- eta merkataritza-interesak ere; gainera, aktiboki esku hartzen zuen gizartearen



antolaeran, eta tokian tokiko eta probintziako erakundeak kontrolatzen zituen. Ez zuen ordena soziala iraultzea nahi, garai berrietara egokitzea baizik.

- Ideia ilustratuek ez zuten sarbide handirik izan gainerako gizarte-egituran, hainbat faktoreren elkarreraginarengatik:
  1. Estamentu klerikalaren bidez bideratzen eta zabaltzen zen pentsamolde tradizionalaren pisu handiegia eta zapaltzailea.
  2. Analfabetismo-indize handia.
  3. Liburu-eskasia eta haien prezio altuak.
  4. Herri xumea "argiaren zapore gozotik" aldentzeko gutxiengo ilustratuaren grina elitista. Izan ere, handikiek ongi zekiten kultura ilustratua masaren artean zabaltzeak desjabetu egingo zukeela oligarkia botere-elementu batez: ezagutza.
- Pragmatismo utilitarista. Euskal ilustrazioak ez zuten teoria berri eta originalik ekarri, baina zehaztasun enpiriko eredugarri eta erabilgarrietan gauzatu zen.
- Tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka. Euskal Herrian erlijio-fenomenoa ez zen zalantzan jarri. Horri "katolizismo ilustratua" dei dakioke, José Luis Avellán filosofiaren historiagilearen arabera.
- Frantziako Ilustrazioaren ildo neurritsuaren eragina jaso zuen batez ere, eta ez horrenbeste ildo bortitz eta erradikalarena. Konkretuki, Rousseuren pentsamenduak eragin zuen batez ere, Euskal Herrian. Ondorioz, gizakiarenganako fedea eta nolabaiteko mistizismoa nabarmentzen dira Euskal Ilustrazioan. Bestalde, oso txikia izan zen Ilustrazio ingelesaren eragina, deismoa eta liberalismoa ezaugarri baitzituen.
- Fedea izatea heziketan, gizartearen eraldatzeko eta ongizatea eta zoriontasuna lortzeko formula ezin hobea den aldetik.
- Antolamendu-funtzionalismoa. Ideia ilustratuak gauzatzeko, erakundeak eta instituzioak sortu ziren; eta haien bitartez ahalegindu ziren ilustratuak printzipio teorikoak praktikara eramaten. Hauek dira euskal Ilustrazioaren zentzu pragmatiko eta antolatzailearekin lotura zuzena duten erakunde nagusiak: Caracasko Konpainia Gipuzkoarra, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta Bergarako Errege Mintegi Patriotikoa.

**Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra (CEKG).** CEGK konpainia komertzial bat izan zen, 1728an sortutakoa, Donostiako merkatarien eta Espainiako Koroaren arteko transakzio baten emaitza. Batetik, Espainiako koroa irrikaz zegoen euskal aduana-sisteman esku hartzeko, sistema horrek murriztu egiten baitzuen erregeak zergak biltzeko zeukan eskumena. Bestetik, Venezuelako eskualdean kontrabandoa amaitzeko premia zuen, erregearen altxorrek ez baitzuen modurik kontrabandoak eragindako aberastasunak kontrolatzeko. Donostiako merkatariek, aldiz, interes berezia zuten Hego Ameriketako espainiar koloniek euskal portuetatik zuzenean merkataritza-harremanak izateko. CEGKk esklabo afrikarrak ekartzen zituen, baina ez zen esklaboen trafikoa soilik espezializatu. Konpainiak merkataritzaren monopolioa zuen Venezuelarekin, eta kontrol osoa zuen kakaoaren, tabakoaren eta nekazaritzako beste produktu batzuen ekoizpenaren eta esportazioaren gainean. CEGKk Venezuelako funtzionario publikoak izendatzeko boterea ere bazuen, eta justizia-administrazioa ere kontrolatzen zuen.

Afrikar esklabo gehienak XVIII. mendean eraman zituzten Venezuelara, eta gehienak Mendebaldeko Afrikako Ginea eskualdekoak ziren, jatorriz. Kakaoa, tabakoa eta bestelakoak landatzeko erabiltzen zituzten, Venezuelan, Europarrek eramandako esklaboak. Esklabo afrikarrak jabetzat hartzen ziren, eta saldu eta erosi egiten ziren, beste edozein salgai bezala. Esklabotza 1854an abolitu zen Venezuelan, baina arraza-bereizkeriak eta desberdintasunek urte askoan iraun zuten.

Gipuzkoar konpainiaren operazioak 1730eko uztailaren 15ean hasi ziren, *San Joaquin*, *San Ignacio* eta *La Guipuzcoana* itsasontziekin; urrian, *Santa Rosa* ontzia gehitu zitzaion. Konpainiaren merkataritza jarduera nagusia Pasaiako portuan izaten zen. Jardueraren inguruan sortutako azpiegitura oso zabala zen eta jende askori ematen zion lana. Konpainia 30 ontzitik gorako flota bat izatera heldu zen; eta ontzirik handiena San Jose izenekoa zen, 778 tonakoa. Gipuzkoak eta, batez ere, Donostiak, urte oparoak izan zituzten Konpainiari esker: suspertu egin ziren bertako burdingintza eta armagintza<sup>4</sup>; Donostia merkataritza-leku garrantzitsua bihurtu zen; eta Pasaia, lehen mailako portua. Hauek dira CEKGren jardueraren emaitza aipagarrienak:

1. Ziurtatu zuten beren esku soil-soilik izango zela Venezuelako Probintziarekin egingo zen merkataritza, lehen beste talde batzuei mesede egiten baitzien, batez ere merkatarari ingeles eta holandarrei.
2. Ziurtatu zuten hainbat produktu –kakaoa, tabakoa eta anila, batez ere– Espainiara iristea, erregulatu eta handitu egin baitzituzten haien ontziratzeak. Hala, Penintsulan produktu horien prezioak jaistea eragin zuten. Aipatu beharra dago horri esker txokolategi ugari sortu zirela Euskal Herrian, batik bat Baionan, Mendaron, Oiartzunen, Larraunen, Irunberrin eta Lerinen.
3. Kontrabandoa geldiaraztea eta gutxitzea lortu zuten, merkataritza-jarduerak legez kanpo eta Koroaren kalterako egiten zituzten merkatarari atzerritarrak jazarritz.
4. Erabakigarria izan zen Venezuelako Probintziaren barne-politikan, euskal jatorriko gobernadoreek –hala nola Martin de Lardiazabalek edo Luis de Unzaga y Amezagak– zuzendu baitzuten Venezuelako probintzia eta Kapitaintza Nagusia –1777an sortua–.
5. Konpainia Gipuzkoarraren itsasontziek zabaldu zituzten Entziklopedismoaren eta Ilustrazioaren ideiak Venezuelan, Ramon de Basterrak *Los navíos de la Ilustración* (1925) lanean azaltzen duenez. Beraz, ez da kasualitatea Montesquieuren ideia errepublikanoak (botereen banaketa, zuzenbide-estatua, etab.) eta beste filosofo eta pentsalari europar batzuen pentsamoldeak Venezuelan hainbeste zabaldu izana. Caracasko familia lur-jabeetan, ezagutu eta eztabaidatu egiten ziren Europako ilustratuen ideiak (denbora luzez, Espainian, debekatuta egon ziren); eta haietan dago, hain zuzen ere, Latinoamerikako herrialdeen

---

<sup>4</sup> XVIII. mendean, armen fabrikazioak gorakada ekonomikoa eragin zuen Euskal Herrian, industria siderurgikoaren garapenari esker. Soraluzen, adibidez, eskopetak, arkebuzak eta mosketeak egiten ziren. Gainera, Eugi eta Urizaharra armagintzan nabarmendu ziren. Ezpata eta arma zuriei dagokienez, Bilbo, Tolosa eta Arrasate izan ziren fabrikazio-zentro garrantzitsuenak.

independentzia-idealen jatorria. Izan ere, jatorriz, Caracasen sortu ziren independentziaren aldeko lehen mugimenduak. Aitzindaritzan horri egiten dio aipamen Venezuelako Ereserki Nazionalaren "jarraitu Caracasek emandako ereduari" esaldiak.

6. Gipuzkoako Konpainiak Venezuelako lurraldeak esploratzea sustatu zuen eta aktiboki parte hartu zuen eginkizun horretan (adibidez, 1750ean Jose de Iturriaga eta Agirrek zuzendu zuen Orinoko ibaiaren arroko mugak ezartzeko espedizioa). Konpainiak herri indigenekin izandako gatazketan ere parte hartu zuen: Chichimecetakoa Gerran, esaterako.

**Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte (EHAE).** EHAE Azkoitian sortu zen, Xabier Maria de Munibe e Idiakez Peñafloidako kondeak antolatzen zituen solasaldietan. Solasaldi haietan, Europan zehar ibilitako jauntxoak elkartzen ziren; eta konturatu ziren, Europakoarekin alderatuta, Euskal Herriko panorama benetan iluna zela eta ilustrazio frantsesaren espiritutik urrun zegoela. Elkarte sortzeko ideia gauzatu zenean, haren bazkide edo lagunei *Azkoitiko zalduntxoak* ezizena jarri zien, burlaizez, Aita Isla jesuitak. Burla horren arrazoia ez da ezaguna; batzuentzat, modernizazioaren aurkako jarreraren zegoen sustraitua. Elkarteko partaideen artean, aipatu beharrekoak dira, besteak beste, Narros, Altuna, Foronda, Villahermosa, Olavide eta Samaniego, guztiak ere garai hartako erreformista garrantzitsuak, beren herria modernitatearen bidean bultzatzeko ideiarekin bat egin baitzuten.

EHAE sortzeko plana 1764an aurkeztu zen eta hurrengo urtean onartu zituen, ofizialki, haren estatutuak Carlos III.ak. Elkartearen helburua argi eta garbi zehaztuta zegoen 1. artikuluan: "Elkarte honen helburua da sustatzea Euskal Herriak Zientzietan, Letra Ederretan eta Arteetan duen joera eta zaletasuna, haren ohiturak zuzendu eta leuntzea, aisia, ezjakintasuna eta haien ondorio kaltegarriak baztertzea eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hiru Euskal Probintzien batasuna gehiago estutzea". "Izurak bat" leloa izan zen elkartearen identitate-ezaugarri nagusia, eta filosofia ilustratuaren esparruan kokatzen ziren haren helburuak.

Euskal gizartearen ongizatea eta zorientasuna lortzeko, EHAeko kideek beharrezkoa ikusten zuten berrikuntza ekonomikoa eta kulturala sustatzea, hau da, modernizazioa. Hori bai, aipaturiko modernizazioak ez zuen zalantzan jarri behar ezarritako boterea, erabateko eraldaketa iraultzaileak bultzatuz, ezta ere, jakina, gizarte-berdintasuneko printzipioen alde egin. EHAE oinarri sozial eta politiko tradizionaletatik abiatzen zen, eta hori ez da harrizkoa; izan ere, elkartearen sustatzaileak eta bazkideak oligarkiako jaunak ziren (lur-jabeak, maiorazkoak, merkatari handiak eta akziodunak) eta, gainera, kargo politikoak zituzten probintzia- edo herri-mailan.

Aita Islaren iseka gorabehera, EHAE XVIII. mendeko erakunde garrantzitsuenetako bat bihurtu zen Espainian; eta bertako kideek nabarmen lagundu zuten hainbat arlotan ezagutza garatzen, hala nola botanikan, geologian, historian eta literaturan.

EHAEn bazkide-kopurua izugarri handitu zen lehenengo urteetan. Fundatzaileak 24 izan ziren, baina haziz joan zen 1.788an 1.300 izatera iritsi arte. XIX. mendean, egonkortu egin zen bazkide-kopurua: 1.300etik 1.500era bitartean iraun zuen, mende osoan.

Elkartea geografikoki ere hedatu zen, eta ordezkari izan zuen gune hauetan: Bilbo, Bergara, Donostia, Gasteiz, Azkoitia, Tolosa eta Iruñea, Euskal Herrian; Cadiz, Sevilla eta Madril, Espainian; eta, azkenik, Paris, Filipinak, Habana eta Mexiko (La Puebla de los Angeles). Hala ere, batez ere, Gasteiz, Azkoitia eta Bilbokoak izan ziren EHEAri lotutako zentro nagusiak eta solasaldiak antolatzen zituzten guneak.

Elkartearen finantzaketa-iturriak hauek ziren: bazkideen ekarpen ekonomikoak eta ordaindu gabeko edo borondatezko lana, partikularren dirulaguntza eta urteko 4.164 errealeko errenta (1770eko martxoko Errege Aginduan ezarria). Ez zen gauzatu 1763ko hasierako planean proposatutako loteria baten bidezko finantzaketa-sistema.

Egoitza nagusia Azkoitian ezarri zen; eta, geroago, "Gorteko ordezkari" sortu zen, Madrilan, agintari zentralekin etengabeko harremana izateko.

EHAk bi artezkari organo zituen: Zuzendaritza eta Idazkaritza Nagusia. Haiek kontrolatzen zuten liburutegia: nabarmentzekoa zen haren funtsen kopurua. Elkarteko kideak lau batzordetan biltzen ziren: Nekazaritza eta Landa Ekonomia, Zientzia eta Arte erabilgarriak, Industria eta Merkataritza jarduerak eta, azkenik, Historia eta Letra Onak.

Landa-ekonomiari eta nekazaritzari dagokienez, EHAk arreta berezia jarri zuen ekoizpen-sektoreen arrazionalizazioan, dibertsifikazioan eta garapenean. Horretarako, hainbat proiektu, esperimentu eta berrikuntza landu zituen:

- 1) Nekazaritza-teknikak eta -ekoizpena merkaturatzeko formulak hobetzea.
- 2) Landutako nekazaritza-azalera lehengoratzeko, fruta-arbolen, larreen eta basoen arteko oreka berreskuratzeko. Oreka hori zereal-ekoizpenerako landutako azalera handitzeko egindako luberritzeek hautsia zuten, abeltzaintzaren eta ikatz-ekoizpenaren kaltetan.
- 3) Esperimentazioa sustatzea hainbat alorretan: ongarritze-teknika berriak (karea), haziak, nekazaritzako makineria (artoa ereiteko makinak) eta abar. Laborantza-teknika eta -metodoak ere berriztu egin zituzten, horretarako apropos sortutako etxalde batean: Basauriko San Migel baserria.
- 4) Masustondoak landatzea, zetazko harra haztea sustatzeko; ardi-azienda hobetzeko, hazitarako harrak inportatzea, etab.

Aipaturiko ekintzak, tamalez, ez ziren nahikoa izan Euskal Herriaren ekonomia modernizatzeko.

Industrian, EHAk indartu egin zuen bertoko manufakturen produkzioa, bai zeudenak modernizatuz, bai berriak sortuz, helburu bikoitzarekin: inportazioak murriztea eta merkataritza-balantza orekatzea. Nabarmentzekoa da ahalegin handia egin zutela burdinazko, aitzogintzako, marmolezko, buztinezko, harlanduzko, lihozko, ehunezko, papergintzatik eta arrantzatik eratorritako produktuen manufakturak indartzen. Arrantzaren kasuan, legatza eta sardina ekoizten zituen enpresa batean parte hartu zuen Elkartek; eta, 1775ean, arrantza-konpainia propioa sortu zuen.

Azkoitiko Zalduntxoek elkarrekin bereziki zaindu zuten siderurgia-sektorea. Izan ere, kostaldeko probintzien ekonomian funtsezko sektorea zen, eta fundatzaile eta bazkide garrantzitsu askok interesak zituzten sektore estrategiko horretan. Ondorioz, berrikuntza teknologikoak sustatu zituen, minerala erauzteko sisteman zein burdina eta altzairua lortzeko prozesu teknikoetan ere.

Baina EHAeko kide asko ohartu ziren modernizazioa bultzatzeko ahaleginak alferrikakoak zirela, alde aurretik ezinbestekoa zen oinarriak, hots, hezkuntzak, huts eginez gero. Dokumentazio ugari erakusten du zenbateko kezka zegoen EHAen hezkuntzarekiko: Arriquiraren 1764ko proposamena, Eskola Patriotiko baten proiektua (1775ean), emakumea alfabetatzeko eta emakumeen hezkuntza-erakunde bat sortzeko proiektua (1777an)...

Ondorioz, kezka horri erantzuteko, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta beste herri batzuetan lehen letretako eskolak sortu zituen EHAek, gaztelania, kaligrafia eta matematika praktikoki irakasten zituztenak, baita Bergarako Errege Mintegia ere (*Real Seminario Patriótico Bascongado de Bergara*).

**BERGARAKO ERREGE MINTEGIA (BEM).** Bergarako Mintegia Euskal Herriko ilustrazioaren erakunde ospetsuena izan zen eta EHAren proiektu erreformistaren oinarria.

Mintegia 1775an sortu zen Peñafloidako kondeak egindako *Proyecto de una Escuela Patriótica* delako lanaren irizpideei jarraituz. Pedagogia antiaristoteliko eta utilitarista baten printzipioei erantzuten zien, zehazki: ohiko ahozko irakaskuntzaren ordez, izaera esperimentalekoa bultzatu zuen eta, diziplina klasikoez, humanistikoek eta erretorikoez gain, onura publikoko beste gai batzuen lanketa. Peñafloida kondeak ikastetxe horri orientazio profesionala emateko asmoa izan zuen, Jauntxoek Seminario elitistek ez zutena.

#### **Gehiago sakontzeko: IRAKURRI TESTUA ETA EZTABAIDATU**

Nobleen mintegia (*Seminario de Nobles*) Espainian zegoen goi-mailako hezkuntza-erakunde zaharra da; nobleen semeak unibertsitate aurreko mailatan hezteko helburua.

Hainbat ikastetxe zituen, eta jesuiten ardurapean egon zen lehen urteetan. XVIII. mendearen hasieran, baziren jada Bartzelonan eta Valentzian; Madrilgoa 1725ean sortu zen, Ikastetxe Inperialera joaten ziren nobleak erakartzeko asmo elitistarekin. Jesuitak kanporatu zituztenean, 1767an, erakunde horietako 112 zeuden penintsulan, eta 120 Ameriketako lurraldeetan.

1785ean, Gaztelako Kontseiluko fiskalak, Campomanesek, proposatu zuen nobleen mintegiak Espainia osora zabaltzea, jesuitak kanporatu izanak sortutako hezkuntza-hutsunea betetzeko. Bergarako Seminarioan ezarritako ikasketa-planen antzekoak egiteko asmoa zutenez, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoei egin zieten galdeketa. 1788an egin zen mintegi horietan guztietan aplikatzeko zen ikasketa-plana; eta, bertan, geometria, aritmetika eta fisika esperimentala ezarri ziren ikasgai gisa, nahiz eta oro har zientziak paper handia ez bete. Aipatu beharreko beste nobedade bat izan

zen burgesiaren kimuei sarbidea ematea, Bergaran bezala. Baina, azkenean, proiektua gauzatzeko unean, aurkitu zuten Jesusen Lagundiaren ikastetxe zaharren eraikinak beste zeregin batzuetarako erabiltzen hasiak zirela; eta ikastetxe berriak egiteko funtsak nondik eskuratu ez zegoenez, bertan behera geratu zen asmoa.

---

Gaur egun, EAEn, 1993ko Hezkuntza Legea onartu zenetik, hiru zentro-mota ditugu hezkuntza-sisteman: pribatuak, itunpekoak edo hitzartuak eta publikoak.

Pribatuak (*Amerikar Eskola, Eskola Ingelesa, Eskola Frantsesa, Alemaniar Eskola...*) gurasoek finantzatzen dituzte, oso-osorik: 1.000 euro inguruko kuotak ordaintzen dituzte, hilabeteko, seme-alaba bakoitzeko. Instalazio bikainak izan ohi dituzte (kiroldegiak, laborategiak, eskolaz kanpoko jardueren eskaintza ugaria...), eta maila jaso lantzen dute atzerriko hizkuntzetan. Euskara-maila eskasa edo hutsaren hurrengoa izaten da. Ikasleak elite sozioekonomikoaren kimuak dira; eta, zentro horietan, elkar ezagutu eta harremanak estutzen dituzte.

Itunpeko zentroei dagokionez, bi multzo nagusi bereiz daitezke: erlijiosoak (katolikoak), batetik, (Urdaneta, Askartza-Claret, Munabe, Gaztelueta, Ayalde, Irlandarrak, Jesuitak...); eta ikastolak, bestetik, (Francoren diktadurapean sortuak euskararen eta euskal kulturaren alde egiteko). Itunpeko zentroyen formula 1992ko hezkuntza-legearen bidez ezarri zen, Fernando Buesa Blanco Hezkuntza sailburu zela. Zergatik? Garaiko Hezkuntza Publikoak ez zuelako nahikoa plaza orduko ume guztientzat (jaiotza-tasa altua zen orduan). Hori zela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabaki zuen zentro horiek partzialki finantzatzea, zentro publikoen falta nolabait konpentsatzeko. Gurasoek 250etik 360 eurora bitartean ordaintzen dituzte, hilabeteko, seme-alaba bakoitzeko. Zentro erlijiosoen kasuan, erlijiotasuna da ezaugarri nagusia; eta, gaur egun, atzerriko hizkuntzetan ere maila jaso bermatzen ahalegintzen dira. Euskara ez da ondo lantzen, eta oso baxua izan ohi da zentro horietako ikasleen euskara-maila, B ereduak baitira gehienak. Ikastoletan, berriz, zaindu egiten da euskara eta euskal kulturaren ezagutza, eta maila altua eskaintzen da atzerriko hizkuntzetan ere. Bai zentro erlijiosoek, bai ikastolek, primerako azpiegiturak izan ohi dituzte: igerilekuak, futbol-zelaiak, instalazioak...

Bai zentro pribatuetan, bai itunpekoetan, baxua (edo, pribatuen kasuan, ezereza) da etorkin pobreen kopurua, familia horiek ezin baitute gainditu zentro horiek ezartzen duten bahetze ekonomikoa.

Azkenik, zentro publikoak daude. Zentro horiek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak finantzatzen ditu; eta gurasoek autobusa eta jantoki-kuota baino ez dituzte ordaindu behar: 50 euro inguru, ikasleko (familiek diru hori ezin badute ordaindu, laguntza jasotzen dute, beken bidez). Gaur egun, instalazio txarrenak dauzkate (ez dute igerilekurik, ezta lehen mailako futbol zelairik ere; laborategiak ere ez dira beste zentro-motetako laborategien mailakoak). Ikastolen moduan, euskararen alde egiten dute; baina, etorkin pobre gehienak zentro horietan pilotzen direnez (asko euskararen ezagutzarik gabe), zailtasun handia izaten dute ikasleek euskara-maila jaso lortzeko. Bestalde, maiz, bazterketa sozialarekin loturiko giro gatazkatsuagoa izaten dute ikasleen artean.

**Galderak:**

- 1.- Ikusten duzu antzekotasunik gaur egungo zentro pribatuen eta itunpekoen eta Nobleen Mintegien artean?
- 2.- Zentro pribatuen eta itunpekoen heziketa-maila hobea dela deritzozu?
- 3.- Zuzena deritzozu gaur egungo hezkuntza-sisteman elite ekonomikoek eta sozialek pribilegioak izateari (esaterako, itunpeko zentroek finantzaketa publikoa jasotzea)?
- 4.- Gaur egun, EAEko jaiotza-tasa Europako baxuena da. Itunpeko zentroetan, plazak ez dira betetzen. Zure ustez, badu zentzurik itunpeko zentroak izaten jarraitzea? Ez litzateke hobe izango zentro guztiak publikoak edo pribatuak izatea?

Bergarako Mintegian bi ikasketa-mota ezarri ziren: alde batetik, irakaskuntza bereziak (goi-mailako Fisika, Kimika, Metalurgia, Mineralogia, itsasgizonentzako Matematika, Aljebra eta Topografia); eta, bestetik, irakaskuntza orokorrak (Erljioa, Hizkuntzak, Matematika, Humanitateak, Fisika Esperimentala, Marrazketa eta Trebetasunak – dantza eta musika–).

Hizkuntzen arloan, aipatu beharra dago BEMaren estatutuen 9. artikulua. Artikulu horrek ezartzen zuen hizkuntza nazionalak, hots, euskara eta gaztelania, ikasi behar zirela eta, ondoren, latina –beharrezkoa baitzen apaiz ikasketak egin nahi zituztenentzat–, frantsesa eta ingelesa. BEMaren ibilbide akademikoak, halaber, bi irakasgai berri jasotzen zituen: Historia eta Geografia Nazionala, hau da, Euskal Herriko Historia eta Geografia.

Besteak beste, hauek izan ziren Mintegiko irakasleak: Antonio San Martín, Ondarroako onuraduna, Maisu Nagusia; Joaquín de Lezama, Estarronako apaiza; Juan Lorenzo de Benitua Iriarte, Humanitateetakoa; Joaquín Cándido de Arrastoa, Latinekoa; José Ventura de Zubiaurre, Lehen Letretakoa; Francisco Duboix, Trebetasunetakoa (Musika eta Dantza); Gerónimo Mas, Matematikakoa; Pierre François Chabaneau, Fisikakoa; Luis Joseph Proust, Kimikakoa; Fausto de Elhuyar, Fisika eta Kimikakoa; Anders N. Thunborg, Metalaren Zientzietakoa; Antonio María de Munibe; Joaquín María de Eguía y Aguirre (Narroseko markesa).

Ikasturtea urriaren 1ean hasi eta uztailaren 31n bukatzen zen. Honako hau zen eskola-emankizunen ordutegia:

ORDUA	IKASGAIK
9:00-11:00	Humanitateak (erretorika eta poetika, gaztelaniaz eta latinez) eta filosofia morala
ATSEDENA	Musika eta dantza
14:00-16:00	Logika eta matematika
ATSEDENA	Musika eta dantza
17:00-19:00	Marrazketa

Azterketak publikoak ziren. Eskola-emankizun guztiak ere publikoak ziren, musika- eta dantza-eskolak izan ezik; eta, hala, ateak zabalik zeuden, irakaskuntza haietaz baliatu nahi zuten pertsona *prestu* guztiek haiek entzuteko aukera izan zezaten.

Mintegia 1779an jarri zen abian, 54 ikaslerekin. Egokitzapeneko lehen urte batzuen ondoren, 1783tik 1793ra bitarteko hamarkadan iritsi zen garai gorenera. Aldi horretan, mila ikasletik gora izan ziren han ikasteko aukera izan zutenak (1787an izan zuen ikaskopuru handiena: 132); eta berritu egin ziren ikasketa-planak, hobetu egin ziren laborategiko ekipamenduak eta ikerketa eta aurkikuntza zientifiko garrantzitsuak egin ziren.

1793tik aurrera, gainbehera egin zuen Mintegiak, hainbat faktoreren eraginez: Madrilgo Gorteak gero eta oztopo gehiago jartzen zituen; ikasleak eta irakasleak ez ziren egokitu; eta zailtasun ekonomiko larriak izan ziren, batez ere finantzaketa egonkorrik ez zelako (porrot egin zuen Euskal Bankua sortzeko saiakerak). Horrez gain, 1794an, Konbentzioaren gerran, eten egin behar izan zuten jarduera akademikoa, Frantziako tropek Mintegiaren aretoetan eragindako suntsiketengatik. Gertaera haien ondoren, berrabiarazi egin ziren eskolak; baina Mintegiaren garai distiratsuak joanak ziren ordurako. 1804an, Estatu Ministerioaren mende geratu zen instituzioa, behin betiko.

BEMaren ideario pedagogikoak hiru ezaugarri zituen:

1.- Zientzia positiboari lehen mailako protagonismoa ematea. EHAek ez zuen ahaztu prestakuntza humanistiko klasikoa (arte, historia, literatura, latina, erretorika...), baina, harekin batera, zientzia positiboak (matematika, fisika, mineralogia, metalurgia, kimika...) sartu zituen ikasketa-planetan, Euskal Herrian berehala aplikatzeko helburuarekin.

2.- Berebiziko garrantzia ematea analisi enpirikoari eta ikerketari, prestakuntza teorikoari uko egin gabe. Mintegiko irakasleek bateratu egin behar zituzten irakaskuntza eta ikerketa; eta ikasleek, teoria eta praktika. Metodologia hori praktikara eramateko, beharrezkoak ziren ekipamenduak eta baliabide teknikoak. Mintegiak, liburutegi bikaina eta baratze esperimentalak ez ezik, Fisikako kabinete bat eta Laborategi kimiko (*Laboratorium Chemicum*) bat ere izan zituen, teknologia aurreratuekin. Laborategia Zabalako dorretxean ezarri zen, eta irakasle batzuek ere han izan zuten egoitza. Laborategi hori bere garaiko goi-mailako lehen establezimenduen artean egon zen, han egindako ikasketek eta praktikek izan zuten garrantziarengatik. Laborategi hartan, Elhuyarreko Juan Joseph eta Fausto anaiek, wolframita aztertzen ari zirela, wolframa isolatu zuten, ordura arte elementu kimiko ezezaguna. Horrek aintza eta ospe hilezina eman zien Mintegiari eta bi anaiei. Laborategian, beste hainbat ikerketa eta langintza jorratu ziren: Chabaneau frantsesak platinoa xaflagarri bihurtzeko metodo praktikoa aurkitu zuen, Peruko platina erabiliz; ur mineralen analisia; burdinazko eta latorrizko xaflen ekoizpena; Somorrostroko meategien azterketa; herrialdeko mineralen bilduma. Ikusten denez, *Laboratorium Chemicum* zeritzonak ez zuen atsedunik hartu.



3.- Garrantzi handia eman zioten beste zientzialari, ikertzaile eta irakasle europar batzuekin esperientziak trukatzeari. Esan daiteke Mintegiak arlo horretan gauzatu zituen praktikak –zehazki, EHAeko kide seinalatuek Europara egindako bidaiak eta irakasle atzerritarrak kontratatzea– egungo Erasmus programen aurrekari izan zirela. Atzerritik ekarritako irakasleen artean, aipatzekoak dira Chabaneau fisikaria, Proust kimikaria eta Thunborg suediarra, metalurgia eta mineralogiako katedraduna.

Mintegiak ekarpen gogoangarriak egin zituen hainbat arlotan: besteak beste, medikuntzan (ur sendagarrien erabilera, txertaketa antibariolikoa hedatzea); higienean (batez ere, etxebizitzaren eraikuntzan); osasun publikoan, gizarte-ongintzan (Gasteizko Erruki-etxearen fundazioa); arteetan, literaturan, musikan, botanikan, argitalpenetan, etab.

Hala eta guztiz ere, ez zuten lortu euskal gizartearen modernizazio ekonomiko eta kulturala gauzatea. Elitismoa, mami gutxiko erreformismoa, anbiguotasuna eta proiektuaren profilen definizio falta dira haien proposamenek gizarte-sarean izan zuten porrotaren eta eragin ahularen arrazoiak.

Nafarroan ere, XVIII. mendea garrantzi historiko eta kultural handiko garaia izan zen. Mende horretan, eskualdean aldaketa handiak izan ziren, egitura politikoan eta sozialean. 1512an, Gaztelak anexionatu eta Espainiako probintzia bihurtu zen Nafarroa; baina, hala ere, mantendu egin zuen bere sistema politiko eta judizial propioa, harik eta 1841eko Lege Itunduak indargabetu zuen arte.

XVIII. mendean, Nafarroak gorakada kultural handia izan zuen. Artista eta idazle garrantzitsuak sortu ziren eskualdean, tartean Francisco Martínez de Mata, Juan Antonio Fernández de Heredia eta José Joaquín de Lerga. 2005ean, *La influencia de los navarros en la España del siglo XVIII* erakusketa egin zen, Nafarroako museoan, nafarrek garai hartan Espainiako monarkian izan zuten garrantzia azpimarratzeko.

Nafarroako ilustrazioak eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetakoak ezaugarri komunak dituzte: elitismoa, pragmatismoa, krisohedonismoa (metal preziatuekiko maitasuna), negozioekiko obsesioa eta joera erreformista.

Hala ere, baditu berezitasunak eta, batez ere, ezberdintasun argi bat: bi talde handitan banatzea.

a) Baztandar deserrotuak. Negozio-gizonen talde handi bat izan zen –baztandarrak gehienak–, euskal lurraldetik alde egin eta jarduera ekonomikoak Gortean egin zituena. Koroaren zerbitzura jarri zuten beren burua, eta goi-zuzendaritzako karguak bete zituzten, hainbat irabazi-eremutan (merkataritza, industriak, finantzak, armadarako hornidurak...); eta armadan eta administrazio zentralaren, lurralde-administrazioaren eta administrazio kolonialaren hainbat adarretan ere aritu ziren. Haien artean, nabarmentzekoak dira Juan de Goyenenche Gastón (Benito Jerónimo Feijooen babeslea), Jose Luis Munárriz e Iraizoz eta Jerónimo de Uztáriz y Hermiaga. Julio Caro Barojak, *La hora navarra del siglo XVIII* lanean hau dio: "Nafarroaren orduaren garrantzia Espainian ez zen izan beste eskualde eta pertsonaia batzuen bano handiagoa". [...] "Nafarroak Ondorengotza Gerraren onura jaso zuen, egoera hartan hornidura-zentro

garrantzitsua izan baitzen armadarentzat; eta tratulari nafarrek jakin zuten aukera hori baliatzen eta nagusitasuna lortu zuten gortean, denbora gutxian".

Nafarroa utzi eta Madrilera joatearen deserrotze-fenomeno hori ulertzeko, ez dugu ahaztu behar, aipatu bezala, Gaztelak inbaditu, konkistatu eta bereganatu egin zuela Nafarroa, XVI. mendearen hasieran. Hortik zetorren XVIII. mendeko Nafarroaren kolonia izaera. Jakina da, bestalde, kolonizatutako lurralde orotan, eliteek prozesu bikoitz tipikoa jasaten dutela: alde batetik, metropoliaren kulturarekiko mirespena eta norbere kulturarenganako nolabaiteko mespretxua sentitzen dute; eta bestetik, inperioaren erdiguneko botere-egitura erakargarrietara joateko nahia izaten dute, egoera ekonomiko eta soziala hobetzeko. Prozesu horri "kolonizatuaren konplexua" deitu diote hainbat egilek.

b) Tuterako inkardinatuak. Talde hau Tuteran biltzen zen, nagusiki. Hasiera batean Nafarroako erresumari lotuago zegoen, interes ekonomiko nabarmenak baitzituzten nekazaritzan eta abeltzaintzan. Denbora pasa ahala, taldeko kide ospetsuenetako batzuk ere Madrilera abiatu ziren –"kolonizatuaren konplexuak" eramanda, agian– Erreinuko administrazioan, armadan edo negozioetan parte hartzeko. Haien artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, San Adriango markesak, Francisco Magallón buru, Felipe González de Castejón y Tobar, Montesako markesa, Manuel Cruzat y Díez de Ulzurrun, Errege Errenten administratzailea, Joaquín Conchillos, Errege Auzitegien abokatua eta Kanal Inperialeko Nafarroako epaile ordezkariordea.

Tuterar haien sorkuntza garrantzitsuena *Ongizate Publikoaren Zaleen Tuterako Errege Elkarte* (*Real Sociedad Tudelana de los Deseosos del Bien Público*) izan zen (1778). Elkarte horretako kideek, Azkoitiako zaldunen antzera, solasaldiak egiten zituzten, baita helburu pedagogikoa zuten antzezlanak ere. Izan ere, San Adriango markesek harremana zuten Xabier Maria Munibe eta Idiakenez Peñafloidako kondearekin. Elkartearen aurrekari aipagarriena *Conversación* tertulia izan zen, nobleak, funtzionarioak eta elizgizon batzuk partaide zituena.

Elkartearen lorpenen artean, hauek aipa daitezke: Tuterako artileen aprobetxamendua, herrialdeko lehengaien industria sustatzea, bazkideen liburutegi partikularretako liburuen zerrenda (behar izanez gero kontsultatzeko), oihal-ehunei buruzko txostena, Nafarroako artile-fabrikei buruzko txostena –haien gainbeheraren arrazoiak jasotzen dituen– eta herrialdearen aldeko beste ekimen batzuk. Kultura ez ezik, herri-lanak ere sustatu zituzten, hala nola Alfaroko bidea, Miserikordiaren Errege Etxea eraikitzea (1781) eta Ebro desbideratzea (1886an, Tuterako eremuetarako obra garrantzitsua).

Azkenik, elkarteak gainbehera egin zuen arrazoi hauengatik: talde-giroak behera egin zuten, Nafarroako erakundeak aurka izan zituzten eta erreformek porrot egin zuten.

#### **GEHIAGO JAKIN ETA SAKONTZEKO:**

#### **EUSKAL HERRIKO FORUAK ILUSTRAZIO GARAIAN**

Euskal Herriko lurraldeek (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriak) foruek babestutako egitura politiko-instituzional-administratibo propioa zuten. Erdi Arotik Euskal Herrian nagusi ziren ohitura eta usadioak dira Foruak. Euskal Herriaren kasuan, antzinako ohitura eta usadio horiek XV. mendetik XVI.era bitartean idatziz

erregistratu ziren eta lege bihurtu ziren. Euskal lurralde bakoitzean, era batean garatu ziren; baina euskal foruak deitzen zaie denei, orokorrean, haien artean antzekotasun nabarmenak baitaude.



*Fernando Katolikoa Bizkaiko Foruen zina egiten, 1476an (Vázquez de Mendieta, 1607, Gernikako Batzar-Etxean)*

*Euskal foruen berezitasunak*

### **1. Antolaketa politikoa: autogobernua**

Euskal herrialde bakoitzak berezko erakundeak zituen. Erakunde horiek legeak egin eta betearazteko zeregina edo konpetentzia zuten arlo hauetan: herri-lanak, hezkuntza, osasuna, administrazio publikoa, ordena publikoa, aurrekontuak, defentsa...

### **2. Zerga-sistema: berezia eta pribilegiatua**

Bizkaitarrek, arabarrek eta gipuzkoarrek bakoitzak bere lurraldeko foru-gobernuei ordaintzen zizkieten foru-zergak, probintzia bakoitzeko berezko baliabideen bitartez foru-sistemak sortzen zituen gastuei aurre egiteko (aurreko puntuan aipaturiko herri-lanak, hezkuntza...). Hortaz, euskaldunak ez zeuden behartuta Koroari zergak ordaintzera. Dena dela, Gaztelako Erreinuak ogasun-arazoa zuenean, euskal lurraldeek borondatez ordaintzen zituzten zergak. Sistema hori tarteko, zeharkako zergek pisu handi samarra zuten euskal lurraldeetan.

### **3. Zerbitzu militarra: ez derrigorrezkoa**

Euskal gizonak ez zuten zertan joan gerrara erregeak deitzen zituenean. Joatekotan, soldata bat jasotzen zuten. Euskal gizonak beren probintzia soilik defendatzera zeuden derrigortuta.

### **4. Pase forala edo foru-baimena**

Erregeak egindako legeak onartzeari edo ukatzeari *pase forala* esaten zitzaion. Hau da, pase horren bitartez, onartu egiten ziren erregearen legeak, foruekin bat baldin bazetozen; baina, bat etortzen ez baziren, ez ziren onartzen. Sindikoa eta Aholkulariak ziren Erregearen legeak foruarekin bat zetozen edo ez aztertzen zutenak. Haiek

jakinarazten zioten Aldundiko buruari legea foruekin bateragarria zen ala ez. Legea onargarria bazen: "bat dator eta bete daiteke" esaten zioten eta, bat etortzen ez bazen: "ez dator bat, beraz, esana onartzen da, baina ez da betetzen" ("se obedezca y no se cumpla"). Beraz, foruak babesteko tresna bat zen foru-baimena.

### **5. Aduanak: barnealdean**

Bi motatako aduanak bereiz ditzakegu, Hego Euskal Herrian: batetik "aduana nagusi" izenekoak; eta, bestetik, aduana txikiak.

Lehenak, nagusiak, Hego Euskal Herriak kanpoko erreinuekin zituen mugetan zeuden ezarrita: Nafarroaren eta Aragoiren artekoak batetik, eta Euskal Herriaren eta Gaztelaren artekoak bestetik (Ebro ibaiaren barrena, Tuteratik Balmasedaraino). Euskal Herriko aduanak, kostaldean edo mugetan egon beharrean, barnealdean zeuden: konkretuki, Ebro ibaiaren inguruan. Hauek ziren garrantzitsuenak: Salbaterra, Ezka, Zangoza, Tuter, Viana, Gasteiz, Urduña eta Balmaseda.

Bigarrenik, aduana txikiak zeuden: Nafarroak Araba eta Gipuzkoarekin zituen mugetan kokatuak. Hauek ziren aipagarrienak: Tolosa, Ordizia, Ataun eta Segura, Gipuzkoan; Etxarri-Aranatz, Lekunberri eta Lizarra Nafarroan; Agurain, Bernedo eta Santikurutze Kanpezu, Araban.

Aduana-sistema horri esker, Euskal Herria merkataritza libreko eremua zen, praktikan: inportazioei dagokienez, Europako produktuek sarbide erraza zuten eta, halaber, euskal produktuak (burdina, artilea...) Europara esportatzeko erraztasuna zegoen. Baina, aldi berean, euskal produktuek oztupoak aurkitzen zituzten Penintsulako merkatuetara igartzeko. Esan beharra dago aduana-zergarik ordaindu behar ez zutenek, euskal kontsumitzaileek merke erosten zituztela atzerriko produktuak (jangaia, tabakoa, kakao...), eta usadio hori onuragarria zela haientzat. Erregearentzat, ordea, ez zen batere onuragarria. Gainera, barne-aduanak izateak kontrabandoa bultzatu zuen euskaldunen artean.

XVIII. mendean eztabaida handia sortu zen Foruak eta Foru-Erregimena zirela eta. Bi puntu eztabaidatu ziren, nagusiki: batetik, foruen jatorria; eta, bestetik, pase forala edo foru-baimena.

Foruen jatorri primitiboa defendatzen zutenek, hala nola Aita Larramendik, baieztatzen zuten Euskal Foruak Euskal Herrian antzinateatik existitzen zirela, Espainian erregeak existitu baino lehenagotik. Foruen kontra zeudenek, berriz, defendatzen zuten foruak erregeak lurraldeei emaniko pribilegioak zirela eta, hortaz, balio gabe utzi zitezkeela eta beti egon behar zutela Erreinuaren interesen mende. Euskal Herriko lurraldeetako aldundiek, orduan, erantzuten zuten foruak ezin zirela ukitu. Izan ere, haien arabera, euskal lurraldeak burujabeak ziren, hasieran, eta itun baten bidez adostu zuten Espainiar Koroari lotzea. Haien arabera, erregeak itun hori apurtuz gero euskal herritarrek ez zioten zertan obeditu, horrek subiranotasuna euskal lurraldeetara berehala itzultzea ekarriko lukeelako.

Koroak eta Euskal Herriko lurraldeek mantendu egin zuten ituna, harik eta XVIII. mendean Borboiek politika interbentzionista eta aldebakarreko bati hasiera eman zioten arte.

Gertaera hauek dira foruen eta Borboien koroaren arteko gatazkaren erakusgarriak: foruen zina, 1702an, Felipe V.aren eskutik (ohar murriztaile bat ezarri zuen amaieran, geroago ezabatu zena<sup>5</sup>); foru-pasea indargabetzea, 1716an; aduanak lekualdatzeko legea, 1717an; edo Konbentzioaren Gerrako erasoaldia. Nafarroan ere, antzeko jokabideak izan ziren.

Ipar Euskal Herriko lurraldeek osorik galdu zituzten foruak Frantziako Iraultzaren eraginez (1789), aldi batean pixkanaka-pixkanaka inausketak jasan eta gero. Izan ere, errepresio gogorra jasan zuten. Ilustratu frantsesek "askatasuna, berdintasuna, anaitasuna" leloa lau haizeetara aldarrikatu zuten eta Herritarraren Eskubide Indibidualen Adierazpenaren egileak ere izan ziren; baina urratu egin zituzten, sistematikoki, Iparraldeko euskaldunen eskubide kolektiboak. Horretarako, "garbiketa etnikoa" ere erabili zuten, deportazio masiboak eginez; eta hildako asko utzi zituzten hainbat herritan, hala nola Saran, Azkainen edo Kanbon.

---

<sup>5</sup> Zin egitean, Felipe V.ak Foruak berresteko erabiltzen ziren ohiko klausulez gain, beste formula hau erantsi zuen: «errege eta jaun natural gisa, denborari dagokionez goragorik ez aitortuz». Formula hori erabiliz haren «errege botere absolutua» aldarrikatzen zuen. Hala, foruak, pribilegioak eta frankiziak soilik berretsi zituen, Jaurerriko prokuradoreek eskatutako erabilera eta ohitura onak alde batera utzita. Behin Cadizko Konstituzioak Antzinako Errejimena suntsituta, Fernando VII.ak, 1814an, berriz ere berretsi egin zituen erabilera eta ohitura onak, foru, pribilegio eta frankiziekin batera.

## 2. OLYMPE DE GOUGES

### 2.1. OLYMPE DE GOUGES: BIZITZA ETA OBRA

#### 2.1.1. NOLA BILAKATU ZEN MARIE GOUZE OLYMPE DE GOUGES

Olympe de Gougesen benetako izena Marie Gouze zen. Montauban herrian jaio zen, 1748ko maiatzaren 7an, burgesia txikiko familia batean. Haren ama izargarbitzaile (*drapier*) baten eta abokatu aberats baten alaba zen; eta aita “ofiziala”, harakina. Hala ere, badirudi Marie Gouzen benetako aita, ala aita “naturala”, Jean-Jacques Lefranc de Pompignan izan zela, Montaubaneko nobleziako figura bat: akademikoa, poeta eta Voltaireren etsai amorratua.



Olympe de Gougesen erretratua.  
Alexander Kucharsky (1741–1819).

Marie Gouzek izan zuen heziketa ez zen izan aproposa gerora izan zuen bizitzarako: *langue occitane* edo, Mariek berak zioen moduan, “frantses txarra” hitz egiten zen herrixka batean hazia, azaleko heziketa jaso zuen, soilik. Hamazazpi urterekin, Louis-Yves Aubry sukaldariarekin ezkonarazi zuten, gogoz kontra, ez baitzuen gustuko. Ezkondu eta gutxira, hil egin zen senarra; eta Marie alargun geratu zen, seme bat hazteko zuela. Garaiko ohituren kontra, uko egin zion berriz ere ezkontzeari. Izan ere, garai hartan, ezkonduko emakumeak senarraren mende zeuden, eta haren baimena behar zuten edozer gauza egiteko. Une hartan, *Aubryren alarguna* tituluaz ezagutua izatea saihesteko, bere amaren izenetako bat –Olympe– hartzea erabaki zuen; eta abizena ere aldatu egin zuen, “Gouze” beharrean “Gouges” jarrita, fonetikoki ahoskera bera baitute biek frantsesez. Azkenik, *de* partikula erantsi zion aurretik abizenari, hala Pariseko literatura-zirkuluetan errazago onartuko zutelakoan, inolako noblezia guraririk gabe. Izengoiti hori, Olympe de Gouges alegia, Mariaren lehen sorkuntza edo keinu literarioa izan zen, nolabait, eta bizitza berri bati eman zion hasiera: hots, Parisen bere lekua izan nahi zuen emakume libre baten bizitzari.

#### 2.1.2. LEHENENGO LANAK: ANTZERKIGINTZA

Olympe de Gougesek, bere lekua bilatu behar izan zuen Parisen; izan ere, garaiko gizarteak ez zuen onartzen haren bizitzeko modua. Gizon aberats bat, Jacques Biétrix de Rozières, hartaz maitemindu zen eta hark mantentzen zuen, nahiz eta De Gougesek haren ezkontzeko eskaerari ezezkoa emana izan. Horren ondorioz, prostitutatzat jo zuten askok. Hala ere, De Gougesek lortu zuen literatura-zirkuluetan sartzea eta antzerki idazle gisa karrera bat egitea. Ausardia izugarriarekin, obra politikoak idazteari ekin zion, eta *Comédie-Française* eta *Comédie-italienne*-eko antzeztoki publikoetan aurkeztu zituen; garaiko emakumezko idazle gehienek, ordea, saloietan antzezten zituzten gizarte-antzerkirako antzezlanak, handik kanpora ateratzen ausartu gabe.

De Gougesek era zalapartatsuan sartu nahi izan zuen literatura-munduan, antzezlekua tribuna gisa erabilia. Baita lortu ere! Heziketa eskasa gorabehera, 4.000 orrialde baino gehiagoren egilea izan zen: panfletoak, gutunak, antzezanak, testu politikoak, filosofikoak eta utopikoak idatzi zituen.

1786an, *Comédie-Française* antzokian Beaumarchaisen *Figaroren ezkontza* antzezlana ikusi ondoren, Olympe de Gougesek *Cherubinen ustekabeko ezkontza (Le Mariage inattendu du Chérubin)* idatzi zuen. Lan horretan, "lehen gaueko eskubidea" (*ius primae noctis*) eta derrigorrezko ezkontzak kritikatu zituen. Chérubin delakoa Beaumarchaisen *Figaroren ezkontza* obran bigarren mailako pertsonaia baten izena izanik, Beaumarchaisek plagioa leporatu zion eta obra ez zen sekula antzeztu eszenatokietan.

Lehen porrot horren ostean, asko borrokatu behar izan zuen bere lehen antzezlana taularatzeko: *Zamore et Mirza* –gerora, *Beltzen esklabotza* izenburupean ezagutu zen–. Borroka hori De Gougesen aurka behin eta berriro agertzen zen erresistentzia sozialen adierazlea da. Lau urte luzeren buruan, 1789ko abenduaren 28an lortu zuen *Beltzen esklabotza la Comédie-Françaisen* taularatzea, *Comédie-Française*ko kide batzuen iritziak eta kolonoen lobbyaren presioa eta mehatxuak gorabehera. Baina, handik egun batzuetara, Pariseko alkateak debekatu egin zuen obra antzezte, ordena publikoan arazoak piztu zitzakeelako aitzakiarekin.

#### GEHIAGO JAKITEKO IRAKURRI:

**Comédie-Française** edo **Théâtre-Français** Frantziako komedia-antzezleek sorturiko konpainia bat da. 1680an jarri zen abian hiru konpainia bildu ondoren: «Le Théâtre», «Théâtre du Marais», Molieren konpainia, eta «Les Comédiens du Roi de Hôtel de Bourgogne». *Comédie-Française* delakoak berebiziko garrantzia izan du Frantziako antzerkiaren historian. Konpainia horren antzokia Pariseko Errege Jauregiaren ondoan dago, gaur egun. Estatuak diruz laguntzen dio, eta frantsesezko antzerki-lan klasikoak aurkezteaz gainera, gaur egungo egileen lanak ere ezagutarazten ditu. *Comédie-Française* taldea hogeita hamarren bat kidek osatzen dute; haiek arduratzen dira taldearen administrazioaz eta kudeaketaz. Bestalde, administratzaile bat izendatzen da, sei urtez behin, eta hark hautatzen ditu egitarauak eta zuzendariak. *Comédie-Françaisen* ospetsu egin diren antzerkigileen artean, aipagarriak dira hauek: Baron, Talma, Mlle Mars, Rachel, Sarah Bernhardt, Cécile Sorel, Madeleine Renaud, Louis Seigner, Jacques Charon, Denise Gence...

#### IRAULTZAILE HUMANISTA

Frantziako Iraultzaren atarian, Olympe de Gouges aldendu egin zen, apur bat, antzerkigintzatik, ekintza politikoan zuzenean aritzeko asmoz. Gauzak hala, eskutitzak, panfletoak, liburuxkak, kartelak... idazteari ekin zion; gehienetan, sinaturik agertzen ziren. Aipagarriak dira, besteak beste, 1788ko *Lettre au peuple* (Eskutitza herriari) eta *Remarques patriotiques* (Ohar patriotikoak) idazkiak, gizarte-programa zabal bat garatzen baitzuten. Testu horietan, neurri sozioekonomiko eta legal ugari proposatu zituen: esaterako, luxuaren gaineko zerga eta irabazien araberako borondatezko zergak ezartzea; langabeentzako laguntza-zentroak eta eskaleentzako aterpetxeak sortzea; ezkontza behartuak indargabetzea eta dibortzioa baimentzea; prostitutak defendatzeko programa bat; esklabotzaren eta arrazakeriaren aurkako borroka; eta emakumeak zaintzeko zentroak sortzea, erditu zitezen eta haiek eta haien haurrak hobeto zainduak izan zitezen.



Bistan dago haren jarrera humanistak eta haren konpromiso sozialak zerikusi zuzena dutela haren bizipenekin: seme bat zuen, eta amek kezkatzen zuten; emazte dohakabea izan zen, eta dibortzioaren alde borrokatu zen; alaba sasikoa zen, eta aitek haur naturalak aitortzea eskatzen zuen; heziketa eskasa izan zuen, eta guztiei ematea nahi zuen.

1790ean, alde batetik, *Dibortzioaren beharra (La nécessité du Divorce)* antzezlan argitaratu zuen eta, bestetik, *Herri-auzitegi bat eratzearen gaineko proiektua (Projet sur la formation d'un tribunal populaire)* obra. Azken horretan, Frantziako gaur egungo auzitegi-sistemaren oinarriak ezarri zituen. 1791an, *Emakumearen eta emakume herritarren eskubideen adierazpena (Déclaration des droit de la femme et de la citoyenne, EEHEA)* argitaratu zen; eta aipatzekoa da urte bereko *Errege izango da, ezta? (Sera-t-il roi, ne le sera-t-il pas?)* liburuxka ere, emakumezkoen polizia bat sortzea proposatu baitzuen hartan.

Bildu zuen diru guztia gastatu zuen bere idazkiak inprimatzen eta ezagutzera ematen, ez baitzuen beste modurik bere ahotsa entzuna izan zedin emakumeak ikusle gisa bakarrik onartzen zituen Biltzar Nazionalean. Erreforma sozial eta politiko abangoardisten aldeko amorratua izan arren, iraultzaileen indarkeriaren aurka agertu zen eta monarkia konstituzional baten alde egin zuen.

Erregearenganako atxikimendu horrek eta girondarren alderdiarekiko hurbiltasunak bere aurkari jakobinoen etsaitasuna piztu zuen. Nagusitu zirenean, gillotinan hil zuten jakobinoek, 1793ko azaroaren 3an, gobernu federal baten aldeko kartel bat argitaratzen saiatzeagatik. Kartel hura gorabehera, dudarik gabe, emakume politiko bat izatea zen onartezin egiten zitzaiena. Beste bertsio batzuen arabera, jakobinoen ustelkeria (Maratena batez ere) salatu izanak eta Maraten eta Robespierren aurka idatzi zituen testuek eraman zuten Olympe de Gouges gillotinara.

## GEHIAGO JAKITEKO

Girondinoak edo girondarrak eta jakobinoak Frantziako Iraultzan sortu ziren bi talde politiko izan ziren. Girondinoek goi-burgesia ordezkatzeko zuten eta ideia moderatuak zituzten: merkataritza librearen aldekoak ziren eta, orokorrean, egonkortasun ekonomikoa eta politikoa aldeztu zuten, jakobinoen irrika iraultzaileen aurka. Jatorriz, Gironda eskualdekoak ziren haietako asko; eta hortik datorkie izena. Frantzia berreraiki nahi zuten eta, jakobinoen zentralismoaren aurka, federalismoa defendatzen zuten eta, haietako askok, baita Monarkia Parlamentarioa ere (konstituzio demokratiko baten baitan eratua, betiere). Louis XVI.a erregearen exekuzioaren aurka agertu ziren hainbat. Espantsionistak ere baziren. Jacques Pierre Brissot zuten buru. Frantziako hiri txikietan izan zuten sostengu handiena.

Jakobinoek, berriz, burgesia txikia eta erdi-mailakoa ordezkatzeko zuten, eta askoz ere erradikalagoak ziren. Jakobinoen baitan biltzen ziren menditarrak (*montagnards*) deiturikoak ere. Paris haien eskuetan zegoen, eta botere zentrala indartzearean aldekoak ziren. Frantzia errepublika bat izatea nahi zuten. Girondinoek eragotzi nahi zuten hirietako eta landa-eremuetako langileek politikan parte-hartze handiagoa izatea; jakobinoek, berriz, herritarrek parte-hartze handiagoa izatea proposatzen zuten. Jakobinoek 1793. urtean bereganatu zuten boterea; eta 1794. urtera arte iraun zuten, Izua edo Terrorea deitzen den



garaian. Izuaren Garaian, Segurtasun Orokorreko Batzordea sortu zuten, Iraultzaren etsai guztiak atsedetik gabe bilatzeko. Batzordearentzat, Iraultzaren "etsai" izatea ez zen haren aurka egotea bakarrik. Izan ere, etsaitzat jotzen zituen, halaber, askatasunaren alde ezer egiten ez zuten hiritar pasiboak ere. Hala, hautaketa-irizpide zabal horiei jarraiki, jende errugabe asko exekutatu zuten; gillotinarekin, gehienbat. Aipagarriak dira Luis XVI.a eta haren emazte Maria Antonieta Frantziako errege-erreginen exekuzioak, baita Olympe de Gougesen exekuzioa ere. Jakobino nabarmenenak Robespierre eta Saint-Just izan ziren. 1794ko Thermidorreko estatu-kolpean exekutatu zituzten biak; eta, haien heriotzarekin, amaitu egin zen Izuaren Garaia, eta errepublikazale kontserbadoreen agintaldia etorri zen.

## 2.2. TESTUINGURU HISTORIKOA: FRANTZIAKO IRAULTZA

### 2.2.1. SUKAR IRAULTZAILEA ETA HAREN MUGAK

Olympe de Gougesen bizitzak eta hark idatzitako adierazpenak lotura estua dute testuinguru iraultzailearekin. 1788-1789ko negua, "negu handia" deritzona, ikaragarri hotza izan zen, eta agerian utzi zuen herriaren miseria. Erresumaren finantza-estutasunak behartu egin zuten Luis XVI.a –1614tik lehen aldiz– Estatu Orokorretara deitzera. Estatu Orokor horiek Batzar Nazional (*Assemblée Nationale*) bihurtu ziren eta, 1789ko amaieran, lehen Konstituzioa eman zioten erresumari, *Gizon eta Herritarren Eskubideen Adierazpenean* ezarritako printzipioetan oinarrituta.

Adierazpen-askatasunak inoiz ikusi gabeko ideia-mordoa sustatu zuen, eta sukar politikoak herrialde osoa hartu zuen: jendea nonahi biltzen zen eztabaidatzeko eta hirietako hormak kartelez eta pankartez estali ziren. Herriak, eragile politiko berria bilakaturik, hitza hartu zuen; eta, batzuetan, armak.

1791ko ekainean, Louis XVI.a erregeak, 1789ko udako eta udazkeneko zalapartak eraginda, ihes egin zuen Tuilerietako jauregitik, eta Alemanian koalizio erregezalearekin bat egiten saiatu zen. Baina saiakera alferrikakoa izan zen; eta, 1791ko irailaren 14an, berretsi egin behar izan zuen Konstituzioa. Herri-poza Frantzia osoan zabaldu zen. Hala ere, konstituzio hartan, *Gizon eta Herritarren Eskubideen Adierazpeneko* unibertsaltasun abstraktua, pertsona orok eskubide berberak izatea bermatzen zuena, bi abiaturako sistema politikoa bihurtu zen. Izan ere, legeak bereizi egiten zituen, alde batetik, "herritar aktiboak" –25 urtetik gorako gizon libreak eta independenteak, zergak ordaintzeko gai zirenak– eta, bestetik, "herritar pasiboak" – emakumeak, esklaboak, haurrak, pobreak eta adimen urrikoak–, eta haienganako diskriminazioa gauzatu zuen. Gainera, monarkiaren subiranotasuna zaindu egin zen.



Versailleseko Emakumeen Martxa, Urriko Martxa, Urriko Egunak edo, besterik gabe, Versailleseko Martxa izenez ezagutzen dena Frantziako Iraultzaren lehen ekitaldi garrantzitsuenetako bat izan zen. Emakumeek hasi zuten martxa, Pariseko azoka-plazetan, 1789ko urriaren 5eko goizean, prezio altuak eta ogiaren eskasia salatzen. Berehala egin zuten bat iraultzaileen jarduerekin. Merkatuko emakumeek eta haien aliatuek, milaka herritar, hiriko armategia arpilatu zuten, arma bila; eta Versailles jauregirantz abiatu ziren, Iraultzaileek bultzaturik. Jendetzak setiatu egin zuen jauregia; eta, borroka izugarri eta gogorren ondoren, Luis XVI.a erregeak onartu egin zituen matxinatuen eskaerak. Biharamunean, jendetzak harekin Parisera itzultzera behartu zituen erregea, haren familia eta Frantziako Estatu Orokorren ordezkariak.

### 2.2.2. ERREPUBLIKATIK "TERROREAREN" GARAIRA

Ahots batzuk altxatu egin ziren bidegabekeria horien aurrean; eta, ondorioz, gai batzuetan amore eman beharrean aurkitu zen Biltzar Nazionala, bereziki emakumeen eskubide zibilei zegokienetan. Monarkia ez zen abolitu 1792ko abuztuaren 10era arte; Luis XVI.ak eta Maria Antonietak potentzia etsaiekin zuten korrespondentzia aurkitu izanak bete zuen iraultzaileen neurria. Egun horretatik aurrera, behin Errepublika aldarrikatuta, nabarmendu ziren Biltzar Nazionalan nagusi ziren bi fakzioen arteko tirabirak: girondinoak, kontserbadoreagoak eta federalistagoak, erregea epaitzearen aurka agertu ziren; jakobinoentzat, berriz, ahulezia barkaezina zen iritzi hori. Pixkanaka-pixkanaka jakobinoak gailendu ziren eta, batasun nazionalaren aitzakiarekin, errepresio odoltsua jarri zuten abian. Erregearen eta Maria Antonietaren exekuzioak izan ziren

Terrorearen garaian Iraultzaren etsai izatea leporatuta sarraskia jasan zuten guztien aurrekaria.

Emakumeek pairatu zituzten, bereziki, bira errepresibo horren ondorioak. 1793ko urriaren 30ean, Amar diputatuak adierazi zuen emakumeak ez zirela gai eskubide politikoak erabiltzeko, eta emakumezkoen elkarte eta taldeak debekatzeko eskatu zuen. Proposamena berehala bozkatu (eta onartu) zen. Bestalde, 1793ko azaroaren 17ko hitzaldian, Parisko Komunako prokuradoreak, Pierre-Gaspard Chaumettek, "marimutil" edo "eme-gizon" hitzak erabili zituen Olympe de Gouges izendatzeko, adieraziz emakumeek etxean egon behar dutela xedatzen duen ordena naturalaren etsaia zela. 1804ko Kode Zibilak indartu egin zuen ikuspegi antifeminista eta baztertu egin zituen emakumeak eremu politikotik.



Charlotte Corday (1768-1793) girondar gazteak hil egin zuen Jean Paul Marat, haren ustelkeriagatik. Guillotinatuta egin zuten eta haren izen ona zikindu egin zuten, "marimutil" deituta. Egile ezezaguna.

## 2.3. KRONOLOGIA: OLYMPE DE GOUGES BIZITZA

1748ko maiatzaren 7a	Montaubanen jaio zen.
1762	Rousseauren <i>Du contrat social</i> argitaratu zen.
1765eko urriaren 24a	Behartuta ezkondu zen.
1767	Ume txiki baten ama zela, alargundu egin zen; eta gizon aberats bat ezagutu, eta Parisera joan zen bizitzera. Gizon hark mantendu zituen, urte askoan, ama eta semea.
1784	Beaumarchaisek gainditu egin zuen <i>Figaroren ezkontza</i> antzezlanari ezarritako zentsura.
1785eko uztailak 8	<i>Comedie Française</i> k onartu egin zuen De Gougesen lehen antzezlanari: <i>Zamore et Mirza</i> edo <i>Beltzen esklabotza</i> .
1788ko azaroaren 6a	Olympe de Gougesek argitara eman zuen bere lehen liburuxka politikoa: <i>Lettre au peuple ou projet d'une caisse patriotique, par une citoyenne</i> .
1789ko maiatza-ekaina	Erregeak Estatu Orokorrek bildu zituen Versaillesen. Bilkura Biltzar Nazional Konstituziogile izendatu zen, bere kasa; eta ordezkariak zin egin zuten ez zirela bananduko harik eta erresumari konstituzio bat eman arte.
1789ko uztailaren 14a	<i>Bastilla</i> gotorlekua hartzea: sinbolikoki, Antzinako Erregimena erortzea eta Frantziar Iraultza hastea adierazten du. Monarkia absolutistak presondegi gisa erabiltzen zuen Bastilla.
1789ko abuztuaren 26a	Biltzar Nazional Konstituziogileak onartu egiten du <i>Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen</i> Adierazpena.
1790	Condorcetek <i>Emakumeak hiri-eskubidean onartzeari buruz</i> izenburuko lana argitaratu zuen. <i>Arkupe frantsesa (Portique français</i> klub politiko mistoa), <i>Lizeoa</i> (emakumeei irekia den irakaskuntza-lekua) eta sexu bateko zein besteko <i>Patrioten Anaitasunaren Elkarte</i> a sortu ziren.
1791ko martxoaren 15a	Ezabatu egin ziren adinekoek eta gizonezkoek oinordetzak banatzean zituzten pribilegioak, eta emakumeek ere lortu zuten oinordeko izateko eskubidea.
1791ko irailaren 14a	Luis XVI.ak onartu egin zuen Konstituzioa, derrigortuta. Argitara eman zen Olympe de Gougesen <i>Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne</i> liburuxka.
1792	Mary Wollstonecraftek <i>A vindication of the rights of woman</i> argitaratu zuen, Ingalaterran.
1792ko irailaren 20a	Ezkontza zibila ezarri zuen batzar legegileak; eta dibortzioa ere onartu zuen, bikotekideak ados egonez gero.
1793ko urtarrilaren 21a	Epaitu ostean, moztu egin zioten burua Luis XVI.ari. Olympe de Gouges epaiketari agertu zen, erregearen defentsa egiteko.
1793ko urriaren 16a	Maria Antonietari burua moztu zioten. Hura izan zen zigor hori jasan zuen lehen emakumezkoa. Jarraian, hogeita bat girondar gillotinatut zituzten. Terrorearen garaia hasiera da.
1793ko urriaren 30a	Debekatu egin zituzten emakumezkoen klubak, bilerak eta elkarteak.
1793ko azaroaren 3a	Gillotinatut egin zuten.

## 2.4. ARRAKASTA BERANTIARRA

### 2.4.1. EMAKUMEZKOEN ADIERAZPENA EGITEKO PREMIA

Iraultzaren garaian, emakumeek bete-betean parte hartu zuten gizarte-borrokan. Haien hitza askatu egin zen eta, ondorioz, *kexa-koadernoak*<sup>6</sup> idazteko eta klubetan mintzatzeko eskubidea bereganatu zuten. Are gehiago, emakume batzuek aktiboki parte hartu zuten, armak eskuan, iraultza egunetan. *Gizonen eta Herritarren Eskubideen Adierazpenak (GHEA)* oinarri legala eta kontzeptuala eman zien aldarrikapen feministei, legearen aurrean herritar guztiak berdinak zirela aldarrikatzen baitzuen, eta lagundu egin zuen emantzipazioan eta eskubide zibil jakin batzuk lortzen, hala nola oinordeko izateko eskubidea edo, geroago, dibortziatekoa.

Olympe de Gougesek, beste emakume askok bezala, jarraipena egiten zien, tribunetarik, Biltzar Konstituziogilearen eztabaidei; eta garbi ikusi zuen, azkenean, ezinbestean, onartze bidean zegoen konstituzioak emakumeak eskubide zibil eta politikoetatik kanpo utziko zituela. Eskubide horiek gauzatzeko orduan, ez zen ezarri, praktikan, *GHEA*k aldarrikatutako berdintasuna; eta, aurreiritzien eraginez, printzipio handiak diskriminazio bihurtu ziren, errealtatean.

Olympe De Gougesek, iraultzaileak zein esker txarrekoak ziren ikusita, haserre, presaka osatu zuen *Emakumearen eta Emakumezko Herritarren Eskubideen Adierazpena (EEHEA, Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne)*, 1789ko *GHEA*aren printzipio handiak berretsiz eta konstituzioaren erredakzioan eragina izango zuelakoan. Emakume izanik hitza hartu eta diputatuei zuzenean hitz egitea galarazita zuenez, idazkariari<sup>7</sup> diktatzen zizkion zuzenean ezin eman zituen hitzaldiak.

De Gougesen *EEHEA* zabal ibili zen Parisko kaleetan eta Biltzar Nazionalako korridoreetan, liburuxka formatuan; eta, dudarik gabe, jendaurreko irakurketak ere egin ziren, kafetegietan zein plazetan, jende arrunt analfabetoak ere haren berri izan zezan. *EEHEA*ren egileari askotan leporatu zaio testuan oso nabarmena dela ahozkorako jitea, eta lasterbide sintaktikoak erabiltzen dituela. De Gougesek premiak bultzatuta idatzi zuen testua eta, ororen gainera, eragina izatea nahi zuen; eta horregatik ditu estilo-ezaugarri horiek.

---

<sup>6</sup> Kexa-koadernoak (frantsesez: *Cahiers de doléances*) memorial edo erregistro batzuk dira, Estatu Orokorretako diputatuak hautatzeko ardua zuten Frantziako barruti bakoitzeko batzarrek eskaerekin eta kexekin betetzen zituztenak. XIV. mendetik aurrera erabili ziren, baina 1789ko maiatzean eta ekainean idatzitakoak dira ospetsuenak, frantziar iraultzan izan zuten garrantziarengatik.

<sup>7</sup> Garaikide askok bezala, Olympe de Gougesek idazkari partikular batengana jotzen zuen. Horrek haren biografo batzuei pentsarazi die analfabetoa zela; baina ez da hala, bere eskuz idatziriko eskutitz batzuk bildu baitira, hil baino lehentxeago kartzelan idatzitakoak. Hala eta guztiz ere, bere garaiko emakume gehienek bezala, aparteko zailtasuna izan zuen idazteko, heziketa faltagatik.



## 2.4.2. BERRAURKIKUNTZA BERANTIARRA

Praktikan, porrot latza jasan zuen saiakerak: liburuxkak ez zuen berehalako oihartzunik izan, eta ia bi mende joan ziren Olympe de Gougesen lana aintzat hartzen hasi aurretik. De Gougesek ez zuen uste haren ekarpena ahanzturak ezkutatuko zuenik. Izan ere, honako hau idatzi zuen bere azken panfletoan: "Herriari erakutsiko zaio zer egin dudan haren alde. [...] Ongia ez da inoiz galtzen lurrean; esperientziak erakusten digu bizitzan jazarria izan den izakiak esker onaren malkoak biltzen dituela heriotzaren ondoren, eta haren oroimena ohoratua dela", *Abertzale jazarri bat* (1793ko irailaren 21a). Guillotinan hil baino lehentxeago, hitz hauek oihukatu zituen: "Aberriaren seme-alabok, mendekatu egingo duzue nire heriotza!".

Ahanztura hori arrazoi askok eragindakoa da. Lehenik eta behin, testuinguruari erreparatuz, Konstituzioa izatearen pozak, ordena publikoa berriro ezartzeak eragindako lasaitasunak eta 1789ko *GHEA*ren sakralizazio progresiboak ezkutatu egin zuten, nolabait, ustekabekoa eta garaiaren aurkakoa zirudien testu kritikoa. Politikaren arlotik, berriz, nekez barkatzen zaizkio Olympe de Gougesi bere zalantzak. Izan ere, iritzi publikoarentzat, ez da guztiz fidagarria egun gutxi batzuk tarteko lehenengo erregeari Konstituzioari uko egiteko esan eta handik gutxira Konstituzioa onartzeko aholkatu ziona. Bestalde, arrazoi sozialei erreparatuz gero, esan beharra dago gizarte iraultzailea ziur aski ez zegoela prest hain nabarmenki politikoa zen ahots femenino bat onartzeko; ezta XIX. mendean ere, zeren, alderdi askotatik hain moderatua izan arren, amorratutzat joko baitute Olympe de Gouges. Hala, E. Lairtullier-ek, *Les Femmes Célèbres de 1789 à 1795 et leur influence dans la Révolution* (1840) liburuan, "Furien" artean sailkatzen du Olympe de Gouges; eta Alfred Guillois doktoreak, berriz, *Étude médico-psychologique sur Olympe de Gouges* (1904) lanean, baieztatzen du "paranoia erreformatzaileak" edo "histerismo iraultzaileak" jota zegoela. Azkenik, testuaren formak ere, dudarik gabe, ahanzturan erortzen lagundu zuen, haren estiloaren originaltasun ezegonkorragatik.

1986koa da *EEHEA*ren lehen edizio osoa, Benoîte Groult aktibistaren lanaren emaitza. Garai hartan, mugimendu feministak, garapen-prozesu betean murgilduta zegoela, inspirazio-iturri iraunkorra aurkitu zuen Olympen ausardian. Hala ere, gaur egun ere, nahikoa gutxi ikertzen da, Frantziar, Olympe de Gougesen figura; baina, pixkanaka, berriro ezagutzen hasi da haren ekintza politikoaren izaera berritzailea. 2016tik aurrera, Frantziako Nazio Biltzarraren egoitza nagusian dago haren bustoa; Frantziako historia politikoko figura handien artean lekua izan duen lehen emakumea da.

## 2.5. SAILKATU EZINEZKO TESTUA

### 2.5.1. TESTU JURIDIKO BAT?

Olympe de Gougesen *Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena*, (*EEHEA*) 1789ko *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenaren (GHEA)* ia hitzez hitzeko kopia da. Lehen begiratuan irakurleak aurkitzen duen aldaketa bakarra "homme" (gizon) terminoaren ordez "femme" (emakumezko) jartzearena da, gizon terminoaren anbiguotasuna saihesteko. Izan ere, eredu gisa erabilitako oinarrizko testu juridikoan, gizateria osoa izendatu beharko litzateke; baina, berez, espeziearen harrak, gizonezkoak, baino ez dira izendatzen. Horregatik, De Gougesen *Emakumearen*

eta Emakumezko Herritarraren Adierazpenean, Gizon eta Herritarraren Adierazpenean ageri diren elementu berberak aurkitzen ditugu: kontzeptu handiak (onura komuna, subiranotasuna, berdintasuna, askatasuna), eskubideak guztiengana zabaltzeko nahia eta autoritate gorenaren aipatzeko hotsandiko formulak ("Izaki Gorenaren aurrean eta haren babespean"), baina emakumezkoak ere berariaz aipatuta.

Hala ere, haren ezaugarri batzuei zorrotz erreparatuta, ezin dugu pentsatu *EEHEA GHEA* bezalako lege-testu bat denik. Alde batetik, Olympe de Gougesek formula ausartak erabiltzen ditu emakumezkoen erreferentzia egiteko, hala nola "sexu gailena, bai edertasunean zein ausardian, amatasun oinazeetan"; eta, bestetik, 1789ko *GHEA*ren berdintasun abstraktua justizia zehatz baterantz bideratzen duten gehigarriak erabiltzen ditu 2. artikuluan *batez ere* modalizatzailea gehitzean edota 4. artikuluan askatasuna justiziarekin lotzean, adibidez. Horrez gain, zenbait artikuluren irismena murrizten duten eraldaketak ere eransten ditu. Adibidez, 11. artikulua, *GHEA*ren adierazpen askatasuna bermatzen duena, amak bere haurren aita nor den izendatzeko eskubidea bilakatzen da De Gougesen *EEHEA*ren. Azken puntu horretan, nabaria da Olympe de Gougesen esperientzia biografikoaren eragina; baina, horregatik, ez dugu zertan ondorioztatu bere interes partikularren esparrutik gora burua altxatzeko ezgai den emakumearen mugak ageri dituenik; bestetara irakur dezakegu eta pentsatu printzipio iraultzaile handiak gorpuztu eta bere alaba-, emazte- eta ama-esperientziak nazioaren zerbitzura jartzeko borondatea duen emakumearen ekarpenaren aurrean gaudela.

### 2.5.2. PANFLETO BAT?

1789ko *GHEA*ren korapiloari hitzatze edo epilogo bat gehitu zion Olympe de Gougesek. Hartan, nabaria da panfletoaren erretorika bortitza, eta estilo hori oso urrun dago lege-testuen neutraltasunetik. Panfletoak berezkoa duen erregistro polemiko eta eztabaidakoa oso agerikoa da atal horretan, bai *Adierazpenaren* hitzaurrean gizonari zuzentzen zaion pasarteetan, baita "Gizonaren eta Emakumearen Kontratu Soziala" atalaren amaierako garapenean ere. Panfleto-estiloaren erakusgarri dira irakurleari zuzenean zuzentzea, lagunarteko hizkerako tratua (frantsesezko hikaren parekoa erabiltzea, zuka erabili beharrean), aginte-era erabiltzea, apostrofe ugariak, baita irainak ("arraroa, itsua, zientziak betea eta endekatua") edo biraoak erabiltzea ere ("tartufoak, santujaleak, kleroa eta infernuko segizio guztia", erlijioari eraso egitean). Hala ere, panfletoa, eskuarki, *ad hominem* eraso bat izaten da, pertsona edo erakunde jakin bat helburu duena. *EEHEA*ren ordea, askotarikoak dira arerioak: iraultzaile bortitzak ("erosiriko matxinatu mordoa"), gizonak, emakumeak (begirunez tratatzen ditu, baina panfletoaren tonu erasokorra, jendea mugitzeko mintzaldi sutsuarena, erabiltzen du haiengana zuzentzean), elizjende eta apaizeria antifilosofikoa eta diputatuak berak ("legegile frantses" horiek), Jesus suminkorrarekin konparatzen baititu umorez. Gainera, panfletoek tesi bakar baten alde egiten dute; eta Olympe de Gougesen testuak, berriz, hainbat helburu ditu: emakumeen eskubideen alde egitea, esklabotzaren aurka borrokatzea, monarkiaren alde egitea, hiriaren antolaketari buruzko proposamenak aurkeztea... Bokazio unibertsal hori erabilitako erregistroen aniztasunean antz ematen da, eta horrek bereizten du *EEHEA* iraultzaren garaian agertutako beste hainbat dokumentu suharren multzotik.

### 2.5.3. DISKURTSO BAT?

*EEHEA* modu askotan irakur daiteke: kontsideratu daiteke emakumeei adre emateko hitzaldi sutsua dela, harenga baten parekoa, edo berdintasunaren aldeko abokatu batek garatutako alegatua dela edo Biltzar Nazionalen bozkatzeko aurkeztu beharreko lege-proiektu bat dela. Modu batera zein bestera hartuta, Olympe de Gougesen testua diskurtsoa da.

Genero hori antzinatek dator eta oso kodetuta dago: batetik, erretorika landua du ezaugarri, eta, bestetik, naturaltasunaren eta bat-batekotasunaren kutsua izan behar du, ahozko hitzaldiak baitira elokuentziaren jatorria. *EEHEA*k bi ezaugarriak ditu. Izatez, *EEHEA*ren estiloa irudiz josia da: metaforak, alegoriak, galdera erretorikoak, hiperboleak, antitesiak... Hala ere, bat-batekotasuna dario alderdi guztietatik: hitz arruntak hautatzen ditu, digresioak egiten ditu (adibidez, kolonietako nahasmenduei buruzkoa), egoeraren larritasuna aldarrikatzen du ("une bakar hau baino ez daukat")... Gramatika- eta sintaxi-akatsak daude, batzuetan; baina denak balio du erretorikaren eraginkortasunaren izenean.

Hala ere, diskurtso paradoxikoa da: lehenik eta behin, ez zen irakurri Biltzarrean; eta, bestetik, oso forma atipikoa du. Tradizioz, diskurtsoa hitzaurre batekin hasten da, entzuleen arreta eta borondate ona erakartzeko aukera ematen duena. *EEHEA*n, gizona zuzenduriko hitzaurreak betetzen du eginkizun hori. Baina hitzaurre hori ez da batere egokia diputatuen onginahia eskuratzeko edo haiek samurtzeko. Gainera, diskurtso klasiko batek, aurrera egin ahala, gero eta indar eta zabaltasun handiagoa hartzen du argudioetan, azken ondorioen eta emozioen gailurrera iristeko. Olympe de Gougesek, berriz, etengabe murrizten du fokua *EEHEA*n: printzipio handiekin hasi ondoren, ezkontza-estatusari buruz aritzera pasatzen da; hortik, emakumeen eskubide ekonomikoetara; eta, azkenik, anekdotikoa dirudien abentura pertsonal bati erreparatzen dio. *EEHEA*k, beraz, desbideratu eta nahasi egin zuen publikoa, elokuentziaren eredu kanonikoetara ohituta baitzegoen hura.

### 2.6. TESTUAREN ATALASEAK: ERREGINARI ESKAINITAKO ESKUTITZA ETA AZKEN PASADIZOA

*EEHEA*ren hasierako atalean Olympek Maria Antonieta erreginari gutuna zuzendu izanak eta *EEHEA*ren amaieran Olympek kontatzen duen pasadizo pertsonalak are zailagoa egiten dute *EEHEA* genero jakin batean sailkatzea. Testuaren hasierako eta bukaerako atalaseak zilegitasuna zerk ematen dien adierazteko erabili izan dituzte autoreek, tradizioz; baina Olympe de Gougesek modu harrigarrian erabiltzen ditu atal horiek.

Lana, herritar ospetsu bati eskaini ordez, erreginari eskaini zion. Maria Antonieta erregina iraultzaileek gorrotatzen zuten figura bat zen, Antzinako Erregimenaren bizioen sinbolotzat baitzuten. Baina Olympe de Gougesek xantaia edo eskari irmo bihurtzen du erreginari eginiko omenaldia, hari sotilki gogoraraziz bere idazkiak direla erregina "ezpata" iraultzailearengandik babesten dutenak. Deigarria da erreginari zuzentzen zaionean ere berdintasun mailako erretorika erabili izana, "Andre" deitzen du eta ez "Gorentasuna"; eta, beste probokazio batzuen artean, adierazten dio "halabeharraren" ondorio dela haren estatus pribilegiatua. Hortaz, ondoriozta daiteke *EEHEA*ren sarrera-



testu hori traketsa ez baizik eta eraginkorra dela, hiru zentzutan: hasteko, De Gougesek bere aldarrikapenari sostengu emateko eskatzen dio erreginari, irmoki; jarraian, haren enpatia eskuratzen ahalegintzen da erregina ere emakumezkoa dela azpimarratuz; eta,



azkenik, iraultzaileenganako leialtasuna agertzen du Olympek, erregina bestek bezalako emakume gisa tratatuz.

Azken pasadizoa absurdoa dela pentsa daiteke: bere helburuari legitimitatea emateko, bere burua tonu jasoan goraiatu ordez, xehetasun prosaiko jositako autorretratu umoretsu bat eskaintzen du Olympe De Gougesek. Ez da autokritikaren beldur. Pasarte horretan, bere kezka agertzen du inprimatzaileak papera aurreztu behar duelako, liskar bat dauka Parisera eramaten duen gurdizainarekin eta bainu bat hartzera doa Pariseko auzo batera. Horrekin batera, serioago, justizia eskatzen duen emakume gisa ere agertzen du bere burua. Sinbolikoki, hark jasaten duen bidegabekeria emakume

guztiek jasan dezaketen berbera da: "Indarraren mehatxua" (*menace de la Force*), alegia. Azaldu beharra dago hemen, *Force* hitzak esanahi bikoitza zuela garai hartan: alde batetik, Pariseko kartzela baten izena zen; eta bestetik, gizarte iraultzailean ere emakumeek jasan behar zuten basakeriaren alegoria. Anbiguotasun horrek diskriminazioak era umoretsuan salatzeke aukera ematen dio Olympe de Gougesek. Azkenik, komisarioaren mespretxuzko hitzen berri ematen du De Gougesek. Itxuraz, komisario horrek ironiaz galdetu zion Olympe de Gougesek ea "auzi hura Biltzar Nazionalera eramango ote zuen"; eta, gertakari horren kontura, *EEHE*aren egileak diputatuak izendatzen ditu bere testuaren benetako hartzaile gisa. Pasadizoa fabula bihurtzen ari da.

## 2.7. OLYMPE DE GOUGESEN FILOSOFIA

### 2.7.1. FILOSOFIA KONPROMETITUAREN AITZINDARIA

Jakina denez, idazleek, beren idazkien bidez, kausa baten defentsa egin dezakete. Hain zuzen ere, horri erreferentzia egiteko, Jean Paul Sartre idazle eta filosofoak *literatura konprometitua* kontzeptua asmatu zuen, XX. mendean. Sartrek uste zuen idazlearen eginkizuna bere garaiko borroketan inplikatzeko dela, bai bere idazkien bidez, bai eztabaidetan zuzenean parte hartuz. Idazle konprometituak gogoeta eragin nahi du, eztabaida piztu, kontzientzia sortu eta aldaketak eragin. Beren obren bidez kausa baten defentsan inplikatzeko diren egileei "idazle konprometituak" deitzen zaie.

Olympe de Gougesen obra bere osotasunean aztertzen badugu –EEHEA ez ezik, bere ekoizpen literario osoa–, ikusiko dugu borrokaren ideiak zeharkatzen dituela bere testu guztiak. Borroka literarioa eta intelektuala, baina helburu zehatz batekin: gizartean berdintasun erreala lortzea, gizon, emakume, beltz, pobre, aberats eta, oro har, hiritar eta gutxiengo guztien artean. Beraz, Olympe de Gouges filosofo konprometitu gisa izenda dezakegu (protomarxista gisa ere bai, agian), halako moldez non bizitza eman baitzuen bere konpromisoaren alde.

## 2.7.2. HIZKUNTZA INKLUSIBOAREN AITZINDARIA

1791. urtean, Olympe de Gouges idazle, iraultzaile eta pentsalari frantsesak *EEHEA* argitaratu zuen. Obra hori idazteko, 1789ko *GHEA* (*Gizonaren eta herritarren eskubideen adierazpena*) obra hartu eta *homme* (gizona) hitza agertzen zen guztietan *femme* (emakume) hitza gehitu zuen edo bigarrena jarri zuen lehenaren ordez. Horrez gain, genero femeninoan jarri zituen hitz batzuk: esaterako, *représentants* edota *citoyen*-en ordez *représentantes* eta *citoyenne* erabili zituen. Haren ibilbidearen eta borrokaren parte bat, beraz, 1789ko adierazpena feminizatzea izan zen, alde batera utzitako forma femeninoak agerian jarrita. Lehen begiratuan, aldaketa horiek azalekoak direla pentsa daiteke. Baina, sakonago aztertuta, nabarmena da *hizkuntza inklusiboaren* lehen adierazpenaren aurrean aurkitzen garela.

Hala, Olympe de Gouges, hizkuntza inklusiboaren baliabidea erabiliz, altxatu egin zen emakumearen ikusezintasunaren aurka, emakumeak ez baitzuen lekurik mugimendu iraultzailearen baitan eta diseinatzen ari ziren ordena berrian. Era berean, salatu egin zuen *droits de l'homme* (gizonaren eskubideak) esamoldearen gezurrezko unibertsaltasuna eta hipokrisia, eta aldarrikatu zuen esamoldea benetan unibertsala bilakatzea.

Urte batzuetatik hona, hizkuntza inklusibo edo integratzaileak eztabaida handiak piztu ditu, alde eta kontra. Baina zertan datza zehazki hizkuntza inklusiboa? Zentzu zabalean, hala esaten zaio emakumezkoak eta LGTBIQ+ kolektiboak ikusgarri egiteko erabiltzen den idatzizko zein ahozko prozedura orori.

Prozedura horiek ugari dira Olympe de Gougesen testuan:

- Lehentasuna ematea hitz epizenoak erabiltzeari, berdin balio baitute emakumezkoak zein gizonezkoak aipatzeko: adibidez, *élève* (ikaslea).
- Flexio bikoitza erabiltzea: *les citoyens et les citoyennes*.
- Idaztean, baliabide jakin batzuk erabiltzea, bereizketarik ez egiteko, hala nola parentesia (*né(e)*), puntua (*les citoyen.nes*) –edo, gaur egun, gaztelaniazko a-bilduaren edo e-generikoaren (*hij@s/hijes*) baliokide diren formak–.
- Femenino generikoa erabiltzea bai gizonezkoak bai emakumezkoak aipatzeko: *les citoyennes*, maskulinoa erabili beharrean.

Hizkuntza inklusiboak eztabaida asko pizten ditu gaur egun, eta arrazoi gramatikalez haragoko auziak aurkitzen dira eztabaida horien azpian. Hala, hizkuntza “hil ala biziko

arriskuan” ikusi gabe ere, hainbat pertsonen nahiago dute ez erabili femeninozko esamoldeak (edota LGTBIQ+ kolektiboak barne hartzen dituztenak), haien testuen irakurgarritasuna gutxituko dutelakoan edota genero desberdintasuna gainditzeko ahaleginean eraginik ez duelakoan. Beste batzuek, berriz, pentsatzen dute hizkuntza inklusiboa eguneroko jarduera guztietan erabiltzea (edukian zein forman) modu bat dela emakumezkoen ikusezintasunaren aurkako borrokan aurrera egiteko. Azken horien aburuz, hizkuntza inklusiboak, ohitura linguistikoak iraultzen dituzenez, aukera ematen du zalantzan jartzeko, bai egun gizartean gizona eta emakumezkoen arteko harremanetan izaten den berdintasunik eza, bai *statu quoa*.

Aurkako ikuspuntu horiek ezagututa bi baieztapen egin ditzakegu, Olympe de Gougesek idatzitako *EEHEA* obraz: alde batetik, hizkuntza inklusiboaren auzia gaurkotasan handikoa dela berdintasunaren aldeko borrokan; bestetik, idazkera inklusiboaren auziak pizten dituen ezadostasunek gogorarazten digute hizkuntza eraiki egiten den material bat dela eta norberak erabaki dezakeela nola jabetu nahi duen hizkuntzaz.

Azkenik, esan beharra dago Olympe de Gougesek ez zuela espresuki hizkuntzari berari buruzko hausnarketarik egin. Baina esan genezake bere *EEHEA* obrarekin –ohartu gabe edo intuizioz bada ere– praktikara eraman zuela hizkuntzaren filosofia, garaiko hizkuntzaren “maskulinizazioa” agerian jarri eta nolabait salatu egin baitzuen. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, garai hartako emakume izateagatik hezkuntza formalik jaso ez zuen norbanako batentzat.

### 2.7.3. FEMINISTA LIBERAL, ILUSTRATU ETA ABOLIZIONISTA

Olympe de Gougesen filosofia ilustrazioaren eta liberalismoaren printzipioetan oinarritzen da, baina dimentsio feminista eta abolizionista gehitzen die printzipio horiei. Hala, ilustratuei zegokienez, adierazpen-askatasuna, boto-eskubidea eta hezkuntza defendatzen zituen; eta, bestalde, eta liberalen antzera, jabetza pribatua. Aipaturiko eskubideak emakumeei ere naturaz zegozkiela defendatu zuen, eta bere garairako buruargitasun itzela agertu zuen dibortzioa eta berdintasunean oinarritutako ezkontza-hitzarmena defendatzean. Berdintasunaren defentsan, esklabotzaren abolizioa ere eskatu zuen, baita heriotza-zigorrena ere.

Gaur egun, feminismoaren lehen olatuaren sortzaileen artean kokatu ohi da Olympe de Gouges, Mary Wollstonecraftekin eta sufragistekin batera. Feminismoaren lehen olatuak emakumezkoen eskubide zibil eta politikoen defentsa izan zuen helburu nagusi. 1789ko Frantziako iraultzaren ostean, giza eskubideak gizona aberatsei soilik aplikatzen zitzaizkiela ikusita, berdintasunaren alde borrokatu ziren emakumezkoak.

Olympe de Gouges lehenetarikoa izan zen patriarkatua kritikatzeko eta emakumeek gizartean jasaten duten indarkeria salatzen. Adierazi zuen emakumeak arrazoimena eta bertutea lortzeko gai zirela eta “gizaki oso” gisa tratatu behar zirela. Bere lanik ezagunena *Emakumearen eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena* da, 1791n idatzia 1789ko *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenari* erantzunez. Testu horretan esaten zuen emakumea aske jaiotzen dela eta gizonaren eskubide berberak

dituela, eta honako eskubide hauek aldarrikatzen zituen emakumeentzat: iritzi-askatasuna, sexu-askatasuna, derrigorrezko ezkontzak ezabatzea eta legezko dibortzioa.

Haren esaldi ospetsuenen artean hauek aipa ditzakegu:

- “Gizon, bazara gai zuzena izateko? Emakume batek egiten dizu galdera; ez diozu behintzat eskubide hori ukatuko”.
- “Emakumeak urkamendira igotzeko eskubidea du; eta berdin izan behar du tribunara igotzeko eskubidea ere”.
- “Emakumea aske jaiotzen da eta gizonaren berdina izaten irauten du eskubideetan”.
- “Ezkontza konfiantzaren eta maitasunaren hilobia da”.

## 2.8. EMAKUMEAREN ETA EMAKUMEZKO HERRITARRAREN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA (EEHEA) (1791) (DÉCLARATION DES DROITS DE LA FEMME ET DE LA CITOYENNE)

### ITZULPENA

EEHEA sei atalek osatzen dute:

1. *Erreginari eskutitza (Á la reine)*
2. *Emakumearen Eskubideak (Les droits de la Femme):*
3. *EEHEA Emakumearen eta Emakumezko herritarraren Eskubideen Adierazpena (Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne): Hitzaurrea (Préambule) eta 1-17 artikulua (Articles 1-17)*
4. *Hitzatzea (Postambule)*
5. *Gizonaren eta emakumearen kontratu sozialaren forma (Forme du contrat social de l'homme et de la femme)*

Honako itzulpen hau IRALeren R400 ikastaroko tutoreak eta nik eginiko lana da, Olympe de Gougesen *EEHEA* osatzen duten frantsesezko bost atal originaletatik abiatuta. Guk geuk geure itzulpena egitearen arrazoiak askotarikoak dira. Berez, bada euskarazko itzulpen bat, Jurgi Kintanak *Kondaira* aldizkari elektronikoan argitaratutakoa, baina partziala da eta ez du *EEHEA* osorik hartzen: *Hitzaurrearen* parte bat eta *EEHEA*ren hamazazpi artikulua baino ez daude itzulita. Bagenuen itzulpen-atal horiek erabiltzea gure lana murrizteko; baina erabaki genuen hobe zela zerotik hasia, itzulpen osoak estilo eta irizpide berei erantzuteko.

Hasiera-hasieratik, Olympe de Gougesen estilo originalari leial izaten saiatzea erronka handia izan da guretzat. Pentsatzen dugu egile baten pentsaera transmititzean, edukiari ez ezik, eduki horiek adierazteko formari ere estu lotuta jokatu behar dela. Hartara, gure kezka izan da testu originalarekiko leialtasuna zaintzea ulergarritasunari kalte egin gabe. Azkenik, testua hobeto ulertzen laguntzeko, puntuazioa egokitu dugu eta oin-oharrak ere erabili ditugu.

### 1.- ERREGINARI ESKUTITZA

Andrea,

Erregeei zor zaien hizkerara gutxi egina, ez dut gortesauen lausengua erabiliko ekoizpen bitxi honen eskaintza zuri egiteko. Nire helburua, Andrea, zuri argi eta garbi hitz egitea da; ez naiz egon Askatasunaren garaian zain, hala mintzatzeko: kemen berberaz agertu nintzen despoten itsutasunak hain ausardia noblea zigortzen zuen garaian ere.

Inperio osoak salatzen zintuenean eta haren zorigaitzen erantzule egiten zintuenean, neuk bakarrik, istiluen eta erauntsien garaian, neuk izan dut zure alde ateratzeko indarra. Sekula ezin izan dut sinetsi handitasunen artean hezitako Printzesa batek makurkeriaren bizio guztiak izan zitzakeenik.

Bai, Andrea, ezpata zure gainean jaso ikusi nuenean, nire iruzkinak jaurti nituen ezpata horren eta biktimaren artean; baina, orain, nola ikusten baitut gertu-gertutik antzematen zaiola matxinoen aldrari erosita dagoela eta legeen beldurra geldiarazten duela, esango dizut, Andrea, orduko hartan esango ez nizukeena.

Arrotzak burdina badakar Frantziara, ez zara izango jada nire begietara errua faltsuki egotzi zaion Erregina hori, Erregina egoki hori, baizik eta frantsesen etsai gupidagabea. Ai!, Andrea, egizu kontu ama eta emaztea zarela; erabil ezazu zure itzal guztia Printzeak atzera itzultzeko. Itzal horrek, hain zuhurki erabiliz gero, berretsi egiten du aitaren koroa, semearentzat gordetzen du, eta adiskidetu egiten zaitu frantsesen maitasunarekin. Antolabide duin hori da erregina baten benetako betebeharra. Azpikeriak, aieruek, asmo odoltsuek amilaraziko zintuzkete, halako asmoak izateko gauza zarela sumatuko balitz.

Eginbide nobleago batek, Andrea, bereiz zaitzala, kitzika dezala zure handinahia eta atxiki dezala zure begirada. Halabeharrak leku gailen batera jaso duenari bakarrik dagokio Emakumearen Eskubideen goraldiari indarra ematea eta haren arrakasta bizkortzea. Hain ikasia ez bazina, Andrea, beldur izan nintekeen ez ote zenituzkeen zure interes partikularrak zure sexuкоenen gainetik jarriko. Loria maite duzu; egizu kontu, Andrea, krimenik handienak hilezkor bihurtzen direla, bertuterik handienak bezala. Baina zein handia den aldea, osperei dagokionez, historiaren urte-liburuetan! Bata eredutzat hartzen da betiko; eta bestea, berriz, gaitzetsi egiten du gizateriak, sekulako.

Ez duzu inoiz bidegabekeriarik egingo ohiturak berrezartzen ahalegintzeagatik, zure sexuari izan dezakeen adina sendotasun emateagatik. Eginkizun hori ez da egun bakarreko lana, erregimen berriaren zoritxarrerako. Iraultza hau ez da gorpuztuko, harik eta emakume guztiak beren patu negargarriaz eta gizartean galdu dituzten eskubideez jabetu arte. Emaiozu babes, Andrea, asmo hain eder horri: joka ezazu zorigaitzoko sexu honen alde, eta berehala zureganatuta izango duzu erresumaren erdi bat; eta bestearen herena, gutxienez.

Horra, Andrea, horra zein eginbidetan nabarmendu behar duzun eta erabili behar duzun zure itzala. Sinets iezadazu, Andrea: gure bizitza oso gauza hutsala da, batez ere erregina batentzat, baldin eta bizitza hori herrien maitasunak eta ongi egitearen xarma betierekoek edertzen ez badute.

Egia baldin bada frantses batzuk potentzia guztiak armaz hornitzen ari direla beren aberriaren aurka –zergatik?, pribilegio hutsalengatik, ameskeriengatik–, sinets ezazu, Andrea, sentitzen dudanaren arabera egiten badut nire juzgua, bertatik suntsituko da alderdi monarkikoa, bertan behera utziko ditu tirano guztiak eta bihotz guztiek bat egingo dute aberriaren inguruan, hura defendatzeko.

Horra, Andrea, horra zein diren nire printzipioak. Nire aberriaz ari natzaizunean, galdu egiten dut begien bistatik eskaintza honen helburua. Hala uko egiten dio hiritar on orok bere loriari, bere interesei, bere herriarenak dituenen helburu bakartzat.

Begirune osoz naiz,

ANDREA,

Zure zerbitzari txit apal eta txit esanekoa,

De Gouges.

## **2. EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK**

Gizon, bazara gai zuzena izateko? Emakume batek egiten dizu galdera; ez diozu, behintzat, eskubide hori ukatuko. Esadazu: nor eman dizu nire sexua zapaltzeko botere absolutua? Zure indarrak? Zure talentuek? Erreparatu Kreatzaileari bere jakindurian, zeharkatu natura bere handitasun osoan –harengana hurbildu nahi duzula ematen du eta–, eta emadazu, ausartzen bazara, aginpide tiraniko horren adibidea.

Hartu aintzat animaliak, kontsultatu itzazu elementuak, azter itzazu landareak, emaezu begiratu bat, azkenik, materia antolatua eraldaketa guztiei; eta onartu begien bistakoa dena, horretarako bitartekoak eskaintzen baitizkizut. Bilatu, arakatu eta bereiz itzazu sexuak, ahal baduzu, naturaren banaketan. Nonahi aurkituko dituzu bata bestearekin nahasita, nonahi ari dira batasun harmoniatsuan elkarri laguntzen, maisulan hilezkor honetan.

Gizona bakarrik moldatu da salbuespen hori arau egiteko. Arraroa, itsua, zientziaz puztuta eta, argien eta zuhurtziaren mende honetan, ezjakintasun baldarrenean ustelduta, despota gisa agindu nahi du ahalmen intelektual guztiez jabetu den sexu baten gainean; etekina atera nahi dio Iraultzari, eta beraren berdintasun-eskubideak erreklamatu, gehiago ez esatearren.

## **3.- EMAKUMEAREN ETA EMAKUMEZKO HERRITARRAREN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA**

*Frantziako Biltzar Nazionalak aitor dezan, bere azken bilkuretan edo hurrengo legegintzaldian.*

### **3.1. Sarrera**

Amek, alabek, ahizpek, nazioaren ordezkari gisa, biltzar nazionala osatzeko ardura beren gain hartzea eskatzen dute. Kontuan harturik emakumearen eskubideen gaineko ezjakintasuna, ahanztura edo mespretxua direla zorigaitz publikoen eta gobernuen ustelkeriaren arrazoi bakarrak, erabaki dute adierazpen solemne batean aurkeztea emakumearen eskubide natural, besterenezin eta sakratuak, zertarako eta adierazpen honek gizarte-gorputzeko kide guztiek beti gogoan dutela etengabe gogoratu diezazkien beren eskubideak eta betebeharrak, zertarako eta emakumeen botere-ekintzak eta gizonen botere ekintzak une oro alderatu daitezzen edozein erakunde politikoren xedearekin eta errespetatuagoak izan daitezzen, zertarako eta emakumezko herritarren aldarrikapenak, hemendik aurrera printzipio sinple eta eztaba daezinetan oinarrituak, betiere bidera daitezzen konstituzioa, ohitura onak eta guztien zoriontasuna zaintzera.

### **3.2-ARTIKULUAK**

Ondorioz, bai edertasunean, bai adorean, eta ama-sufrimenduetan gailena den sexuak, Izaki Gorenaren aurrean eta Haren babespean, Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubide hauek aitortzen eta deklaritzen ditu:

1. artikulua. Emakumea aske jaiotzen da, eta gizonaren berdina izaten irauten du eskubideetan. Bereizkuntza sozialek guztion onura beste arrazoirik ezin dute izan.

2. artikulua. Elkarre politiko ororen helburua da Emakumearen eta Gizonaren eskubide natural eta preskribaezinak zaintzea. Askatasuna, jabetza, segurtasuna eta, batez ere, zapalkuntzari aurre egitea dira eskubide horiek.

3. artikulua. Subiranotasun ororen sorburua nazioa da, jatorriz; hau da, Emakumearen eta Gizonaren bilkura, besterik ez: ezein gorputzek, ezein gizabanakok ezin du erabili autoritaterik, berariaz handik eratorria ez bada.

4. artikulua. Askatasunaren eta justiziaren funtsa da dagokien guztia ematea besteei. Hala, emakumea eskubide naturalez baliatzeak ez du beste mugarik, gizonak aurka jartzen dion tirania iraunkorraz haratago. Naturaren eta arrazoiaren legeek zuzendu behar dituzte muga horiek.

5. artikulua. Naturaren eta arrazoiaren legeek debekatu egiten dituzte gizartearentzat kaltegarriak diren ekintza guztiak; ezin da eragotzi lege jakintsu eta jainkotiar horiek debekatzen ez duten ezer, eta inor ezin da behartu lege horiek agintzen ez dutena egitera.

6. artikulua. Legeak guztion borondatearen adierazpena izan behar du. Emakumezko eta Gizonezko Herritar guztiek parte hartu behar dute haren eraketan, zuzenean edo ordezkarien bidez. Hark berdina izan behar du guztientzat. Emakumezko eta Gizonezko Herritar guztiek, legearen begietara berdina direnez, era berean onartuak izan behar dute dignitate, plaza eta enplegu publiko guztietan, bakoitza bere gaitasunen arabera, eta haien dohain eta talentuek ezarritakoez kanpoko bestelako bereizkuntzarik gabe.

7. artikulua. Ezein emakume ez dago salbuetsita legeak zehazten dituen kasuetan akusatua, atxilotua eta atzemana izatetik. Emakumeek gizonak bezala obeditzen diote Lege zorrotz horri.

8. artikulua. Legeak ez ditu ezarri behar zeharo eta zalantzarik gabe beharrezkoak diren zigorrak baizik; eta ezin da inor zigortu, ez bada delituaren aurretik ezarritako eta iragarritako eta arauz emakumeei ere ezarritako Lege baten arabera.

9. artikulua. Legeak zorrotasun osoz zigortuko du edozein emakume, erruduntzat joz gero.

10. artikulua. Ezin da inor estu erabili bere iritziengatik, landugabeak badira ere. Emakumeak urkamendira igotzeko eskubidea du; berdina izan behar du Tribunara igotzeko eskubidea ere, betiere baldin eta haren adierazpenek Legeak ezarritako ordena publikoa nahasten ez badute.

11. artikulua. Pentsamenduak eta iritziak askatasunez komunikatzea emakumearen eskubide preziatuenetariko bat da, zeren askatasun horrek bermatzen baitu gurasoen seme-alabekiko legimitatea. Emakume herritar orok esan dezake, beraz, "zurea den haur baten ama naiz", aurreiritzi zaharkitu bat dela-eta egia ezkututzen ibili beharra izan gabe; baina, askatasun hortaz gaizki baliatuz gero, bere gain hartuko du ardura, Legeak hala ezarritako kasuetan.



12. artikulua. Emakumearen eta Emakume Herritarraren eskubideen bermeak onura handiagoa eragin behar du: berme hori guztion mesederako ezarri behar da, eta ez ematen zaien haien onura partikularrerako.

13. artikulua. Emakumearen eta gizonaren zerga-ekarpenak berdinak dira, bai indar publikoaren mantenturako, bai administrazio gastuetarako. Emakumea partaide da karga guztietan, lan nekagarri guztietan; beraz, [gizonaren] parte hartze berbera izan behar du lanpostuak, enpleguak, karguak, dignitateak eta negozioak banatzean.

14. artikulua. Emakumezko eta Gizonezko Herritarrek eskubidea dute beren kabuz edo ordezkarien bidez egiaztatzeko zerga publikoa beharrezkoa den. Emakumezko herritarrak ezin zaizkio zerga horri lotu, baldin eta –ondareari dagokionez ez ezik, haren administrazio publikoari dagokionez ere– berdintasunean banatzea onartzen ez bada eta zergaren kuota, oinarria, bilketa eta iraupena zehazten ez badira.

15. artikulua. Emakumeen multzoak, gizonen multzoarekin bat eginik baitago zergei dagokienez, eskubidea du edozein funtzionario publikori haren administrazio eginbideez kargu hartzeko.

16. artikulua. Eskubideen bermea eta botereen banaketa ziurtatuta ez dituen gizarte orok ez du konstituziorik. Konstituzioa baliogabea da, baldin eta Nazioa osatzen duten gizabanakoek gehiengoak erredakzioan parte hartu ez badu.

17. artikulua. Jabetzak sexu guztiei –elkarturik zein bereizita– dagozkie: eskubide ukiezina eta sakratua dira norbanakoarentzat. Inori ezin zaizkio erauzi, naturaren egiazko ondarea baitira, baldin eta beharizan publikoak, legez egiaztatuta, argi eta garbi eskatzen ez badu behintzat, eta alde zuzenetik kalte-ordain justua emateko baldintzapean ez bada.

#### **4.- Hitzatzea**

Emakumea, esna zaitez; unibertso osoan entzuten da arrazoiaren deia; ezagutu itzazu zure eskubideak. Naturaren aginte ahaltzua ez dago jada aurreiritziz, fanatismoz, sineskeriaz eta gezurrez inguraturik. Egia zuzena uxatu egin ditu erregulazioaren eta usurpazioaren hodei guztiak. Gizon esklaboak biderkatu egin ditu bere indarrak; zugana jo du bere burdinak hausteko. Behin libre bihurtuta, bidegabekeria bihurtu da lagunarekin. O, emakumeok!, emakumeok, noiz utziko diozue itsu egoteari? Zer abantaila eskuratu dituzue Iraultzan? Mespretxu are nabarmenagoa, destaina are handiagoa. Ustelkeriaren mendeetan, ez duzue aginpiderik izan gizonen ahulezian izan ezik. Zuen agintaritza suntsituta dago; zer geratu zaizue, bada? Gizonaren bidegabekeria ziurtatuta ematea. Zuen ondarea erreklamatu, naturaren dekretu jakintsuetan oinarritua baitago; zer izutu beharko zintuzkete, horren eginkizun ederrari ekiteko? Kanaango ezteietako Legegilearen hitz zuzenak? Beldur zarete gure Legegile Frantsesek, sasoi kanpokoak izan arren politikaren adarretatik luzaroan tinko atxikita izan den moral horren zuzentzaileek, ez ote dizueten berriro esango: emakumeak, zertan gara berdinak zuek eta gu? *Denean*, erantzun beharko zenukete. Haien, beren ahulezian, kontsekuentzia falta hori beren printzipioekin kontraesan jartzen tematzen badira, ausarki kontrajar iezaiezue arrazoiaren indarra nagusitasun-asmo hutsalei, bil zaitezte filosofiaren banderaren azpian, zabaldu zuen nortasunaren kemen guztia; eta laster ikusiko dituzue harroputz

horiek ez zuen oinpean herrestan morroi gurtzaile gisa, baizik eta harro Izaki Gorenaren altxorrak zuokin banatzeaz. Jartzen dizkizueten hesiak edozein direla ere, zuon esku dago haiek zeharkatzea: nahikoa duzue hala nahi izatea. Heldu diezaiogun, orain, gizartean izan zaretenaren koadro beldurgarriari; eta, une honetan hezkuntza nazionala eztabaidagai denez, ikus dezagun ea gure Legegile jakintsuek zentzuz pentsatzen duten emakumeen heziketaz.

Emakumeek txarretik egin dute, onetik baino gehiago. Hertsatzea eta disimulua banatu dituzte. Indarrak harrapatu ziena, maltzurkeriak eman die bueltan; haien xarmei dagozkien aukera guztiez baliatu ziren, eta gizon eredugarrienak ere ez zitzaizkien gogortzen. Pozoia, burdina, dena zuten haien mendeko; haiek ziren nagusi, krimenean zein bertutean. Frantziako gobernua, batik bat, emakumeen gaueko administrazioaren esku egon da, mendeetan; kabineteak ez zuen sekreturik haien jakingurarako. Enbaxada, komandantzia, ministerioa, lehendakaritza, pontifikatua, kardinalgoa..., finean, gizonen ergelkeriak, –profanoak zein sakratuak– berezkoa duen guztia, dena egon da behinola arbuiagarria eta errespetatua izaki iraultzaz geroztik errespetagarria eta arbuiatua den sexu horren anbizioaren mende.

Antitesi moduko horren harian, zenbat ohar ez ote nituzkeen egingo! Une bat besterik ez dut haiek egiteko, baina une horrek etorkizun urrunenaren arreta erakarriko du/une horretan zorrotz jarriko ditu begiak etorkizun urrunenak. Antzinako erregimenaren mendean, dena zen biziotsua; baina ezin izango genuke bizioen substantzian<sup>8</sup> bertan gauzen hobekuntza hauteman? Emakume batek ederra edo atsegina izatea besterik ez zuen behar; bi abantaila horien jabe izanez gero, ehun aberats handi ikusten zituen bere oinetan. Hark, aprobetxatzen ez bazuen, nortasun arraroa bazuen –edo aberastasunak arbuiatzera eramaten zuen filosofia ez oso arrunta–, orduan, buru txarrekoztat jotzen zuten, besterik gabe. Emakume lotsagabeenak errespetatua izatea lortzen zuen, urrearekin. Emakumeen salerosketa industria<sup>9</sup> moduko bat zen, gorengo klasean onetsia, aurrerantzean onarpenik izango ez duena. Hala eta guztiz ere izango balu, galdua litzateke iraultza, eta, harreman berrien azpitik, ustelkerian jarraituko genuke oraindik. Hala ere, arrazoa ezkutatu daiteke, baldin eta aberasteko beste edozein bide ixten baldin bazaio gizonak Afrikako kostaldeetako esklaboa balitz bezala erosi<sup>10</sup> duen emakumeari. Aldea handia da; ondotxo dakigu. Esklaboa da nagusiaren agintari<sup>11</sup>; baina nagusiak askatasuna ematen badio –saririk gabe– esklaboak xarma guztiak galdu dituen adin batean, zer bihurtzen da emakume zorigaitzoko hori? Mespretxuaren jostailu; itxi egiten zaizkio ongintzaren ateak berak ere. "Pobrea eta zaharra da", esaten da, "zergatik ez du jakin ondasunak biltzen?". Beste adibide batzuk, are hunkigarriagoak, agertzen zaizkio arrazoiari. Esperientziarik gabeko neska gazte batek, maite duen gizon batek limurtuta, abandonatu egingo ditu gurasoak haren atzetik joateko; urte batzuen buruan, utzi egingo du esker txarrekoak; eta, zenbat eta gehiago zahartu haren ondoan, orduan

---

<sup>8</sup> Hau da, Antzinako Erregimenean ezkontza salerosketa hutsa zela salatzen du Olympe De Gougesek, hots, gizonetako ezkontzaren bidez legezkoa bihurtzen zutela *bizioa*, biziotsuak jota emakumearen edertasunaren eta sexualitatearen salerosketa.

<sup>9</sup> Maltzurkeria, azpijokoa, maniobra.

<sup>10</sup> Haren bikotekide-ohiari eta harekin izandako seme-alabei egiten die aipamen hemen.

<sup>11</sup> Gizonarekin diru truk ezkonduko emakumeak aginpidea du bere babeslearen gainean –hark desiratzen duelako–, esklaboek beren jabeen gainean ez bezala.

eta ankerragoa izango da haren aldakortasuna<sup>12</sup>. Emakumeak seme-alabak izan arren, berdin abandonatuko du. Gizona aberatsa bada, pentsatuko du salbuetsita dagoela ondasunak bere biktima nobleekin<sup>13</sup> banatzen. Konpromisoren batek bere betebeharrak lotzen badu, urratu egingo du hark agindutakoa, legeen aldetik guztia igurikiz. Ezkontuta badago, beste edozein konpromisok galdu egiten ditu eskubideak. Zer lege egin beharko lirake/lege egitea falta da, bada, bizioa errotik erauzteko? Ondasunak gizonen eta emakumeen artean banatzeko eta administrazio publikoarena. Erraz ulertzen da familia aberats batean sortu den emakumeak asko irabazten duela banaketak berdintasunez egitearekin. Baina familia pobre batean, merituarekin eta dohainekin, jarioak zer sari du? Pobrezia eta laidoa. Musikan edo pinturan gailentzen ez bada, ez du sarbiderik izango ezein funtzio publikotan, horretarako gaitasun osoa izan arren. Ez dut eman nahi gauzen ikuspegi orokorra baizik: ene lan politiko guztien edizio berria sakonduko dut haietan, egun batzuen buruan publikoari emateko asmotan bainaiz, ohar batzuekin.

Berriro helduko diot ohituren gaineko nire testuari. Ezkontza konfiantzaren eta maitasunaren hilobia da. Emakume ezkonduak zigorrik gabe eman diezazkioke sasiko haurrak senarrari; eta haiei, ez dagokien fortuna. Ezkontuta ez dagoen emakumeak eskubide ahul bat besterik ez du: lege zahar eta ankerrek ukatu egin zioten aitaren abizenari eta ondasunei buruzko eskubide hori, seme-alabentzat; eta ez da egin lege berririk gai horretaz. Nire sexuari sendotasun ohoragarria eta zuzena eransteko asmorik gabe ere, une honetan kontsideratzen baita nire aldetik paradoxa bat dela eta ezinezkoan saiatzea dela, etorkizuneko gizakiei uzten diet gai hau jorratzeko loria; baina, bien bitartean, presta daiteke heziketa nazionalaren, ohiturak berrezartzearen eta ezkontza-konbentzioen bidez.

## **5.- GIZONAREN ETA EMAKUMEAREN KONTRATU SOZIALAREN FORMA**

N eta N<sup>14</sup>, geure borondateak eraginda, bizitzaren amaiera arte elkartzen gara eta gure elkarrenganako zaletasunak irauten duen arte, honako baldintza hauetan: komunitate gisa kontsideratzen ditugu eta jarri nahi ditugu gure ondasunak, gorderik halere gure seme-alaben eta gure mentuz bereziki gogoko izan ditzakegun haien alde banatzeko eskubidea, bata besteari onartuz gure ondasuna gure seme-alabei dagokiela, zuzenean, edozein ohetatik sortuak direla ere, eta denek, bereizketarik gabe, berdin berdina dutela eskubidea seme-alabentzat aitortu dituzten aiten eta amen abizena eramateko, eta geure burua behartzen dugu norbere odola ukatzea zigortzen duen legea onestera. Era berean, geure burua behartzen dugu ezkontza-hautsiz gero gure ondasunak banatzera, eta gure seme-alaben parte deskontatzera, legeak adierazitako neurrian; eta, elkartzea perfektua balitz, hiltzen den ezkontideak utzi egingo luke jabetzen erdia bere seme-alaben alde; eta, ezkontideren bat seme-alabarik gabe hilez gero, bizirik irauten duenak jasoko luke eskubidea, hildakoak ondasun komunaren erdia berak egoki iritzi dion norbaiti emateko agindu ezean.

---

<sup>12</sup> Gizonaren iritzi-aldaketari egiten dio erreferentzia hemen: hasierako liluraren ostean gizona emakumeaz nekatzeari.

<sup>13</sup> Gizonaren bikotekide-ohia eta harekin izandako seme-alabak.

<sup>14</sup> N jartzen duen lekua ezkontideen izenekin ordezkatu beharra dago.

Horra hor, gutxi gorabehera, egikaritzea proposatzen dudan ezkontza-agiriaren formula. Idazki bitxi hau irakurtzean, ikusten dut kontra etorriko zaizkidala tartufoak, santujaleak, kleroa eta infernuko segizio guztia. Baina zenbat eskainiko dien baliabide moraletan adituei, gobernu egoki baten hobegarritasunera iristeko! Hitz gutxitan emango dut horren froga fisikoa. Umerik gabeko aberats epikurotarrari oso egokia iruditzen zaio bere bizilagun behartsuarengana joatea, familia handitzeko. Behartsuaren emazteari seme-alabak aberatsari adopzioan emateko eskumena ematen dion lege bat izaten denean, estuagoak izango dira gizarte-loturak, eta ohiturak garbiagoak. Lege horrek babestu egingo du, agian, komunitatearen onura, eta neurrira ekarriko du hainbeste biktima laidoaren, doilorkeriaren eta giza printzipioen endekapenaren hospizioetara eramaten dituen desordena, natura aspalditik intzirika ari baita haietan. Utzi diezaiotela, beraz, Filosofia onuragarriaren kontrakoek jatorrizko ohituren aurka oihukatzeari, edo doazela beren aipuen iturburuan galtzera.

Lege bat nahi nuke, gainera, mesede egingo liekeena alargunei eta gizon bati lotuta daudela haren promesa faltsuek engainatuak izan diren neskatilei. Nahi nuke, berriro diot, lege horrek behartu dezala aldabera bere promesei eustera edota bere aberastasunen neurriko kalte-ordaina ordaintzera. Nahi nuke, halaber, lege hori zorrotza izan dadila emakumeen kontra ere, gutxienez haien jokabide okerrarekin legea hautsi eta gero haiek berek legearen babesa eskatzeko atrebentzia luketenen kontra, baldin eta horren frogarik bada. Nahi nuke, era berean, *Le Bonheur primitive de l'homme* liburuan, 1788an, azaldu nuen bezala, neskatila publikoak auzo hautatueta kokatuak izatea. Ez dira emakume publikoak ohiturak galbidean jartzeko gehien egiten dutenak, jendarteko damak baizik. Azken horiek eraberrituta, eraldatu egiten dira lehenak. Senidetasunezko elkartasun-kate horrek desordena eragingo du, lehenengotan; baina, azkenean, batasun perfektua ekarriko du.

Bitarteko ezin hobea eskaintzen dut emakumeen arima altxatzeko: [emakumeek] gizonaren jardun guztiekin bat egitea. Gizona bitarteko hori bideratu ezinezkotzat jotzen tematzen bada, banatu dezala bere ondasuna emakumearekin; baina ez berak nahi bezala, baizik eta legeen zuhurtziaren arabera. Aurreiritzia eraitsita, garbitu egiten dira ohiturak, eta naturak berreskuratu egiten ditu eskubide guztiak. Gaineratu horri apaizen ezkontza: Erregea, bere tronuan indartuta, eta gobernu frantsesa ez litzateke engoitik galduko.

Oso beharrezkoa zen nik hitz batzuetan adieraztea zer eratako nahasmenduak eragiten dituen, esan dezagun, beltzen<sup>15</sup> aldeko dekretuak, gure uharteetan. Han egiten du dardar naturak, ikaratuta; han ez dituzte oraindik ukitu arrazoimenak eta gizatasunak arima gogortuak; han, batez ere, astintzen dituzte zatiketak eta liskarrek bertako biztanleak. Ez da zaila asmatzen nor diren irakin horri su eman dioten zirikatzaileak. ÷ Biltzar Nazionalaren barnean bertan ere, badira batzuk: European pizten dute Amerika kiskali behar duen sua. Kolonoek despota gisa agindu nahi dute gizonen gainean, nahiz eta haien aitak eta anaiak izan; eta, naturaren eskubideak aintzat hartu gabe, jazarri egiten

---

<sup>15</sup> Testu originalean, ziurrenik errespetua adierazi nahian, Olympe De Gougesek *hommes de couleur* esaten du, hots, *gizon koloredunak*, "beltzak" esan beharrean. Gaur egun, era horretako esamoldeak baztertu egin ditugu, gizaki guztiak baikara koloredunak; eta errespetua adierazteko *beltz* hitza erabiltzen da besterik gabe.

zaizkio sorburuari, odolaren kutsu txikieneraino. Kolono anker horiek esaten dute: gure odola haien zainetan zehar dabil, baina guk dena isuriko dugu, hala behar izanez gero, gure diru-gosea edo gure anbizio itsua asetzeko. Hor, naturatik hurbilen dauden leku horietan, aitak ezezagutu egiten du semea; odolaren garrasiei entzungor eginez, ito egiten ditu haren xarma guztiak. Zer espero daiteke horri kontra egiten dion erresistentziatik? [Erresistentzia] Indarrez zapaltzea, ikaragarrikoa bihurtaraztea da; areago, burdinaz kateatuta uztea, zorigaitz guztiak Amerikara bideratzea da. Ematen du jainkozko esku batek nonahi banatzen duela gizakiaren ondarea, *askatasuna*; legeak bakarrik du askatasun hori erreprimitzeko eskubidea, hura lotsagabekeria bihurtzen bada. Baina [legeak] berdina izan behar du guztientzat; hark, batez ere, bridatu behar du Biltzar Nazionala bere dekretuan, zuhurtziaren eta justiziaren k agindupean. Posible du hark [legeak] Frantziako estaturako berdin jokatzera, eta abusu berriei hain arreta handia jartzea nola jarri dien abusu zaharrei, egunetik egunera izugarriago bihurtzen ari baitira! Orain ere, nire iritzia litzateke botere exekutiboa botere legegilearekin adiskidetzera, iruditzen baitzait bata dena dela eta bestea ez dela ezer. Hor sortuko da, agian zoritxarrez, Frantziako Inperioaren galera. Bi botere horiek gizona eta emakumea bezala kontsideratzen ditut, elkaturik egon behar baitute, baina indarrean eta bertutean berdinak izanik, bikote ona osatzeko.

Egia da, beraz, inork ezin diola ihes egin zoriari: gaur izaten ari naiz esperientzia hori. Deliberatu eta erabaki nuen ez niola utziko nire buruari ekoizpen honetan irri egiteko hitz bakar bat erabiltzen. Baina zoriak bestela erabaki du: hona hemen gertaturikoa. Ekonomia ez da defendatzen, batez ere miseria garai hauetan. Landa-inguruan bizi naiz. Gaur goizean, zortzietan, Auteuiletik abiatu naiz eta Parisetik Versaillesera daraman errepidera joan naiz, non maiz aurkitzen baitira bidariak prezio merkean jasotzen dituzten ostatu famatu horiek. Dударik gabe, izar gaizto bat zebilkidan atzetik segika, goizetik. Iritsi naiz hesira, eta ez dut aurkitu han ezta zalgurdi aristokrata<sup>16</sup> tristea ere. Morroi batzuei estalpea ematen dien eraikin harrigarri baten eskaileretan hartu dut atsedean. Bederatziak jotzen ari dira, eta nik aurrera egin dut nire bidean: auto bat agertu zait begien bistan, eseri egin naiz, eta bederatziak eta laurdenetan iritsi naiz, bi erlojuren arabera, Pont Royalera. Gurdia hartu eta arrapaladan joan naiz nire Inprimatzailearenera, Christine kalea, zeren ezin bainaiz hara agertu goizean goizetik ez bada. Nire probak zuzendu ondoren, beti izaten dut oraindik zer egina, orriak ondo estututa eta osatuta ez badaude behintzat. Hogei minutu inguru eman ditut han; eta, ibilaldiaz, konposizioaz eta inprimaketaz nekatuta, *Templeko* auzora bainua hartzera joateko burubidea hartu dut, bertan afaltzekoa baintzen. Hamaikak laurden gutxiagotan iritsi naiz, bainuetxeko erlojuaren arabera: ordu eta erdi zor nion, hortaz, gurdizainari, baina, harekin liskarrik ez izateko, 48 sol eskaini dizkiot. Hark gehiago eskatu du, ohi bezala: iskanbilan hasi da. Tematu naiz hari zor zaiona besterik ez diodala eman nahi, zeren pertsona zuzenak nahiago baitu eskuzabala izan iruzurtua izan baino. Mehatxu egin diot legearekin, eta esan dit bost axola zaiola eta bi ordu ordainduko dizkiodala. Bake-komisario batengana iritsi gara. Ez dut haren izena emango, eskuzabal jokatzeko, nahiz eta hark nirekin baliatu duen aginte-egintzak salaketa formala merezi

---

<sup>16</sup> Frantsesez *sapin* hitza erabiltzen du Olympe de Gougesek (euskaraz *izei* esan nahi du). Hitz horrekin, zalgurdi edo karroza publikoei egiten zitzairen aipamen hizkera herrikoian. "Aristokrata" izenlagunarekin, ziurrenik, garraio-mota horietan joatea zer-nolako *luxua* zen azpimarratu nahiko zuen Olympe de Gougesek, umorea erabiliz.

izan. Seguru asko, hark ez zekien justizia eskatzen zion emakume hura hainbeste ongintzaren eta ekitateren egilea den emakumea zenik. Nire arrazoiei jaramonik egin gabe, erruki gabe kondenatu nau gurdizainari hark eskatzen zuena ordaintzera. Legea hark baino hobeki ezagutzen dudanez, esan diot: “Jauna, uko egiten diot horri, eta arren eskatzen dizut kontuan izan dezazula zure karguari dagokion printzipiotik kanpo ari zarela”. Orduan, gizon hori, edo, hobeki esateko, zoro hori, sumindu egin da, eta mehatxu egin dit *Force*arekin<sup>17</sup>, momentuan ordaintzen ez badut, edo egun osoa haren bulegoan geratzearekin. Departamenduko epaitegira edo udaletxera eramateko eskatzen diot, kexa jarri behar baitut haren aginte-kolpea dela eta. Magistratu benbenak –haren solasa bezain hautseztatua eta nazkagarria den toga batez jantzia– esan zidan, modu xelebrea: *Kontu hau seguru asko Biltzar Nazionalera joango da, ezta? Litekeena da*, esan nion, eta alde egin nuen, erdi haserre eta erdi barrez, *Bride-Oison*<sup>18</sup> moderno haren epaiarengatik, esanez: *beraz, hori da herri ilustratu bat epaitu behar duen gizon-klasea!* Hala ematen du. Halako abenturak berdin gertatzen zaizkie patriota onei zein gaiztoei. Ahobatezko deiadarra dago departamendu eta auzitegietako gehiegikeriez. Ez da justiziarik egiten; legea ez da aintzat hartzen; eta polizia egiten ari da, Jainkoak daki nola. Dagoeneko ezin da aurkitu gurdizainik norberaren gauzak haren ardurapean uzteko modukorik; trukatu egiten dituzte zenbakiak, iruditzen zaien eran; eta nire moduko hainbat pertsonak galera handiak izan dituzte ibilgailuetan. Antzinako erregimenaren mendean, lapurreta edozein izanda ere, aurkitzen zen galdutakoaren arrastoa, gurdizainei dei nominala eginez eta zenbatekoak zehatz ikuskatuta. Tira, seguru geunden. Zer egiten dute bake-epaile horiek? Zer egiten dute komisario horiek, erregimen berriko inspektore horiek? Txorakeriak eta monopolioak, besterik ez. Biltzar Nazionalak arretea osoa jarri behar du gizarte-ordena biltzen duen alde horretan.

P.S. Obra hau duela egun batzuk konposatu zen; baina inprimaketan are gehiago atzeratu zen, eta Talleyrand jaunak –etorkizunerako beti maitatua izango da haren izena– hezkuntza nazionalaren printzipioei buruzko bere lana eman zuen unean bertan, produkzio hau prentsan sartuta zegoen jada. Zoriontsu, hizlari horren ikuspuntuak ezagutu izanaz! Hala ere, ezin izan diot nire buruari eragotzi prentsa geldiaraztea eta nire bihotzak sentitu zuen pozari eztanda egiten uztea, erregeak Konstituzioa onartu zuelako eta Biltzar Nazionalak aho batez amnistia orokorra aldarrikatu zuelako berriarekin, gaur egun maite baitut, Maury abadea barne, eta La Fayette, jainko bat izaki. Jainkoaren Probidentzia, egin ezazu poz publiko hori ez dadin izan ilusio faltsu bat! Bidaliezazkiguzu bueltan, gorputzez, gure iheslari guztiak; eta nik, herri maitekor batekin, haren urratsaren gainean hegan egin ahal izan dezadala; eta, egun handi horretan guztiok egingo diogu gorazarre zure ahalmenari.

---

<sup>17</sup> Frantsesez *de la Force* idazten du egileak. *Force* hitzak frantsesez ‘indar’ esanahia badu ere, hemen, *Force* izeneko espetxe bati aipamen egiteko ere erabiltzen du *Olympe de Gouges*ek. Argi dago hitzaren zentzu figuratiboarekin jokatzeko duela.

<sup>18</sup> *Figaroren ezkontzan*, Beaumarchaisek *Bridoisson* izena ematen dio Antzinako Erregimenaren gaitzen sinbolo den epaile irriarri eta total bati. “*Oison bridé*” bi zentzutuan erabiltzen da frantsesez: batetik, kaiolatik ihes egin ez dezan hegoak moztu dizkieten txoria izendatzeko (Laboaren *Txoria* ez bezalako), eta, bestetik, zentzu figuratuan, adimen gutxiko pertsona izendatzeko.

### 3. MARY WOLLSTONECRAFT

#### 3.1. MARY WOLLSTONECRAFT BIZITZA ETA OBRA (1759-1797)

##### 3.1.1. NOLA BILAKATU ZEN MARY WOLLSTONECRAFT IDAZLE

Mary Wollstonecraft (1759-1797) idazle eta filosofo britainiar ospetsua izan zen; historiako lehen feministetako bat izateak eman dio ospea. Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren defentsan oinarritu zen haren pentsamendua, emakumeek oso estatus sozial eta legal mugatua zuten garaian.

Hona hemen haren bizitzaren alderdi aipagarrien laburpena:

Mary Wollstonecraft 1759ko apirilaren 27an jaio zen, Spitalfieldsen, Londresen, klase ertaineko familia batean. Hainbat anai-arreba izan zituen, eta haren familiak finantza-arazoak izan zituen hura haurra zelarik. Mary Wollstonecraft (1759-1797) Haurtzaro zaila izan zuen, aitaren indarkeriaren eta amaren mendekotasunaren eraginez. Hamasei urte zituela, Mr. Clare abadea eta Miss Frances Blood, Fanny, ezagutu zituen. Emakume hark, Mary baino bi urte nagusiagoa, Arte Ederren mundua ezagutarazi zion Mary Wollstonecrafti, eta adiskidetasun sakona izan zen haien artean Fannyren heriotza arte.



Ez zuen hezkuntza formala izateko aukerarik izan, baina irakurtzeko eta modu autodidaktikoan ikasteko grina bizia izan zuen. Horrek txikitatik bizitza intelektual aktiboa izatera eraman zuen.

Ama hil ondoren, familiaren ardura hartu behar izan zuen, hemeretzi urterekin, eta irakasle partikular gisa lan egin zuen, familiari eusteko. 1784an, neskentzako eskola bat sortu zuen Newington Greenen. Han ezagutu zituen, besteak beste, Joseph Johnson eta Richard Price intelektual erradikalak. Pentsalari horiek eragin handia izan zuten haren ideia politiko eta erlijiosoetan.

##### 3.1.2. MARY WOLLSTONECRAFT IDAZLE ETA ITZULTZAILE

1787an, Londresera joan, eta idazteari ekin zion. Idazle ez ezik, itzultzaile ere aritu zen frantsesa eta alemana ikasi ondoren. Hainbat testu itzuli zituen: besteak beste, Jacques Neckerren *Iritzi erlijiosoen garrantziaz* eta Christian Gotthilf Salzmannen *Umeekin aritzeko moraltasun elementuak*. Johnsonen *Analytical Review* aldizkarirako aipamenak ere idatzi zituen.

Wollstonecraften unibertso intelektualak zabaltzeko egin zen garai hartan, alde batetik, idazten zituen erreseinak garatzeko egiten zituen irakurketek aberastu zutelako, eta, bestetik, Johnsonek antolatzen zituen afari ospetsuetan garai hartako intelektualak, hala



nola Thomas Paine iraultzailea eta William Godwin filosofoa (gerora bere senar izango zena), ezagutzeko aukera izan zuelako.

Eleberriak eta saiakerak idatzi zituen. Haren lehen lan garrantzitsua *Alaben Heziketari buruzko Gogoetak (Thoughts on the Education of Daughters)* (1787) izan zen, emakumeen heziketari buruzkoa. Lan horren ondoren idatzi zituen *Maria, fikzio bat (Mary: A Fiction)* (1788) eta *Gizonen eskubideen erreibindikazioa (A Vindication of the rights of Men)* (1790). 1792an, *Emakumearen eskubideen erreibindikazioa (A Vindication of the Rights of Woman)* argitaratu zuen. Lan horrek izan du, haren lanen artean, eragin handiena; eta, feminismoaren historian, mugarriztat jotzen da. Liburu horretan, gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna defendatu zuen, batez ere hezkuntzaren arloan. Kritikatu egin zuen emakumeei ematen zitzaien heziketa tradizionala, mendetasunean eta koketerian oinarritua; eta heziketa arrazionala proposatu zuen, bertutean, independentzian eta herritartasunean oinarritua.

Garai hartan, Mary maitasun erromantikoaren mende erori zen: maitemindu eta Henry Fuseli margolaria konkistatu zuen. Arazoa? Fuseli ezkondu zegoela. Baina hori ez zitzaion oztopoa iruditu filosofoari; eta hirurak elkarrekin bizitza planteatu zien Fuseliri eta haren emazteari, halako maitasun-triangelu batean ados jarrita. Ideiak izutu egin zituen, bai margolariaren emaztea, bai margolaria bera ere; eta Mary uzteko erabakia hartu zuen. Eta, ez hori bakarrik, zurrumurrua hirian zabaldu zen; eta horrek umiliazio publikoa ekarri zion Maryri. Egoera horren aurrean, erabaki bat hartu zuen: interesgarriagoa eta anonimoagoa izango zitzaion beste leku batera aldatzea.

## 3.2. TESTUINGURU HISTORIKOA

1792ko abenduan, Luis XVI.a guillotinatua izan baino hilabete bat lehenago edo, Wollstonecraft Frantziara joan zen eta garaiko ekitaldi politikoetan murgildu zen. Horrek eragina izan zuen haren iritzi politikoetan eta ondorengo lanetan. Giro hartan, Gilbert Imlay idazle eta abenturazale estatubatuarrekin maitemindu zen, eta alaba bat izan zuen: Fanny. Hala ere, Imlay abandonatu egin zuen, eta Wollstonecraft bi aldiz saiatu zen bere buruaz beste egiten.

1796an, Ingalaterrara itzuli eta indartu egin zen William Godwin filosofoarekiko adiskidetasun-harremana. 1797an, Godwinekin ezkondu eta alaba bat izan zuten: Mary, gerora *Frankenstein* eleberriaren egilea izan zena. Zoritxarrez, alaba erditu eta handik gutxira hil zen Mary Wollstonecraft: 1797ko irailaren 10ean.

### 3.2.1. FRANTZIAKO IRAULTZAREN ERAGINA MARY WOLLSTONCRAFTENGAN

Frantziako Iraultza (1789) etentzat, atalasetzat eta iraganarekiko hausturatzat hartu zuten garaiko intelektual erradikal politiko gehienek. Iragan horri Antzinako Erregimena deitu zioten iraultzaileek. Frantziako Iraultzak, definizioz, monarkia despotikoa suntsitzea zekarren: aldatu nahi zuen estatua, despotismotik askatasunerako igarobidea eginez; eta aldatu nahi zuen gizabanakoa bera ere, meneko izateari utzi eta hiritar bihurtuta. Frantziako iraultzaren sasoi hura ekintzaren eta historiaren eredu berria bihurtu zen; eta gizonen eta emakumeen borondateak denboran ezarritako mugarri bat izan zen, handik aurrera etorkizun politiko eta sozial guztiz berria planteatu baitzuen.

Mary Wollstonecraftek berehala bereganatu zituen iraultzaileek Antzinako Erregimenaren aurka egiteko erabiltzen zituzten kontsigna ilustratuak; eta, haiez jabetu ondoren, berriz landu zituen sexuen arteko desberdintasunaren ikuspegitik koherentziarik ez zutela salatzen. Haren papera ez zen ikusle pasiboarena izan; aitzitik, bete-betean sartu zen eztabaidan. Eta, gizonezko liberal erradikalek ez bezala, iraultzaren printzipioak sexu bientzat osorik gauzatzea eskatu zuen, emakumeen mesederako ere izan behar zuen mundu berri bat eraikitzen. Wollstonecraftentzat, eskakizun hori zentzuzko kontua zen, hain zuzen ere «zentzu ona»-ri eta aurreiritzietatik aske epaitzeko eta arrazoitzeko gaitasun autonomoari zegokiena.

Mary Wollstonecraftek Nicolas de Caritaten, hots, Condorceten, lana irakurri zuen; zehazki, 1787ko *New-Haveneko burges baten eskutitzak Virginiako herritar bati, botere legegilea gorputz askoren artean partekatzearen alferrikakoaz (Lettres d'un bourgeois de New-Haven à un citoyen de Virginie, sur l'inutilité de partager le pouvoir législatif entre plusieurs corps)* eta 1790eko *Emakumezkoei herritartasun eskubidea aitortzeari buruzkoa (Sur l'admission des femmes au droit de cité)*. Hala, Condorceten lan horien eraginez eta Thomas Paine bultzatuta, *Emakumearen eskubideen erreibindikazioa* idatzi zuen, sei aste eskasean.

Beraz, *Emakumeen eskubideen erreibindikazioa* testuinguru iraultzaile horren emaitza da, neurri handi batean, Frantziako estatu-nazio berrian heziketaz izaten ari ziren aldaketa eta eztabaida garrantzitsuek eragindakoa.

Wollstonecraften aldarria emakumeen arazoetatik haratago joan zen: klase altuen pribilegioen auzia eta esklabotzaren problematikak ere jorratu zituen, labor bada ere, eta menderatze sexualarekin lotu zuen esklabotza. Moira Fergusonen arabera, Wollstonecraftek parekatu egiten ditu zapalketa patriarkalaren aurkako emakumeen erresistentzia eta esklabismoaren aurkako mugimendua.

### 3.2.2. MARY WOLLSTONECRAFTEN LANAREN ERAGINA ETA HARRERA

Haren heriotzak zirrara handia eragin zuen mundu intelektual eta literarioan. Izan ere, *Emakumeen Eskubideen Erreibindikazioa* lanak kritika onak jaso zituen argitaratu zenean, eta *bestseller* bihurtu zen. Ondorengo urteetan, ordea, lanak gaitzespena jasan zuen. Arrazoia? Wollstonecraften senarrak *Emakumeen Eskubideen Erreibindikazioaren egilearen memoriak* deritzon lana argitaratu zuela eta, *Memoria* horietan, bere emaztearen bizitza pribatuari buruzko xehetasunak eman zituela –Wollstonecraften suizidio-saiakerak, besteak beste–. Memoria horiek eskandalizatu egin zuten garaiko gizartea; eta, ondorioz, urte askoan, laidoz estali zen Mary Wollstonecraften ospea, harik eta XIX. eta XX. mendeko mugimendu feministek aldarrikatu zuten arte.

Seguru asko, Wollstonecraftek proposatzen zituen aldaketa erradikalak aspalditik zetozen aldarrikapenak ziren. Hala ere, haren lanak eragin handia izan zuen Britainia Handiko eta Estatu Batuetako emakumeen eskubideen aldeko mugimenduetan. AEBetako emakumeen eskubideen defendatzaileek, hala nola Elizabeth Cady Stantonek, Susan B. Anthonyk eta Margaret Fullerrek, Mary Wollstonecraften lanetik hartu zuten inspirazioa, nabarmen.

Genero berdintasunarekin, emakumeen heziketarekin eta zapalkuntza patriarkalaren aurkako borrokarekin zuen konpromisoak markatu zuen Mary Wollstonecraften bizitza. Bere garaian kritikak eta erronkak izan bazituen ere, gaur egunera arte iraun du haren eraginak eta ondareak.

### 3.3. MARY WOLLSTONECRAFTEN FILOSOFIA

Mary Wollstonecraft (1759-1797) idazle eta filosofo britainiar ospetsua izan zen; historiako lehen feministetako bat izateak eman dio ospea. Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren defentsa izan zen haren pentsamenduaren oinarria, emakumeek oso estatus sozial eta legal mugatua zuten garai batean. Haren pentsamendua Ilustrazioaren testuinguruan kokatzen da, baina mugimendu horren printzipio eta balio batzuekiko kritikak ere berezi bihurtzen du.

Wollstonecraften filosofia genero-berdintasunean oinarritzen da: emakumeak ez dira, naturaz, gizonak baino gutxiago edo haiek baino ahulagoak, baizik eta zapaltzen eta mugatzen dituen hezkuntza eta gizarte baten emaitza. Wollstonecraftek dio emakumeek gizonen duten gaitasun intelektual eta arrazional bera dutela. Baztertu egiten du gizonen eta emakumeen artean heziketari eta lorpenei dagokienez nabarmentzen den aldea emakumeen gutxiagotasun intelektualaren ondorio delako ustea.

Wollstonecraftek emakumeen *kosifikazioa* kritikatzeko du, azpimarratuz gizarteak sarritan desira-objektu huts bihurtzen dituela gizabanako arrazional eta moral gisa duten balioa ukatuta.

Sexuen arteko aldeak emakumeentzako aukera faltaren ondorio ziren, Wollstonecraften iritziz. Horregatik, berdintasunean oinarritutako hezkuntza baten alde egin zuen emakumeek aukera izan zezaten gaitasun arrazional eta moralak garatzeko eta gizonen eskubide eta aukera berberak lortzeko. Wollstonecraftek bere garaiko sistema patriarkalaren kritika latza egin zuen, argudiatuz sistema horrek emakumeen zapalkuntza iraunarazten zuela eta haien askatasuna eta autonomia mugatzen zituela. Horregatik, sutsu defendatu zuen emakumeek gizonen eskubide eta aukera berberak izan beharko lituzketela. Zentzu horretan, aipatu beharra dago amatasunari buruz jorratu zituen gogoetak. Defendatzen zuen emakumeak errespetatu eta babestu egin behar zirela, ama gisa zuten rolean, eta amatasunak ez zuela oztopo izan behar gizartearen parte hartzeko. Hots, amatasunaren garrantzia defendatzen duen arren, Wollstonecraftek argudiatzen du ama izateari dagozkion ardurek ez dutela mugatu behar emakumea. Seme-alabak izatea hautazkoa izatearen alde eta amaren hezitzaile funtzioari garrantzia ematearen alde egiten du, gurasoek erantzukizuna berdintasun mailan banatuta.

Wollstonecraftek hainbat lanetan adierazten ditu bere ideiak, besteak beste, *Gizonezkoen eskubideen erreibindikazioa* (1790), *Emakumearen eskubideen erreibindikazioa* (1792) eta *Maria, fikzio bat* (1798) lanetan. Obra horietan, bere garaiko sistema politikoa, soziala eta erlijiosoa kritikatzeko du, bidegabea eta tiranikoa dela uste baitu, eta arrazoian, bertutean eta askatasunean oinarritutako erreforma proposatzen du.

Wollstonecraftek jorratzen dituen gaietako batzuk honako hauek dira:

- Heziketa, emantzipazioaren eta berdintasunaren gako. Wollstonecraften filosofiaren funtsezko alderdi bat da emakumeentzat heziketak aparteko garrantzia duelako uste sendoa. Argudiatzen du heziketa egokia izateko aukerarik ez izatea dela emakumeen zapalkuntzaren arrazoi nagusia; horregatik, bi sexuei hezkuntza-aukera berdinak ematearen alde egiten du.

Wollstonecraftek defendatzen du hezkuntza dela giza egoera hobetzeko eta sexuen arteko berdintasuna lortzeko bitartekoa. Horregatik, kritikatu egiten du rol-genero tradizionalak direla-eta emakumeei ematen zaien heziketa, etxeko eremuan egotera mugatzen baititu eta gizonen mende jartzen baititu. Horrez gain, emakumeen independentzia ekonomikoaren eta sozialaren alde egiten du, genero-berdintasunerako urrats erabakigarria baita.

Hezkuntza publikoa, mistoa eta laikoa izatea proposatzen du, emakumeen pentsamendu kritikoa, sormena eta autonomia sustatzeko. Beste era batera esanda, uste zuen hezkuntza funtsezkoa zela emakumeak ahalduntzeko. Berdintasunezko hezkuntza baten alde egin zuen, emakumeei gaitasun intelektualak garatzeko eta herritar parte-hartzaile eta autonomo bihurtzeko aukera emango baitzien.

- Morala. Wollstonecraftek zioen morala ez dela kanpoko autoritatean oinarritu behar, kontzientzia indibidualean baizik. Emakumeak gizonak baino sentiberagoak edo emozionalagoak direlako ideia baztertzen du, eta bi sexuek arrazoitzeko eta moralki jarduteko gaitasun bera dutela baieztatzen du. Wollstonecraftek lotu egiten ditu bertutea eta arrazoia, argudiatuz arrazoia eta iritzia garatzeko aukera ematen duen heziketa bat zor zaiela emakumeei. Zehazki, bertutea arrazoimenaren eta sentiberatasunaren arteko harmoniaren emaitza dela uste du, eta gizateriarenganako eta guztien ongiarenganako maitasunean erakusten dela. Haren ustez, emakumeak, heziketa sendoa badute, gai izango dira gizarteari modu esanguratsuagoan laguntzeko eta erabakiak hartzen aktiboki parte hartzeko. Ondorioz, emakumeak, gizonak bezala, bertutean eta arrazoimenean hezi behar zirela zioen eta horrek gizarte zuzenago eta justuago bat sortzen lagunduko zuela.

- Politika. Wollstonecraft absolutismoaren eta feudalismoaren aurka agertu zen, eta Frantziako Iraultzaren eta Estatu Batuen Independentziaren idealen alde egin zuen. Hala ere, kritikatu zuen iraultza horiek emakumeak herritartasunetik eta parte-hartze politikotik kanpo uztea. Emakumeek bozkatzeko, ordezkatuak izateko eta gai publikoetan esku hartzeko duten eskubidea ere aldarrikatu zuen. Halaber, emakumeek ezkontzan, lanean eta gizartean jasaten duten esplotazioa eta zapalkuntza salatu zituen.

- Literatura. Wollstonecraftek literatura erabili zuen bere ideiak adierazteko eta emakumeei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak zalantzan jartzeko. Bere lanetan, saiakera, eleberria, autobiografia eta gutuna uztartzen ditu, eta ezarritako arauen aurka matxinatzen diren eta nortasuna sendotzea eta zoriona bilatzen duten emakumezko pertsonaiak sortzen ditu. Wollstonecraften estiloa argia, zuzena eta sutsua da, eta emakumeen kausarekiko konpromisoa islatzen du.

Haren esaldi ospetsuenen artean hauek aipa ditzakegu:

- "Ez dut nahi emakumeek gizonengan boterea izatea, beren buruarengan izatea baizik".
- "Eme-espirtua indartu, handitu, eta amaitu egingo da obedientzia itsua".
- "Emakumeen ohituretan iraultza eragiteko garaia da, galdutako duintasuna itzultzeko garaia; eta emakumeak, giza espeziearen parte gisa, mundua eraberritzen lan egiteko garaia".
- "Emakumeei haurtzarotik esaten zaie, eta amen ereduarekin irakasten zaie, gizonen babesa eskuratzeko nahikoa dela giza ahuleziaren ezagutza apur bat izatea –zehazki, maltzurkeria deritzona–, izaera leuna izatea, itxurazko obedientziarekin jokatzeko eta zorrotz zaintzea ume-herabetasun itxurako bat; eta, ederrak badira, gainerako guztia ez da beharrezkoa, gutxienez bizitzeko hoge urtean".
- "Benetan erakutsi nahi dut zer den benetako duintasuna eta giza zoriontasuna. Emakumeak gogatu nahi ditut indartzen saia daitezela, bai adimenez, bai gorputzez; eta konbentzitu nahi ditut esaldi leunak, bihotzaren sentikortasuna, sentimenduen leuntasuna eta gustuaren finezia ahuleziaren epitetoen sinonimo direla ia, eta laster bihurtuko direla mespretxuaren helburu, errukiaren eta haren arreba izendatua izan den maitasun-klase horren hartzaile besterik ez diren izaki horiek".
- "Emakumeak bat egin dezala gizonekin eskubideetan, eta berdindu egingo ditu haren bertuteak, zeren eta emantzipatzen bada perfektuago bihurtuko da, edo justifikatu egingo du hain izaki ahula bere betebeharrekin kateatzen duen autoritatea".

Mary Wollstonecraften filosofia, funtsean, gizartea eta heziketa erreformatzeko ekintzaren aldeko aldarria da, emakumeentzako aukera- eta eskubide-berdintasuna bermatzeko helburuarekin. Heziketa emantzipaziorako bitarteko gisa ikusteak erakusten du fede osoz sinesten zuela emakumeek gaitasun berezia zutela gizarteari modu esanguratsuan laguntzeko, gizonei ematen zaizkien aukera berberak izanez gero.

Laburbilduz, horiek dira Mary Wollstonecraften filosofiaren ezaugarri nagusietako batzuk. Emakume aurreratua izan zen bere garairako eta mugimendu feministaren inspiratzailea bilakatu da.

### 3.4. GIZONEN ESKUBIDEEN ERREIBINDIKAZIOA (1790)

*Gizonen eskubideen erreibindikazioa* panfleto politiko bat da, Mary Wollstonecraftek Edmund Burkerekin *Frantziako iraultzari buruzko gogoetak* panfletoari erantzunez idatzia. Burkerekin panfletoa 1790ean argitaratu zen eta, hartan, egileak Frantziako aristokraziaren eta monarkiaren defentsa egiten du. Wollstonecraftek berehala erantzun zion, *Gizonen Eskubideen Erreibindikazioa* anonimoki argitaratuz. Lanaren azalean, argi utzi zuen nori zuzendua zegoen panfletoa, "Gutuna Edmund Burke guztiz ohagarriari" azpiztitulua jarrita.

Panfletoan, Wollstonecraftek Frantziako Iraultzaren alde egiten du, eta aberastasunak pertsona gutxi batzuen eskuetan mantentzen dituzten herentzia-sistemen aurka. Wollstonecraftek garai hartako ordena politiko eta soziala kritikatu du; eta

monarkiaren eta aristokraziaren jaraunspenezko edo oinordetzako pribilegioen aurka agertzen da. Sistema horrek desberdintasunak betiko iraunarazten dituela dio, jaiotzan oinarritzen baitira merezimenduan baino gehiago. Horrez gain, zalantzan jartzen du monarkiak eta oinordetzan jasotako botereak gobernu eraginkorrak sortzen dituztelako ideia ere.

Wollstonecraftek eskubide naturalen ideiarekin alde egiten du, pertsona guztiak berezko eskubideekin eta duintasunarekin jaiotzen direla argudiatuz. Gizabanakoen berdintasuna azpimarratzen du, batzuk jaiotzetik beste batzuk baino gehiago direlako ideia gezurtatuta.

Bestalde, pentsalari ilustratu bati dagokionez, Wollstonecraftek hausnarketa egiten du heziketak gizabanakoak eta gizartea eratzeko duen zereginaz. Hala, pentsamendu kritikoa eta autonomia indibiduala sustatuko dituen hezkuntza-sistema ilustratu eta arrazional baten alde egiten du.

Wollstonecraftek gobernu ordezkatzailerak eta herriaren borondatea islatzen duen ordezkari politikoaren garrantziak argudiatzen du. Bestalde, garaiko egitura politikoak kritikatu ditu, baztertu egiten baitute biztanleriaren zati handi bat parte hartzetik hiritar aktiboak eta pasiboak arteko desberdintasunean oinarrituta.

Aldaketak eta ordezkari nahi dituzten klase ertaineko langileen eskubideak aldarrikatu ditu. *Gizonen eskubideen erreibindikazioan*, Edmund Burke zaharkitua eta iraganean iltzatua dagoela adierazten du; eta salatu egiten ditu Burkek aurkezten dituen iritzi kontserbadoreak eta aristokratikoak.

Lan honen ardatz nagusia gizonen eskubideak badira ere, Wollstonecraftek bere obra ospetsuenean –*Emakumearen eskubideen erreibindikazioa*– landuko duen gaiaren oinarriak ezartzen ditu hartan, emakumeen eskubideen eta hezkuntzaren gaia jorratuz.

Amaitzeko, gizarte justuago eta bidezkoago bat ezartzeko, erreforma politiko eta sozialaren beharra dagoela azpimarratzen du Wollstonecraftek. Haren ideiek eztabaidak sortu zituzten giza eskubideez, demokraziaz eta genero-berdintasunaz.

Laburbilduz, *Gizonen eskubideen erreibindikazioak* agerian uzten du Wollstonecraftek erabateko konpromisoa duela arrazionaltasunarekin, eskubide indibidualekin eta gizarteak aurrera egiteko desberdintasuna betikotzen duten arauak kontra egin behar zaielako ideiarekin. Bukatzeko, *Gizonen eskubideen erreibindikazioak* iragarri egiten du Wollstonecraftek bi urte beranduago (1792an) *Emakumeen eskubideen erreibindikazioa* lanean egiten duen emakumeen eskubideen esplorazio zabalagoa.

## 3.5. EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERREIBINDIKAZIOA (EEE) 1792

### 3.5.1. EEREN NONDIK NORAKOAK, GENESIA ETA ESTILOA

*Emakumeen eskubideen erreibindikazioa* (1792) da Wollstonecraften lanen artean ospetsuena. Izan ere, funtsezko testua da feminismoaren historian, eta eragin iraunkorra izan du genero-berdintasunaren aldeko borrokan. Literatura eta filosofia feministaren lehen lanetako bat da.

Testuan, Wollstonecraftek kontra egiten dio XVIII. mendeko teorialari politiko eta hezitzaileek defendatzen zuten jarrerari, alegia, emakumeek hezkuntzarako sarbiderik izan behar ez zutela defendatzen zuen planteamenduari. Wollstonecraftek argudiatzen du emakumeek gizartean duten posizioaren arabera heziketa jaso beharko luketela; izan ere, idazlearen arabera, emakumezkoak funtsezkoak dira nazioarentzat, seme-alabak haiek hezten dituztelako; eta, emaztetzat ez ezik, senarren paretzat ere hartu behar dira. Gizartean, dekorazio-elementu soil gisa edo ezkontza bat adosteko orduan salerosteko ondasun gisa ikusi beharrean, Wollstonecraftek dio gizonen oinarrizko eskubide berberak merezi dituzten gizakiak direla emakumeak.

Wollstonecraft *Emakumeen eskubideen erreibindikazioa* idaztera deliberatu zen, Charles Maurice de Talleyrand-Perigordek 1791n Frantziako Biltzar Nazional Konstituziogilerako egindako txostena irakurri ondoren. Txosten horretan, adierazten da emakumeek etxe barneko eremuarekin zerikusia duen heziketa jaso behar dutela soilik. Iritzi horren kontrako kritikatik abiatuta, egileak sakonago aztertzen eta salatzen ditu sexuen arabera estandar bikoitzak, eta gizonei leporatzen die emakumeen gehiegizko hunkiberatasuna haiek eragindakoa dela. Egileak sexuen arteko berdintasuna eskatzen du bizitzaren berariazko arlo batzuetan, hala nola moraltasunean.

Egileak sei astean osatu zuen obra. Lanak estilo trauskil samarra du, agian Wollstonecraftek sormen-grinak eramanda idatzi zuelako, eta batzuetan ez du zaintzen ideiak errepikatzea saihesteko beharrezkoa den antolamendu logikoa. Hala ere, azpimarratu behar da bizitasun handia duela eta ausardiarekin salatzen duela emakumeen egoera. Horrez gain, liburu honek XIX. mendeko feminismoaren oinarriak jartzen ditu. Eskubide politiko jakin batzuk erreibindikatzetik haratago, emakumeen indibidualtasuna aldarrikatzen du eta haien patuaren jabe izateko eskubidea. Emakumeen lepora botatzen ziren zametatik askatzeko unea izan zen: Gunther-Canadak esango lukeen bezala, errebeldia ilustratuko keinu bat.

### 3.5.2. EEREN GARRANTZIA

*Emakumeen Eskubideen Erreibindikazioa* aztertzea da Mary Wollstonecraften ideia eta argudio nagusiak antolatzeko eta aztertzeko modu egokiena. Lanean, egileak zalantzan jartzen ditu emakumeen izaerari, heziketari eta gizartean duten rolari buruzko ikuspegi nagusiak; eta emakumeen eskubideen, arrazionaltasunaren eta bertutearen alde egiten du.

Horretan datza, hain zuzen ere, egilearen meritua eta aparteko balioa. Eredu soziokultural jakin batek zanpatuta, bere buruari berari ere aurre egin behar izan zion inguratzen zuen mundua aldatzen saiatzean. Izan ere, haren teoria politikoa garaiko emakumeen ekarpen ospetsuenekin alderatuz gero, begien bistakoa da Wollstonecraftek sekulako jauzia egin zuela. Catharine Macaulayk, adibidez, 1790eko *Letters on Education* lanean, goi-mailako klasean jarri zuen arreta, gizarte-segmentu horretan hezkuntza liberal eta berdinzalea ezartzeak geroago printzipio horiek gainerako gizarte-klaseetara hedatzea ekarriko zuelakoan. Wollstonecraftek, berriz, defendatu zuen ezin zela inolako aurrerapenik egin harik eta pribilegio aristokratikoei amaiera eman arte. Beste adibide bat Sarah Trimmerrena izan zen: hark proposatzen zuen ongintzako eskolek goi-mailako damei zerbitzatzeko hezi beharko lituzketela neskatila pobreak. *Emakumeen eskubideen erreibindikazioaren* egileak, aitzitik, bere bizi-esperientziak irakatsita, argi eta garbi erantzuten du: autonomia eta independentzia ekonomikoa ekarriko dituen heziketa da garrantzitsua.

### 3.5.3. EEEREN LABURPENA, KAPITULUKA

Wollstonecraftek, lanaren hasieran, Talleyrand politikari frantsesari egiten dio eskaintza, hezkuntza nazionalari buruzko panfleto bat idatzi baitzuen emakumeak irakaskuntza publikotik kanpo uzten zituena. Talleyrandek ez bezala, Wollstonecraftek defendatzen du emakumeak izaki arrazional gisa eta gizonen pareko gisa hezi behar direla, ez apaingarri huts edo esklabo izateko.

#### **I. kapitulua.** *Gizateriaren eskubideak eta haiekin batera datozen betebeharrak, auzitara (The Rights and Involved Duties of Mankind Considered)*

Kapitulu honetan, Wollstonecraftek baieztatzen du, batetik, arrazoitzeko gaitasunak bereizten duela gizakia naturako beste animalietatik eta haien gainetik jartzen duela eta, bestetik, bertuteak egiten duela gizaki batzuk beste batzuk baino hobekiago izatea. Haren iritziz, emozioen funtzioa da gizakiek –arrazoia bidez haiekin borrokatuta– astakiloek ez duten ezagutza –eskarmentua– lortzea. Wollstonecraften ustez, arrazoitzeko gaitasunetik sortzen dira bertutea eta ezagutza. Hortaz, gizakiaren izaera hobetzeko eta gizarte bezala zorientsu izateko, gizabanakoen arrazoitzeko gaitasuna garatuko duten legeak sortu beharra dago.

Lanaren tesi nagusia da emakumeak izaki arrazional gisa hezi behar direla, eta ez bakarrik gizonen objektu sexual edo bikotekide gisa.

Wollstonecraftek kontra egiten dio Rousseauri, eta kritikatu egiten du emakumeak naturaz gizonak baino gutxiago direlako ustea, baita emakumeen funtzio bakarra gizonen atsegin ematea eta obeditzea delakoa ere. Wollstonecraftek argudiatzen du ikuskera horrek emakumeak galbidean jartzen dituela eta haien grinen, aurreiritzien eta desiren esklabo bihurtzen dituela. Wollstonecraften aburuz, egoera horrek ez ditu soilik emakumeak kaltetzen, gizonen ere kalte egiten die, tirano, berekoi eta azaleko bihurtzen baititu.

Wollstonecraftek aldarrikatzen du emakumeek gizonen eskubide berberak izan behar dituztela, batez ere heziketa izateko eskubidea, haiei arrazoia, bertutea eta independentzia garatzeko aukera emango liekeena. Horrez gain, baieztatzen du



emakumeak gai direla gizadiari aurrerabidean laguntzeko, eta gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat bultzatzeko, guztion mesederako.

Laburbilduz, Wollstonecraftek kritikatzan ditu emakumezkoak edertasunarekin, leuntasunarekin eta sentiberatasunarekin lotzen dituzten nozio guztiak, artifizialtzat eta zapaltzailetzat jotzen baititu. Haren esanetan, ezaugarri horiek heziketa akastun baten emaitza dira, emakumeen arrazoimena eta morala alde batera uzten dituen eta gizonen iritzien eta grinaren mende jartzen dituen.

**Gehiago sakontzeko: IKUSI IRUDI HAUEK ETA KOMENTATU**



1.- Zer alde dago ezker aldeko irudien eta eskuinaldekoen artean?

	Jostailu-mota?	Nori zuzendua?	Zer jarrera sustatzen ditu jostailu bakoitzak?
Ezker aldean			
Eskuinaldean			

2.- Badira, gaur egun, oraindik, halako jostailu-katalogoak?

3.- Badute eraginik halako genero-estereotipoek haurrengan eta gerora izango diren helduengan? Hala bada, zertan?

**4.- Gaur egungo gizartean, bultzatzen da, oraindik, generoaren araberako rolanaketa? Onuragarria da? Eztabaidatu talde handian. Ondoren, egin disertazio bat, Mary Wollstonecraftek eta Rousseauk gai horretaz emango lituzketen argudioak erabiliz; eta, azkenik, garatu zure iritzia (250 hitz).**

**II. kapitulua.** *Izaera sexual baten aldeko iritzi nagusia, eztabaidan (The prevailing opinion of a sexual character discussed).*

Kapitulu honetan, Wollstonecraftek emakumeen heziketari buruzko literatura berrikusten du, eta desegokia eta kontraesankorra iruditzen zaio. Zenbait idazleren akatsak eta aurreiritziak azaltzen ditu, hala nola Rousseau, Fordyce, Gregory eta MacKenziereak, emakumeek azaleko heziketa edo mendekotasunean bizitzeko heziketa izan behar zutela defendatzen baitzuten.

Kapituluaren hasieran, Wollstonecraftek kritikatu egiten du aipaturiko gizonzko idazleen iritzia: hots, emakumeek ez dutela nahikoa buru ez indar moralik berez onak izateko, eta gizonen gida behar dutela. Hark baieztatzen du iritzi hori okerra eta kaltegarria dela eta emakumeek beren arrazoia eta bertuteak garatu behar dituztela, gizonen iritziaren mende egon gabe. Era berean, zalantzan jartzen du emakumeek otzanak eta esanekoak izan behar dutelako ustea eta haien eginkizun bakarra gizonen atsegina ematea eta seme-alabak zaintzea delako iritzia. Wollstonecraften aburuz, emakumeek gizonen eskubide berberak izan behar dituzte, eta hezkuntza egokia jaso behar dute, haien ahalmena garatzeko.

**III. kapitulua.** *Gai beraren jarraipena (The Same Subject Continued)*

Kapitulu honetan, Wollstonecraftek argudiatzen du emakumeek ez direla berez gizonak baino ahulagoak, eta jasaten dituzten gizarte-baldintzen eta heziketa egokiaren faltaren ondorio dela haien ahulezia. Wollstonecraftek kritikatu du, batetik, emakumeek gizonen atsegina emateko ahulezia fisikoa, xarma eta edertasuna landu behar izatea eta, bestetik, ezaugarri horiek berezko bertutezat jotzea. Jarrera horrek emakumeen izaera eta moralara apalarazten edo beheratzen dituela dio, eta gaitasun arrazionalak eta zentzu moralak garatzea eragozten diela.

Wollstonecraftek, naturatik eta historiatik ateratako adibideen bitartez, erakusten du askotan indar fisikoa eta indar mentala elkarri lotuta daudela eta adierazten du emakumeei bietan trebatzeko aukera ukatu zaiela. Hala, agerian jartzen du animalia gazteek etengabe gorputza trebatu beharra izaten dutela osasuna sendotzeko eta hazteko, baina neska gazteek ez dutela egiten jarduera sedentarioak eta pasiboak besterik, hala nola panpinekin jolastu, dotore jantzi eta esamesetan aritu. Sexu-bereizketa naturak ezarri aurretik sustatzeari eta ohiturak artifizialki fintzeari egozten dizkie jokabide horiek, eta nesken berezko jakin-mina eta izpiritua itotzen dutela dio. Neskak eta mutilak elkarrekin libreki jolastea hobe litzatekeela iradokitzen du, elkarrengandik desberdinak edo bata bestea baino beheragokoak direla ikusten irakatsi gabe.

Ondoren, Wollstonecraftek aztertzen du zer ondorio dituen emakumeen zorionean eta segurtasunean haien ahuleziak eta gizonen mendekotasunak. Ohartzen da gizonen erakartzeko eta manipulatzeko beren edertasunaz eta xarmaz fidatzen diren

emakumeak zorigaiztokoak eta abandonatuak izaten direla maiz, batez ere behin gaztetasuna eta erakargarritasuna galdu eta gero. Damu du emakumeek ez dutela beste baliabiderik edo trebetasunik, eta askotan etsaitasuna eta inbidia dietela gizonen arreta lortzeko lehian ari diren beste emakume batzuei. Wollstonecraften esanetan, emakumeen ahuleziak eta ezjakintasunak desegoki bihurtzen ditu amatasunari eta hiritartasunari dagozkion betebeharretarako, eta gizartea galbideratzen eta hondatzen laguntzen dute.

Kapituluaren amaieran, Wollstonecraftek emakumeen hezkuntza errotik erreformatzea eskatzen du, haien gaitasun fisiko eta mentalak garatzeko eta gizarteko kide independente, bertutetsu eta baliagarri bihurtzeko. Arrazoimena eta egia aldarrikatzen ditu, bi sexuetan berdinak direla uste baitu, eta iritziaren eta aurreiritzien tiraniatik libratzera bultzatzen ditu emakumeak.

**IV. kapitulua.** *Oharrak emakumearen endekatze egoeraz, zeinetara ekarria baita hainbat arrazoiengatik (Observations on the State of Degradation to Which Woman Is Reduced by Various Causes)*

Kapitulu honetan, emakumeei arrazoia eta bertutea garatzea eragozten dieten gizarte-eta hezkuntza-faktoreak kritikatzeko Wollstonecraftek, emakumezkoak gizonetik mendekotasun-egoeran mantentzen baitituzte.

Wollstonecraftek argudiatzen du emakumeak degradatuta daudela, orainaz gozatzeko eta etorkizuneko hobekuntza alde batera uzteko joera dutelako. Horrez gain, arrazoi hau ere ematen du: hobetzeko ahalmenak mugitzen ditu gizakiak, baina emakumeei ez zaie uzten arrazoimena erabiltzen eta gizonen autoritateaz fidatzea espero da haiengandik. Bestalde, uko egiten dio emakumeek askatasuna ez dutela nahi dioen argudioari, esanez ez zaiela irakasten hari balioa ematen, baizik eta eginahalak egiten gizonen plazer~~a~~ eta miresmena lortzeko.

Gizarteak, heziketa faltak eta gizonen jarrerak "degradatu" egin dituzte emakumeak. Gizartea eta gizonen jarrerak elkar hartuta aritzen dira neskek eta emakumeek heziketa integrala izatea eragozteko. Wollstonecraften ustez, benetako heziketaren faltak eragiten ditu emakumeei egotzi ohi zaizkien akats asko.

Jendearen —batez ere, gizonen— okerreko uste bat da hezkuntzaren helburua haur bat mundurako prestatzea dela. Wollstonecraften ustez, hezkuntzak gizabanakoari lagundu behar dio pauso bat ematen balizko perfektiorantz iristeko, alderdi espiritualean zein intelektualean.

Argudiatzen du benetako ezagutza adierazten duen lorpen bakarra "ideiak orokortzeko ahalmena, norbanakoaren behaketatik abiatuta ondorio orokorrak ateratzeko ahalmena" dela; baina hori ukatu egiten zaie emakumeei, gizonen uste dutelako "bateraezina dela haien sexu-izaerarekin". Wollstonecraftek erronka egiten die gizonen bateraezintasun hori frogatzeko.

Arrazoimena honela definitzen du: "hobetzeko ahalmen soila edo, zehatzago, egia bereiztekoa". Emakumeek ezin dituzte erabat garatu pentsamendu arrazionalari dagozkion trebetasunak, gurasoek eta senarrek babesten eta gehiegi zaintzen

dituztelako. Wollstonecraften ustez, oztopoak gairak beharrezkoak du arrazoiak; baina, aldiz, "plazera da emakumearen bizitzaren helburua".

Wollstonecraftek "maitekiro" galdetzen du zergatik onartzen duten emakumeek egoera hori. Eta berak ematen du erantzuna: jendeak bere egoerari —hura txarra bada ere— ahalik eta etekin handiena ateratzeko joera duelako. Emakume batzuek gozamina jartzen dute bizitzaren helburu nagusi gisa, ez dakitelako nola jokatu bestela. Emakumeak gizon aberatsekin konparatzen ditu, ez baitakite probetxuzko ezer egiten, ez bada bizitzaz gozatzea eta etiketa eta jendarteko moduak hobetzen ahalegintzea.

Gizarteak "sentsazioa" hobesten erakusten die emakumeei: eleberriez, musikaz eta gizonen galaitasunaz gozatzen. Emozio ardatz gisa hartzeak emakumearen adimenaren alde arrazionala ahultzen duela argudiatzen du Wollstonecraftek. Horren ondorioz, hurrek bezala jokatzeko eta pentsatzeko dute, askotan.

Rousseauk ez du gogoko "gizonen heziketa" emakumei ematea, zeren eta emakume oso ikasiak botere gutxiago izango baitu gizonengan. Horrek poztu egiten du Wollstonecraft. Izan ere, berak ez du izan nahi gizonen gaineko boteririk: emakumeek beren buruaren gaineko boterea eskuratzea nahi du. "Ez dut nahi emakumeek gizonen gaineko boterea izatea, beren buruaren gainekoa baizik."

Gizarteak espero du emazte batek eta ama batek familia eta etxea kudeatzea. Baina, ongi hezia ez bada, nola kudeatuko du familia? Bestalde, familia zaintzen ez bada, ez da senarraren maitalea baino hobea, atsegin emateko baino ez baitago han. Wollstonecraftek baieztatzen du adiskidetasunean oinarritutako ezkontzak maitasun erromantikoa oinarritutako ezkontzak baino arrakasta handiagoa izan dezakeela.

Wollstonecraftek emakume batzuek jasaten dituzten egoera jakin batzuk jorrotzen ditu. Ama alargunak aita eta ama izateko balio behar du. Baina nola aurre egin diezaiok horri, heziketa eskasa badu? Wollstonecraftek ezkongabe geratzen diren emakumeen kasua ere deskribatzen du, halakoetan anaien mende geratzen baitira, erabakiak hartzeko eskubiderik gabe.

Poligamia praktikatzeko den herrialdeen kasua ere aztertzen du eta kritikatu egiten ditu gizonetako sarritan haren alde eman dituzten argudio sasi-zientifikoak. Garai hartan, gizonetako baino emakumetako gehiago jaiotzen direlako argudioa erabiltzen zen poligamiaren alde. Horrek, antza, frogatzen zuen emakumeak gizonak baino ahulagoak direla eta haien eginak. Wollstonecraftek erantzuten du Europar jaiotzei dagokienez parekoa dela gizonen eta emakumeen kopurua, are gehiago, gizonetako jaiotze-kopurua emakumetakoena baino pixka bat handiagoa dela (105 gizon 100 emakumeko) eta hortaz argudio horrek ez duela baliorik. Ondorio gisa, baieztatzen du poligamia emakumeen aurkako zapalkuntza modu bat dela ("Poligamy is another physical degradation"). Wollstonecraftek dio gizonak emakume bat limurtzen badu, haien arteko harremana "esku ezkerreko ezkontza", alegia ezkontza morganatikoa<sup>19</sup>, izendatu

---

<sup>19</sup> Ezkontza morganatikoa esaten zaio bi gizarte-mailatako bi pertsonaren arteko loturari —adibidez, printzearen eta kondesaren artekoa edo noblearen eta plebeioaren artekoa—. Ezkontza-mota horretan, ezkontideari eta batasun horren ondoriozko edozein seme-alabari eragotzi egiten zaie noble-tituluak, pribilegioak eta jabetzak oinordetzan hartzea edo lortzea. Antzinako Erregimenari dagozkion konbentzio sozial eta kulturalekin lotutako terminoa da.

beharko litzatekela. Kasu horietan, gizonak bikotekidea eta seme-alabak mantendu beharko lituzkela argudiatzen du, emakumeak adulterioa egin ezean edo bikotea banandu ezean. Egoera horrek, hots, limurtuak izan eta ezkontzeke haurra izateak, emakumeei nola eragiten dien ere aztertzen du, esanez "gizartetik aldentzen" dituela, eta lotura horren ondorioak askoz kaltegarriagoak direla emakumearentzat gizonarentzat baino.

**V. kapitulua.** *Emakumeak mespretxuaren mugan erruki objektu bihurtu dituzten idazleetako batzuen gaineko gaitzespenak (Animadversions on some of the writers who have rendered women objects of pity, bordering on contempt)*

Atal honetan, Wollstonecraftek hainbat autore aztertzen ditu, eta gaitzetsi egiten du haien lana emakumeak ahul eta errukarri irudikatzeagatik. Rousseauarekin hasten da, *Emilio edo Heziketaz* eleberrian emakume batek izan ditzakeen ezaugarririk penagarrienak eransten baitzikio Sophia pertsonaiari. Wollstonecraftek nabarmentzen duenez, honako hau da Rousseauk emakumeei buruz duen iritzia: emakumeek ahulak eta pasiboak izan behar dute, gizonak baino indar gutxiago dutelako; gorputzaren erosotasuna sakrifikatu behar dute gizonari atsegin gertatzeko; eta erabat kaskarrak izan behar dute, adimenari dagokionez.

Rousseauren iritziz, emakumeen heziketaren helburua da haiek gizonentzat atsegin eta baliagarri bilakatzea: gizonak maitatu, haiek gaztetan hezi (ama izan) eta helduaroan zaindu (emazte izan), gizonari aholku eman, haiek kontsolatu eta haiei bizitza erraza eta atsegina egiteaz arduratu. Zergatik? Emakumezkoek dena dutelako aurka, gizonekin alderatuz gero, leuntasuna eta edertasuna kenduta. Horren ondorioz, edertasuna eta leuntasuna garatu behar dituzte, gizonetzkoengan eragina izateko. "Senarra etengabe zure oinetara ikusi nahi baduzu, izan ezazu beti distantzia batera. (...) Zure mesedeak bakan eta baliotsu banatuta, luzaroan izango duzu aginpidea, maitasunari esker" (*Emilio*, Rousseau). Hala ere, Rousseauk iraukitze-data jartze dio maitasun-grinari, esanez, elkarbizitzaren ondorioz gizonak ez diotela baliorik emango edertasunari eta leuntasunari, behin ezkondu eta sei hilabetera. Hala ere, atsegintasunezko ohitura bat etorriko da, maitasunaren ondoren, eta senar-emazteen arteko konfiantza ere bai. Seme-alabak izateak maitasunak berak baino gehiago indartzen du senar-emazteen arteko harremana, eta iraunkorragoa bihurtzen du.

Wollstonecraft ez dator bat Rousseauarekin hainbat gauzatan. Onartzen du gizonak gorputzez indartsuagoak direla; baina dio emakumeek, edertasunaren nozio okerrarengatik ez balitz, nahikoa indar lortuko luketela bizimodua aurrera ateratzeko

---

«Ezker eskuko ezkontza» izenez ere ezagutzen zen, ezkontza-mota horretan senargaiak emaztegaiaren eskuineko eskuari ezkerreko eskuarekin eusten ziolako, ezkontza arruntetako ohitura alderantziz egitea izan arren.

Nagusiki, noble baten eta emakumezko plebeio baten artean egiten zen. Alderantziz ere izan zitekeen, alegia, plebeioa gizonetzkoa izatea; baina kasu horiek ez ziren oso ohikoak, normalean emakumeek ez baitzituzten tituluak eta pribilegioak oinordetzan hartzen eta jasotzen. Ezkontza-modu horretan, ezkontide bakoitzak bere jatorrizko gizarte-egoerari eusten dio. Ezkontza horretatik jaiotako seme-alabak seme-alaba morganatikoko gisa ezagutzen dira eta, lege-ondorioetarako, seme-alaba legitimotzat hartzen dira.

Ezkontza-mota hori germaniar zuzenbidean ezarri zen, eta herri askoren zuzenbideetan jaso zen, harrezkero. Batzuetan, ezkontza salikoa ere esaten zaio.

–hori baita independentziaren funtsa– eta adimena indartzeko beharrezkoak diren oztopoak eta gorputzaren nekeak jasateko.

Rousseauk dio emakumeen fede erlijiosoak gizonen aginpidearen mende egon behar duela, alegia, ez dutela erlijioa beren kabuz praktikatu behar, baizik eta gizonak araututakoaren arabera. Wollstonecraftek ez du ulertzen zergatik sakrifikatu behar den emakume baten adimena, edertasunaren eta xalotasunaren izenean. Ez zaio iruditzen ezkondata egotea onuragarria izan daitekeenik emakume kaskarin eta aratz batentzat, ezta gizon axialarentzat ere.

Kapitulu luze honen bigarren atalean, Wollstonecraftek beste idazle batzuen obrak kritikatzeko ditu. Hasteko, Fordyce doktorea aipatzen du, oso ezagunak baitziren haren sermoiak. Fordyce doktorea, baina, ia Rousseau bezain arriskutsua da, Wollstonecraften aburuz, argudio sentimental ustelak erabiltzen baititu emakumeek nola jokatu behar duten esateko. Ondoren, Wollstonecraftek baieztatzen du Herveyren *Meditazioak* lanean adierazitakoak gaitzesgarriak direla, zeren haren testua amodiozko eta pasiozko adierazpenez josita baitago. Emakumeak konkista gisa bakarrik irudikatzen ditu eta, desiraz eta lausenguz baliatzean, hutsal bihurtzen ditu emakumeak.

Hirugarren atalean, berriz, Gregory doktorearen *A Father's legacy to His Daughters (Aita batek alabei utzitako ondarea)* obrari heltzen dio. Wollstonecraftek azaltzen du egile horrek alabak mendekotasunaren eta engainuaren mirabe egiten dituela erabat.

Laugarren atalean, azaltzen du ez dituela banan-banan aipatu nahi emakumeak menderatu eta zapaltzeko beharraz iritzia eman duten idazle guztiak, luze joko lukelako: gizonaren harropuzkeriazko eskumenari, tiraniaren burdinazko aginte-makilaz baliatzeko eskumenari, eraso nahi dio.

Egileen artean, ez dira bakarrik gizonezkoak emakumeei buruzko ikuspegi oker eta kaltegarriak agertu dituztenak; emakume egileak ere, batzuetan, beren baldintza kaskarren konplize izaten dira. Emakumeek ere sentimendu zakarrak izaten dituzte berekiko. Piozzi andreak eta Staelgo baroisak badaezpadako ikuspegi horiek erabili dituzte beren idazkietan. Genlis andreak ere era horretako aurreiritzi zentzugabeak agertzen ditu, uste sendoarekin, haurrentzat idatzitako liburuetan.

Jakina, badira salbuespenak. Chapone andrearen gutunak zentzudunak eta errespetagarriak dira; eta Macauley andrea da, zalantzarik gabe, Erresuma Batuetan sekula sortu den gaitasun handieneko emakumea, askok ezagutzen ez badute ere.

Bosgarren atalean, Wollstonecraftek Lord Chesterfielden gutunak gaitzesten ditu. Haren ikuspegia koldarra eta moralaren aurkakoa da, eta Wollstonecraftek nahiago luke irudikatu haren gezurrezko xarma engainagarriez gabetutako mundu bat.

Kapitulua bukaera aldean, Jainkoa hartzen du hizpide; eta irakurleei eskatzen die gogoan izateko gizakiak gauza kontraesankorrak nahasten dituela; maiz, ahaztuta ezin dituela Jainkoa eta aberatsak aldi berean zerbitzatu.

**VI. kapitulua.** *Zer eragin duen, izaeran, ideia-lotura goiztiar batek (The Effect Which an Early Association of Ideas Has upon the Character)*

Gizartean duten mendekotasun estatusak ez ezik, jasotzen duten heziketa eskasak ere funtsezko akatsa sorrarazten du emakumeengan. Bizitzaren lehen aldietan jasotako ideiek eta haien arteko loturek zeharo baldintzatzen dute izaera. Ezagutza eskuratzea abantaila handia da. Ideien arteko lotura ohikoa edo berehalakoa izan daiteke. Berehalakoa bada, ematen du adimenaren berezko temperamentuaren mende dagoela, eta ez borondatearen mende. "Ideiak, behin bildu eta gero, gorde egiten dira, harik eta gertakari batek berriz tarrapataka gogora isurarazten dituen arte. Ez dugu botere handirik lotura azkar horien gainean, eta arrazoimenak ezin ditu menderatu. Gizakiak nahiago izaten du sentimendu poetiko horiei eta fantasiaren hegaldiei ihes egin, eta ukitu daitezkeen objektuak bilatu, harik eta autore batek egia erakutsi arte eta begien bistan izan arren ikusten ez zituztenak gozatzeko aukera eman arte. Hala, heziketak ezagutzaz hornitzen du buruargiko gizakia, haren loturei dibertsitatea eta egiaztatzeko aukera emanez; baina bada ideien arteko lotura-mota bat, gure hazkundearekin hazten dena, gizateriaren izaera moralean eragin handia duena, eta buruari bizitza osoan iraungo duen bira bat eragiten diona".

Lehen inpresioekiko morrontza handiagoa izaten dute emakumeek gizonezkoek baino, ez baitira gizarte-eremu handietan mugitzen eta gizonek bezain kezka garrantzitsuez ardurutzen. Ikusten edo entzuten duten orok adimenaren alde sexuala indartzea dakarten inpresioak, emozioak eta ideia-loturak finkatzen ditu; eta horrek ahuldu, bigundu eta gaixotzen ditu. Emakumeei, normalean, barre egiten zaie buruz ikasitako ideiak errepikatzen dituztelako. Baina "nola izan daitezke errudunak", galdetzen du Wollstonecraftek, "ez baldin bazaie aukerarik ematen beren jokabidea arrazoimenaren bitartez gobernatzeko eta ikasi behar duten guztia buruz ikasi behar badute?" Libertinoek erraz lilurutzen dituzte emakumeak, lausenguen eta trikimailuen bidez; eta emakumeek gizon zentzudunak baino nahiago dituzte, zentzudunei sentimenduak gutxiago eragiten dielako eta "sentimendu gutxitan" egiten dutelako bat emakumeekin. Antzeko ezaugarriak izateak pizten du elkarrekiko grina.

Ez du zentzu handirik emakumeak *zaletasunetan* gizonak baino zentzuzkoago jokatuko dutela espero izatea eta, aldi berean, haiei arrazoimena askatasunez erabiltzen ez uztea. Gizonak berak zentzutasunetik ederzaletasunera pasatzen dira emakume lagun baten bila dabilzanean. Maitasuna grina arbitrarioa eta beregaina da, eta arrazoimena ez da haren jabe. Azaleko ekintzen bitartez eskuratzen dituzte libertinoek emakumeak: itxuran, alaitasunez eta, jakinduriaren aurrean, uzkur jokatuta.

Emakumeek ez dute ulertzen benetako edertasuna adimenetik datorrela; baina ez da haien errua, haien baldintzek hala pentsatzera behartu dituztelako. Libertinoak beti izango du abantaila, harik eta baldintzak aldatu arte.

Wollstonecraftek nahi duen iraultza gertatuko balitz, arrazoimenak hartuko luke emozioaren lekua eta emakumeek "azkar ikasiko lukete haien jokabideetan kitzikatu eta landu den sentiberatasuna arbuiatzen, bizioa eta itxura erakargarria eta lizuna sustatzen baititu". Senarra aukeratzean, haren maitale-dohainek ez lituzkete galbidean jarriko. Eta onartuko lukete behin ezkondu ondoren pasioari epeltzen uztea adiskidetasun bihurtu



arte, eta zoriontsu izango lirateke. Oro har, ez da bidezkoa emakume bat errudun egitea libertinoa nahiago izateagatik, zeren "merezi dute erruduntzat jotzea etengabe erakutsi dizkieten printzipioen arabera jokatzegatik? Maitale bat nahi dute, eta babesle bat; eta hara non ikusten duten beren aurrean belaunikatzen". Egoera horrek miseria besterik ez du ekarriko, eta arrazoimenak bakarrik ekar ditzake independentzia eta askatasuna.

**VII. kapitulua.** *Apaltasuna bere osotasunean aintzakotzat hartuta, eta ez sexu-bertutetzat (Modesty--Comprehensively Considered, and Not as a Sexual Virtue).*

Kapitulu honetan, Wollstonecraft apaltasunari buruzko eztabaida batean murgiltzen da. Haren iritziz, apaltasuna "sentiberatasunaren eta arrazoimenaren ondorengo sakratua" da. Bereizi egin behar dira, batetik, kastitatearen ondorio den gogo-garbitasuna eta, bestetik, harrokeriatik urrun norberaren buruaren gaineko iritzi zuzena eratzeraren daraman nortasunaren tolesgabetasuna. Apaltasuna da gizakiari bere buruaz behar baino gehiago ez pentsatzen irakasten dion gogo-soiltasuna; eta umildadetik bereizi beharko litzateke, umildadea norbere burua beheratzea baita. Gizon apalak egonkorrik dira; gizon umilak, lotsatiak; eta harroak, handiustekoak. Apaltasuna bertute bat da, ez ezaugarri bat. Eta, hori erakusteko, Wollstonecraftek emagalduen adibidea jartzen du, esanez prostitutek lotsa galtzen dutela, ez baitute inoiz izan apaltasunik galtzeko. Bertute hori lehenago izan balute, zerbaitek iraungo zuen haiengan.

Berezko gogo-garbitasuna, kastitatearen euskarri egoki bakarra, eta buru landuek bakarrik izan dezaketen giza finezia oso hurbil daude bata bestetik. Horri buruzko hausnarketetatik abiatuta, Wollstonecraftek ondorioztatzen du beren burua gehien landu duten emakumeek apalak izan behar dutela. Kastitateak apaltasuna erator dadin, beharrezkoa da emakumeek sentiberatasuna besterik lantzen ez duten eginkizunak saihestea. Jarduera intelektualak egiten dituzten emakumeek gogo-garbitasun handiagoa dute, denbora eta pentsamendua plazer alaietan eman dutenek baino. Emakumeak gizonak baino kastoagoak dira, sarritan, eta, ondorioz, berezkoagoa dute apaltasuna; baina kastitateak, gizartearen iritziaren beldurrez sortutakoa bada, ez du apaltasuna ekartzen, nahiz eta jokabide egokia izan, hala ere. Emakumeek abantaila dute jokabidearen egokitasunari dagokionez, gizonak sarriago erakusten baitituzte lotsagabekeria, galaitasun gordina eta ausarkeria.

Bestalde, Wollstonecraften iritziz, ez du zentzurik emakumeari eskatzea bertutetsuago jokatzeko, gizonak eta emakumeek, biek, jokabide xumeago baten alde egiten ez badute. Negargarria da grina bat kontrolatu edo ohorea defendatu behar denean zama emakumearen bizkar gainera botatzea. Hori arrazoiaren edo benetako apaltasunaren kontrakoa da, emakumeak ahulagoak baitira. Eta ez al da kemenaren eskuzabaltasuna gizonezkoen bertutea? Gizonak harro daude emakumeak limurtzeaz. Baina hori ez da bidezkoa, emakumeari traizio egin baitio haren arrazoimenaren gidari eta haren babesle izan behar zuenak. Gizonak emakumeak errespetatzen dituztelako itxurak egiten dituzte, maiz; baina gutxietsi egiten dituzte aldamenean dituzten izaki ahulak.

Emakumeen heziketaren gaira itzuliz, Wollstonecraftek adierazten du emakumeei txikitatik esaten zaizkien faltsukerien eraginez haien grinek hartzen dutela zentzuen lekua eta haien arabera eratzen hasten dela haien izaera. Haurtzaindegietan eta



barnetegietan, emakumeak elkarrengandik hurbil egoten dira. Hori kaltegarria da, Wollstonecraften iritziz, bata bestea gehiegi ezagutu, eta intimitatea sortzen delako haien artean; eta horrek kalte egin diezaioke etorkizuneko senar-emazteen arteko harremani.

- **VIII. kapitulua.** *Moraltasuna izen onaren garrantziaren gaineko nozio sexualek indargabetua (Morality Undermined by Sexual Notions of the Importance of a Good Reputation).*

Kapitulu honetan, portaera eta ospea jorratzen ditu Wollstonecraftek, eta ideia horiek zer kalte egin dezaketen emakumearen moraltasunean. Emakumeei gazte-gazterik irakasten zaie jokabide artifizialak garatzen. Ez dira egian murgiltzen: gezurraren eta topikoen artea menderatzen ikasten dute. Askok ez dute beren burua lantzen. Moraltasuna erabat hondatuta dago emakumeen munduan, zeren azalekoa erakusten baitzaie, ez mamia. Izpiritu apal batek Jainkoak zer nahi lukeen hausnartu ahal izango balu, nekez garatuko lituzke okerreko iritziak bertutez. Gogoeta horiek arrazoimena hobeto ulertzera eramango lukete.

Neska gazte ezkongabea maitemina mendeko erortzen bada, kritikatu egiten da, nahiz eta emakume ezkonduen amarruak ez izan eta nahiz eta haren akats bakarra bere buruari begirunea ez gordetzea izan. Emakume ezkonduak, bere buruarenganako begirunea ez ezik, familiarenganako konpromiso sakratua ere hausten du, faltsua eta desleiala bada. Eta senarra engainatzeko erabiltzen dituen trikimailuek gizakietan gaitzesgarriena bihurtuko dute, eta itxurak gordetzeko erabiliko dituen amarruek bizioan eta umekerian murgilduko dute haren adimena. Senarra maite ez duten emakume batzuek zaindu egiten dute beren izen ona; baina, aldi berean, huskerian eta ondasunak xahutzen aritzen dira eta beren eginbeharrak alde batera utzita. Esaten da emakumeek munduaren errespetua besterik ez dutela nahi izan behar; Rousseauk berak aitortu zuenez, "Ospea kastitatea bezain beharrezkoa da".

Ikuspegi problematikoa da hori, zeren eta gizonak aurre egin diezaioke iritzi publikoari, bere buruaz seguru baldin badago; baina emakumeak, ondo portatuta ere, bere betebeharren erdia bakarrik egiten du, ondo portatzea bezain garrantzitsua baita haren ospea. Ospea bertutean aritzetik badator ere, emakumeak nekez berreskura dezake, behin galduz gero, bertutera itzulita ere; baina gizonak gorde egiten dute izen ona, baita bizioan dihardutenean ere.

Wollstonecraftek aitortzen du gizonari ere egin ez duten krimen bat egin izana leporatu ahal zaiela. Baina oso gutxitan gertatzen da errugabeari bizio bat leporatzea; eta hori jasan dutenek ere berreskuratu dezakete ospea, sarritan. Izen onaren gaira itzuliz, Wollstonecraftek idazten du arreta bertute bakar batean jartzen dela: kastitatean. Emakume baten ohorea seguru badago, "gizarte-eginbehar oro alde batera utzi dezake. Are gehiago, familia hondatu dezake, jokoaren eta xelebrekerien bidez, baina, hala ere, bekokia jasota lotsagabe agertu, zeren, egiatan, emakume ohoragarria baita!". Jakina, kastitateak ematen duen izen on hori hain estimatua da emakumeentzat, nola erdeinatua, gizonentzat. Gizonak emakumearen kastitatea saritzen dute, baina mespretxatu egiten dute gizonena; eta "bi muturrek suntsitzen dute gizartea".

Apetituek (janariak eta sexuak) gobernatzen dituzte gizonak, emakumeak baino neurri handiagoan. Gizakiek gizatasuna errespetatu beharko lukete, janariarekiko berezko desira asetzeari uko eginez. Sexuak gizonak eta emakumeak biltzen ditu eta jarraipena ematen dio espezieari; baina desira hori ere behar bezala kontrolatu behar da. Emakumeek erakargarriak izatea beste betebeharririk ez dute eta, beraz, erraz erortzen dira ustekabeko lizunkerietan. Gizonek emakumeak limurtzen dituztenean, biak hondatzen dira, gizonen gustua saritzen delako eta emakumeak beti gizonen desiraren mende jartzen direlako. Gainera, jarraitzen du Wollstonecraftek, gizonak promiskuitatearen gaixotasunak jota badaude, kutsatu egiten dituzte emakumeak; eta emakume horiek ez dute ama izateko indarrik, eta suntsitu egiten dute umekia uteroan edo ume desitxuratua izaten dute. Wollstonecraftek hau idazten du: "Naturak begirunea eskatzen du, denean, eta haren legeak hausten dituztenek oso gutxitan hausten dituzte zigorrak gabe". Gizonek mantendu egin beharko lituzkete hondatzen dituzten emakumeak edo, are hobeto, emakumei lagundu arreta kastitatearen benetako balioan jartzen. Emakumeak ere, hein batean, errudunak dira, beren burua apaintzea eta gizonentzat erakargarri izatea besterik ez baitzaie axola. Emakumeek bertutea beren onerako delako errespetatuko balute, ez lukete arinkeria erabiliko haren ordainetan.

Oro har, gizonak eta emakumeak bata bestea hobetu edo galbidera eraman dezakete. Gizateria osoak landu behar ditu kastitatea, apaltasuna, gizarte-espirtua eta harekin lotutako bertuteak; edo eragin txikia izango dute. Ez litzateke eredu bikoitzik egon beharko sexu-portaerari dagokionez, zeren kastoia ez den gizonak bikoiztu egiten du kaltea, emakumeak antzutu, haien gorputza suntsitu eta haien moralak ere hondatzen baitu.

IX. kapituluak. *Gizartean ezarritako bereizketa antinaturalatik sortzen diren ondorio kaltegarriak (Of the Pernicious Effects Which Arise from the Unnatural Distinctions Established in Society).*

Kapitulu honetan, Wollstonecraftek naturak ezarri ez dituen bereizketetatik eratorritako ondorio kaltegarriak aztertzen ditu, gizarte-mailei eta klaseari dagokienez. Gizarte finenetan ere, narrasti nazkagarrienak daude zelatan, eta "aire sargori geldoak txera egiten dio lasaikeriari". "Jabetza da helburua", eta gizonak alde batera uzten dituzte eginbeharrak eta, hala ere, erdijainkotzat hartzen dituzte. Erligioa ere moralitasunetik bananduta dago. Baina, hala ere, jendeak galdetzen du zergatik dagoen mundua iruzurgilez eta zapaltzailez beteta!

Berdintasun handiagoa behar da gizartean, edo moralitasuna ez zaio inoiz gailenduko ez-moralitasunari eta ezjakintasunari. Aberastasunek eta herentzian jasotako ohoreek gizateria osoa hondatzen dute; baina emakumeak are gehiago kaltetzen dituzte, gizonak gutxienez soldadu edo estatu-gizon izateko aukera dutelako eta emakumeak, berriz, eremu pribatura mugatuta daudelako. Hala ere, benetako heroismo gutxi dago jada militarren artean; eta politika britainiarra ere higuingarria da, "mendekoak ugaritzea, behartsuak jipoitzea eta aberatsak saritzen dituzten zergak diseinatzea baita".

Mailaren araberako bereizketa zentzugabeek madarikazio bihurtzen dute zibilizazioa, era guztietako jendea galbideratzen baitute. Errespetua ez da eskuratzen besteekiko betebeharrak konplutuz, baizik eta mailaren bitartez. Hala ere, gizon batek baditu

ihesbideak zulo horretatik herrestan ateratzeko; baina ikaragarritzko lana da hori emakumearentzat. Emakumearen lehen betebeharra bere buruarekiko da, izaki arrazionala den heinean; gero datoz hiritar gisa dagozkionak, ama izatea barne.

Rousseauk iseka egiten die emakumeei esanez "Nola utziko dute haurtzaindegia eta kanpamentua aukeratu!". Wollstonecraft ez dator bat soldaduen kanpamentua heroismoaren haztegi delako ustearekin. Ez da gerraren aldekoa, ez bada zuzena eta defentsiboa; eta gerra-mota horrek piztu egingo luke emakumearen gogoia. Baina nola izango da emakumea bertutetsua, bere senarraren mende badago. Ezeren jabe ez den izakia ezin da eskuzabala izan; eta ezinezkoa da bertutetsua izatea, aske izan gabe.

Emakumeek ordezkari izan beharko lukete politikan, "eta ez arbitrarioki gobernatuak izan, gobernuaren erabakietan zuzenean parte hartzeko aukerarik izan gabe". Baina ez dute zertan kezatu, sistema osoa halakoa baita. Mekanikari behartsuak bezain ongi ordezkari daude: haiek eskuz lan egin eta zergak ordaintzen dituzte errege-erreginak eta mota guztietako printze eta printzesak mantentzeko, eta apenas duten dirurik, berriz, seme-alabei jaten emateko.

Emakume guztiek dama izan besterik ez dute nahi, behartsu gehienek aberats izan nahi duten modu berean. Baina emakumeek beste lanbide batzuetan sartu beharko lukete. Medikak, erizainak edo emaginak izan daitezke, politika ikasi eta historia irakurri, edo negozioetan sartu. Emakumeen zeregin eta lan bakarrak errepikakorrak, aspergarriak eta gaizki ordaindutakoak dira; eta etxe-andereñoa izatea ere (emakume hezi batek izan dezakeen ohiko lanbidea) desmasia eta umiliazioa jasatea da, sarritan. Askotan, "emakume errespetatuenak zapalduenak dira". Zenbat emakumek alferrik galtzen dute hala bizitza, nahiz eta beste maila bateko eginkizunetan, hala nola mediku-lanean edo etxalde bat zuzentzen, aritzeko gaitasuna izan! Askoz errespetagarriagoa da lan gogorrari esker bizimodua aurrera ateratzen duen emakumea, ederra izateagatik errespetatua dena baino.

Hala, Wollstonecraftek ondorioztatzen duenez, "gizonek gure kateak eskuzabal hautsiko balituzkete eta mirabeen mendekotasuna eskatu ordez zentzuzko adiskidetasun batekin nahikoa balute, alaba zuzenagoak, ahizpa amultsuagoak, emazte leialagoak, ama zentzudunagoak aurkituko gintuzkete; hitz batean esanda, hiritar hobek".

## **X. kapitulua. Gurasoen maitasuna (*Parental affection*)**

Gurasoek seme-alabak itsuki maitatzen dituzte, sarritan, eta edozer egiten dute haiek munduan leku bat lortu dezaten, baita haiekiko tiraniaz eta sekulako agintekeriaz jokatu ere, inolako mugarik gabe. Aitzitik, arrazoimena bihurtuko balitz ezinbesteko arau gizarte-harreman guztietan, tiranoak dardaraka jarriko lirateke. Askoren gogoan, inolako zigorrak gabe tiranizatzen aitzakia bat da gurasoen maitasuna, zeren gizaki on eta jakitsuak bakarrik poztzen baitira eztabaidak berarekin dakarren errespetuarekin.

Emakumeak aurreiritzien esklabo izan ohi direnez, nekez erakusten dute ama-maitasun ondo hezia; aitzitik, utzikeria agertzen dute seme-alabekiko edo hondatu egiten dituzte, mizketuta. Gainera, sarritan, emakume batzuek umeei izaten duten maitasuna hain da basatia, gizatasun txinpartaririk txikiena ere eragozten baitu. Haurrak zaintzea

emakumeei naturak ezarri dien betebeharrak handienetako bat izatea nahikoa arrazoi handia da emakumeen ezagumena indartzeko. Goizetik hasi behar da haurren nortasuna hezten, eta arreta handia jarri behar zaio horri; baina nekez jarri dezakete behar besteko arreta seme-alabak berenak direlako bakarrik maite dituzten ama horiek. Maitasuna arrazoi gabekoa izateak eragiten du amek muturretara jotzea: edo amultsuenak dira edo arduragabeak eta antinaturalak.

Ama ona izateko, zentzu ona izan behar du emakume batek, baita adimen autonomia ere; eta gutxi izaten dute, senarraren mende egoteko heziak baitira. Orokorrean, emazte otzanak ama ergelak izaten dira, eta nahi izaten dute seme-alabek gehiago maitatu ditzaten eta ezkutuan haien alde egin dezaten aitaren kontra; eta, horretarako, "txorimalo" gisa erretratatzeko dute hura. Haurrak zigortu behar badira, ama mintzeagatik bada ere, aitak ezarri behar du zigorra: aitak izan behar du epaile, auzi guztietan. Emakumearen adimena landua eta haren izaera irmoa izan ezean –eta, horretarako, bere jokabideen jabe izaten utzi behar zaio–, emakumea ez da gai izango haurrak era egokian zaintzeko. Nola izango da, ba, bere burua kontrolatzeko gaitasuna ere garatu ez badu?

Bestalde, amek beren haurrak edoskitzearen alde agertzen da Wollstonecraft. Haren iritziz, haurrak inudeek edoskitzearen ohitura alde batera utzi beharko litzateke. Gurasoek onartu behar dituzte beren betebeharrak, batez ere haurraren eta haien arteko maitasuna sorraraziko duten betebeharrak horiek, maitasun hori baita bizio guztien kontrako babesa. Zer maitasun garatuko du ama batek bere haurra inude bati ematen badio eta eskolara bidaltzeko sasora arte haurtzaindegitik ateratzen ez badu?

### **XI. kapitulua. Gurasoekiko betebeharra (*Duty to parents*)**

Kapitulu honetan, Wollstonecraftek gurasoekiko betebeharrak aztertzen ditu. Egileak damu du printzipio eta arau zaharrek hartzea arrazoimenaren lekua.

Guraso gehienek obediencia itsua eskatzen dute, arrazoi hutsari erreparatuz gero ez baitute merezi arreta haiengan jartzea. Hala, "santutasun-kutsu misteriotsu bat hedatzen da printzipiorik arbitrarioenaren [obediencia itsuaren] gainean". Izan ere, zer beste izen eman dakioke berezko senak bultzatuta bakarrik izaki biziotsu edo ahul batzuei obeditzeko betebeharrak itsuari? Hitz gutxitan laburtu daiteke gurasoen eta seme-alaben arteko berezko betebeharra: haurrak babesgabeak izan diren bitartean behar bezala zaindu dituen gurasoak eskubidea du atentzio bera eskatzeko urteen eraginez makalduta dagoenean. Hala ere, ez dago arrazoirik guraso bati guraso izateagatik bakarrik obeditzeko. Horrek kateatu egiten du adimena, eta prestatu egiten du arrazoimena ez den beste edozein botereren mende jartzeko.

Gurasoekiko betebeharrak naturala eta behin-behinekoa bereizten ditu Mary Wollstonecraftek. Batetik, bere umearen bihotza osatzen eta haren adimena zabaltzen arduratsu saiatzen den gurasoak arrazoimenak bakarrik eman dezakeen duintasun hori eman dio animalien mundu osoari dagokion betebeharrak bati. Hori da gizateriaren guraso-maitasuna, eta oso atzera uzten du instintuari dagokion maitasun naturala. Guraso horrek adiskidetasun sakratuenaren eskubide guztiak bereganatu ditu, eta haren aholkuak aintzat hartuko ditu umeak, baita bizitzan aurrera egiten duenean ere.

Ezkontzari dagokionez, nahiz eta behin hogeita bat urte bete eta gero guraso batek ez izan ezerengatik onespina ukatzeko inolako eskubiderik, hala ere, hogeitazko zaintzak nolabaiteko ordainsari bat eskatzen du, eta semeak agindu beharko luke gutxienez bi edo hiru urte pasatu arte ez dela ezkonduko, baldin eta berak hautatutako bikotekidea gurasoen erabat gustukoa ez bada.

Baina gurasoenganako begirunea, oro har, askoz ere printzipio makurragoa da: jabetzarekiko begirune egoista besterik ez da. Aita bat itsu-itsuki obeditzen duenak ahultasun hutsarengatik edo gizatasunaren aurkako arrazoiengatik obeditzen du. Pertsona biziotsu edo alferrak beti ari dira pribilegio arbitrarioak ezarriz haienezako probetxua atera nahian; eta, oro har, utzi egiten diote, neurri berean, eginbeharrak betetzeari, nahiz eta pribilegioak justifikatzeko arrazoi bakarra hori izan.

Maila altuko guraso nagiek seme-alaben begirune ona izaten dute, eta emakumezkoak, bereziki, familiaren iritzien mende daude. Ia herrialde guztietan ikusten da hori.

"Gurasoekiko mendekotasun esklabo batek izpirituaren ahalmen guztiak zanpatzen ditu". Zorroztasuna edo esku gogorra sarriago erabiltzen da emakumeekin, eta, hein batean, hori izan daiteke haien ahuleziaren eragilea. Emakumeei eskatzen zaizkien betebeharrak arbitrarioak dira; eta lotura handiago dute ohorearekin edo lotsarekin, arrazoiarekin baino. Gurasoei itsuki obeditzen irakatsita, prestatu egiten dituzte ezkontzaren esklabotzarako. Egia da emakume ezkondu guztiak ez direla esklaboak, baina esklabo ez direnak tirano bihurtzen dira. Halaber, ezin da esan haur guztiak gurasoen esklabo direnik; baina azpimarratu behar da itsuki obeditzera behartuak badira ahuldu egiten direla haien gaitasunak eta haien izaera edo nortasunak larderiatsuak (*imperious*) edo zitalak bihurtu ohi direla.

Aitzitik, arrazoian oinarrituz seme-alaben bihotza taxutzeko eta seme-alaben adimena garatzeko lan egiten duen gurasoak haur batekiko eginbehar zuzenari jarraitzen dio, eta gurasoenganako maitasunaren eredu zuzena lortuko du ordainetan. Haurrak gurasoen aholkuak entzungo ditu, zentzuzkoa eta arrazoizkoa delako. Seme-alabei eredu ona ematen dien gurasoak berez bilduko du jokabide horren ondorio zuzena: haien errespetua, alegia.

Haurrei ezin zaie goizegi irakatsi arrazoimenaren agindupean jartzen. Wollstonecraften ustez, "onartu beharra dago guk sorrarazten dugun maitasunak (besteekiko) lantzen dugun maitasunaren antza duela beti; eta, beraz, maitasun naturala arrazoimenetik aparte dagoela beti pentsatu bada ere, normalean uste baino lotuago egon daiteke zentzuarekin".

Emakumeek txiki-txikitatik ikasten dituzte senarrekin erabiliko dituzten irakaspenak. Hautzarotik itsuki obeditzen heziak, gutxi espero daiteke haiengandik, handitzean. Zaila da gaitz horiek guztiak konpontzen, baldin eta ohituren edota gurasoen apeten arabera jokatzen irakatsi bazaie. Izan ere, ematen du printzipio sendoen arabera bertutetsuak izaten irakastea gurasoak gutxiesten irakastea dela.

Haurren eta jende ahularen maitasuna berekoa da beti: familiakoak maite dituzte familiakoek haiek maite dituztelako. Moraltasunak estropezurik ez izateko, estimuak eta maitasunak bat egin behar dute, lehen maitasunean, eta arrazoimena izan behar da lehen eginbeharraren oinarri.

## **XII. kapitulua.** *Hezkuntza nazionalaz (On National Education)*

Wollstonecraftek dio hezkuntza kezka nazional handi bat bihurtu behar dela. Haurrak beren kabuz pentsatzera bultzatu behar dira, ahalmenak zabaldu ditzaten; eta hori haurrak elkartuz eta helburu berberen atzetik jarriz bakarrik egin daiteke.

Gazteak bakarrik, tutore pribatuekin, hezten badira, sekula ez dute lortzen norberaren hausnarketaren bitartez soilik sortzen den zintzotasuna eta buruargitasuna. Haien adinekoekin batera soilik egin dezakete hori: jendartean, ez gurasoekin bakarrik. Wollstonecraften iritziz, "bizio eta ergelkeriaren haztegiak" dira bere garaiko eskolak –barnetegiak– hara joaten diren gaztetxoak alfer, tripazain, narras eta maltzur bihurtzen baitira. Hala ere, etxean bakarrik heziz gero, beren buruari gehiegizko garrantzia ematen ikasten dute, eta larderiatsuak eta harropuzak bihur daitezke.

Hala, hezkuntza publikoa eta pribatua bateratzeko moduren bat diseinatu behar da, bataren eta bestearen desabantailak saihesteko. Landa-eremuetako eskola da horren adibiderik bikainena. Eskola horietako mutikoek eskola eta etxea errespetatzen eta beren burua zaintzen ikasten dute. Hirietako barnetegietan emandako denbora, berriz, oso ume gutxik gogoratzen du atseginez. Haien jokabide onen kaltetan ibiltzen dira. Gainera, umeen beren artean ere, tirania-sistema bat ezartzen da, baita alferkeria errotu bat eta betebeharrak saihesteko joera ere". Gazteek duten kezka nagusienetako bat da zer egin kultu erlijioso publikoetatik ihes egiteko; eta arrazoiarekin, zeren gauza bera behin eta berriro errepikatzeak mugatu egiten baitu modu gogaikarrian haien berezko bizitasuna.

Eskola horiek erlijioaren txapeldunak balira bezala egiten dute; baina, aldiz, "zeremonia lotsagabeekin" eta "zentzugabeko neurrigabekeriekin" oztopatzen dute erlijioa<sup>11</sup>. Beste arazo bat dira unibertsitatean bizi eta eskola-publikoen buru diren irakasleak. Wollstonecraftek dogmatiko, tiraniko eta luxu-zaletzat jotzen ditu. Ez da harritzekoa horrelako liderrekin gaztetxoak "berekoiak eta biziotsuak" izatea.

Hezkuntza publikoaren helburua hiritarrak prestatzea da; baina hori ezin daiteke egin gaztaroan gurasoenganako eta neba-arrebenganako maitasuna landu gabe. Izan ere, "hori da bihotza zabaltzeko modu bakarra, zeren maitasun publikoak eta bertute publikoak norberaren nortasunetik sortu behar baitute beti." Inork ezin du gizateria maitatu, baldin eta ama, aita, anaia, arreba eta zerbitzariak maite ez baditu.

Wollstonecraftek defendatzen dituen eguneko eskolek establezimendu nazionalak izan behar dute, zeren irakasleak "gurasoen apeten mende" badaude ezjakinen gustua betetzeko ahaleginean arituko baitira, eta ez beste ezertan. Horrek heziketa txarra dakarkie gaztetxoei. Izan ere, haurrek zer ikasi duten gurasoei erakutsi beharrak uste baino kalte handiagoa egiten du, gurasoak txunditzeko gauzak buruz ikasi eta ikasitako horiek errezitatzerantz behartzen baitituzte irakasleek, ulermena eta adimena landu gabe.

Pentsatzen irakasten duen heziketa da benetako heziketa. Egoera hori ezin da konpondu, irakasleak bizimodua ateratzeko gurasoen mende badaude eta eskolak beste eskola batzuekin lehian aritzen badira, gurasoak erakartzeko.

Eskoletan harrapatutako neska gazteek mutilek baino neurri handiagoan jasaten dute kontrola eta larderia. Ez zaie uzten lorategitik ateratzen; eta ibiltzean gorputz-jarrera jakin bat izatera derrigortzen dituzte, ondo hazteko hain beharrezkoak diren jarrera naturalak erabiltzea eragotzita. Animalia-arima garbiak, gorputza eta adimena loratzen laguntzen dutenak, garrastu egiten dira han. Adimena ere kolokan jartzen zaie; edo, azkenean, zorrotz egiten da maltzurkeriarako.

Arazo horiek konpontzeko, Wollstonecraftek honako proposamen hauek egiten ditu: gobernuak eguneko eskolak ezartzea adin bakoitzerako, neskek eta mutilek elkarrekin ikasteko; bost eta bederatzi urte bitarteko haur txikientzako eskolak dohakoak izatea, guztiz, eta gizarte-maila guztientzat zabalik egotea; parrokiako batzorde hautatu batek aukeratzea irakasleak. Aberats eta behartsu, denek berdin jantzi beharko lukete eskolan, eta arau berberak ezarri beharko litzaizkieke guztiei. Eskolaren inguruan, lursail handi bat egon beharko litzateke, bertan ikasleak gorputz-ariketan jardun ahal izateko, egunero eta denbora luzez. Botanika, mekanika, astronomia, irakurketa, idazketa, aritmetika, historia naturala, filosofia naturala, erlijioa, historia eta politika ere irakatsi beharko litzaizkieke.

Bederatzi urte bete ondoren, etxeko lanetan edo mekanikan arituko diren haurrek beste eskola batzuetara joango lirатеke, eta dagokien langintzan jarduteko ikasketak egin. Goizean, neskek eta mutilak elkarrekin egongo lirатеke; eta, arratsean, banandu egingo lirатеke. Goi-mailako trebetasuna edo aberastasuna duten gazteak beste eskola batera joango lirатеke eta, han, hizkuntza hilak eta modernoak, zientzia, politika, historia eta abarrekoak ikasiko lituzkete haiek. “Neskek eta mutilak, elkarrekin?”, galdetzen du Wollstonecraftek. Eta erantzuna berak ematen du: horrek beldurra ematen die zenbaiti, mutilen eta nesken arteko loturak sor daitezkeelako, baina, hala izatekotan, ezkontza goiztiarrak izango lirатеke, eta halakoak onuragarriak dira, bai osasunari, bai moralari dagokienez. Ikasleek etxean bizi behar dute, ez barnetegietan; eta, egunez, ikastera joan.

Eskola-mota honetan, mutilak ez lirатеke hondatuko, lizunkerian gaztetatik hasiz gero gizon berekoiak bihurtzen baitira; eta neskek ez lirатеke ahulak eta harropuzzak bilakatuko.

Emakumeei beren burua errespetatzen irakatsiko balitzaie, gai politikoetan eta moraletan aritzeko aukera emango balitzaie, ez lirатеke txikieriekin hondatuko; eta etxeko lanak ere behar bezala zainduko lituzkete, adimen biziak bere eginkizun guztiak aurrera ateratzeko modua eta astia aurkitzen baitu. Gizonezkoen bertuteen parekoak izaten saiatzea, literaturari edo zientziari astia ematea, edo politikari erreparatzea... Eginkizun horiek ez dute emakumea beren betebeharretatik aldentzen, baizik eta nagikeriak eta harropuzkeriak. Wollstonecraftek benetako duintasuna eta grazia sortzea espero du emakumeentzako heziketa horretatik.

Kapitulu honetan, halaber, Wollstonecraftek animaliekiko harremanen gaineko hausnarketa bat egiten du, eta adierazten du eskoletan animaliekin errukiz eta gizatasunez jokatzeko irakatsi beharko litzaietela haurrei. Abereenganako krudelkeria pobreen eta aberatsen artean aurkitzen dela azaltzen du. Emakumeen kasuan, heziketa horrek ama hobeak izaten lagundu diezaietela.

**XIII. kapitulua.** *Emakumeen ezjakintasunak sortzen duen zentzugabekeriaren adibide batzuk, emakumeen ohituretan iraultza bat izateak berez eragin lezakeen hobekuntza moralari buruzko funtsezko gogoeta batzuekin batera (Some Instances of the Folly which Ignorance of Women generates; With Concluding Reflections on the Moral Improvement That a Revolution in Female Manners Might Naturally be Expected to Produce).*

Erokeria asko daude, emakumeak neurri batean bereak dituenak; eta Wollstonecraftek adierazten du haien artean izaera moralari kalte egiten diotenak azpimarratuko dituela. Kapitulu hau sei ataletan banatuta dago; eta gai bat tratatzen da, atal bakoitzean.

**Lehenengo atalean,** salatu egiten ditu astrologiaren bitartez etorkizuna iragartzen dutelako itxura eginez emakumeei ziria sartzen dieten lotsagabeak. Emakumeek igarleak miresten dituzte, haiek berritsu hutsak direla ohartu gabe. Wollstonecraftek gaineratzen du igarle batengana joatea erlijio kristauaren aurka egitea dela, jarduera horrek Jainkoaren aginduak urratzen dituelako. Jainkoa da etorkizunean baneratu daitekeen bakarra, eta hark beste inork ezin ditu ikusi existitzen ez direnak. Nola sinets dezake emakume kristau batek Jainkoak utzi diezaietelarik bere profetei hirietan zelatan ibiltzen eta astrologiarekin andre argelak iruzurtzen haien diruak eramateko? Are gutxiago, Jainkoaren nahia gizakiok geure etorkizuna ez ezagutzea bada. Beste gauza bat dira Antzinateko orakuluak: erlijio haietako apaizek beren Jainkoen nahia adierazten zuten. Hortaz, haiengana jotzen zuten sinestunek beren erlijioaren arabera jokatzeko zuten, behintzat, nahiz eta, bestalde, arrazoiaren aurka jokatu.

Magnetizatzaile edo hipnotizatzaileek ("magnetisers") ere engainatzen dituzte emakumeak, gorputzaren edo izpirituen gaitzak tratatzen dituztelako itxurak eginez. Medikuek errealek medikuntzaren eta anatomiaren oinarriak ezagutu behar dituzte, eta botika batzuk iradoki, gaixoak sendatzeko. Iruzurgileek, ez. Gainera, iruzurgileek ez dute Jainkoa maite dutelako sendatzen, dirua maite dutelako baizik. Ez dira inor baino gehiago neurritasunean eta santutasunean: sasimedikuntzaren apaizak besterik ez dira. Are okerragoa da kristauak direla esaten badute. Erlijio arrazionalak arrazoiaren oinarritu behar du, ez deabrukeria horietan. Ezin da Jainkoaren borondatearen mendeko izan eta, aldi berean, gezurri manipulatzaile horiei sinesgarritasuna eman.

**Bigarren atalean,** Wollstonecraftek emakumeen joera erromantikoa edo "sentimentala" jorratzen du. Ezjakintasunarengatik sentsazioetara loturiko emakumeek, zorientasuna maitasunean soilik bilatzen irakatsi baitzaie, ez diete jaramonik egiten beren betebeharrei, eta bizioetan erortzen dira, sarritan. Benetako giza bizitzaz ezer ez dakiten eleberrigile argel eta inozoen ameskeriekin dibertitzen diren emakumeen gustua desbideratu egiten da, finean: ipuin lizun eta zikinak irakurtzearen ondorioz, urrundu egiten dituzte bihotza eta adimena beren benetako betebeharetatik. Eleberririk horiek irakurtzeagatik, emakumeek ez diete arreta jartzen gizarte-gai garrantzitsuei,



baizik eta fikzio txikiei; eta haietan aurkitzen diren sentimenduen mendeko bihurtzen dira. Esanguratsua den ezer ulertzeko gai ez direnez, oso zeregin “lehorra” gertatzen zaie Historia irakurtzea; eta ezagutzarekin lotutako arrazoibideak, guztiz aspergarriak eta ia ulertezinak. Horren ondorioz, eleberrigileengana jotzen dute, ondo pasatzeko. Hori bai, Wollstonecraftek zehazten du eleberrien kontra idazten duela ezagutza pizten eta irudimena erregulatzen duten idazkiekin egiten duelako konparazioa. Baina, jakina, gaineratzen du, hobe da zerbait irakurtzea ezer ez irakurtzea baino, adimena eta arrazoitzeko gaitasuna beti garatzen baita edozer irakurrita ere; eta, irudimenari soilik atsegin emateko lanak irakurrita ere, bere grinaren gainetik altxatzen da irakurlea.

### Gehiago sakontzeko:



John Stuart Mill (1806-1873) pentsalari Britainiar utilitaristak aipu hau utzi zigon: “Hobe da gizaki asegabea izan, eta ez txerri ase; hobe Sokrates asegabea, ergel ase baino”. Hark bereizi egiten zituen plazer fisikoak (maila baxukoak) eta plazer intelektualak (maila gorenekoak). Wollstonecraftek ere pentsatzen zuen eleberri lizun eta maila eskasekoek (*Fifty Shades of Grey*ren antzekoak), sentsazioei lotuek, “txerri” asearen bitzta izatera eramaten dutela.

- 1.- Bat zatoz John Stuart Millen aipuarekin eta Mary Wollstonecraften ideiarekin ala nahiago zenuke “txerri asearen” bizimodua? Zergatik?
- 2.- Zure iritziz, baloratzen da gaur egungo gizartean jakinduria eta jakintzu izatea? Ala diru asko izatea da garrantzitsuena, nola lortzen den kontuan izan gabe?
- 3.- Zein dira zure “heroiak” edo idoloak: sare sozialetako profesionalak (influencerrak, youtuberrak, instagramerrak...), futbolariak eta abarrekoak edota irakasleak, kultura munduko pertsonak, jakintsuak, sosik ez duten ikertzaile zientifikoak? Nortzuei ematen zaie ahotsa komunikabideetan?
- 4.- Sentsazioei loturiko gizarte batean bizi garelara deritzozu?
- 5.- *Instagram*en eta *TikTok*en oso arrakastatsuak edo biralak izan dira erronka batzuk, nahiz eta arriskutsuak izan: hortzak azazkaletarako limarekin karrakatuta berdintzea, komuneko tapak miatzatzea, ikastetxeko komunak suntsitzea, etxetik abisatu gabe alde egin eta desagertzea... Nola izan liteke horrelakorik, XXI. mendean jakintza inoiz baino eskuragarriagoa bada Interneti esker?

**6.- Kanten aburuz, gizarte ilustratua da bere kabuz pentsatzeko gai diren gizabanakoez osaturikoa. Zure ustez, esan daiteke gizarte ilustratu batean bizi garela, Kanten definizioaren arabera? Zergatik? Garatu zure ikuspuntua 200-250 hitzeko iruzkin batean.**

Emakumeei eleberriak ez irakurtzeko gomendatzen die, “zerbait hobea irakurri” dezatela nahiko lukeelako. Emakumeak eleberriekiko zaletasuna alde batera uztera bultzatzeko modua eleberri horiek barrengarri uztea da; baina hori ezin da edonola egin, baizik eta eleberri onak eta txarrak bereizita. Oso ondo etorriko litzaieke haiek miresten duten norbaitek eleberria haiei irakurtzea eta umorez ikusaraztea han kontatzen diren kontuen zentzugabekeria.

**Hirugarren atalean**, salatzen du emakumeek janzkerarekiko gehiegizko zaletasuna dutela, ezjakintasunaren eta bizirauteko garatzen duten maltzurkeriaren ondorioz, eta horrek dakarren harropuzkeria. Adimenak, hausnarketarekin gozatzeko behar bezain zabal ez badago, aparteko ardura ematen die apaingarriari eta kanpoko itxurari. Esklaboengan ere ikus daiteke hori: “Gutxitan ezagutu dut zerbitzaririk –ez gizonezkorik, ez emakumerik– jantziekiko zaletasunak bereziki erakartzen ez zuenik. Beren arropak aberastasuntzat zituzten.”

Egileak gaineratzen du gizonek talka egiten dutela bata bestearekin, baina adiskide izatera ere irits daitezkeela. Emakumeak, berriz, bata bestearen aurkariak dira denak. Emakume bertutetsuak ere beti saiatzen ari dira atseginak izaten, gauza guztien gainetik. Gainera, gorputzarengatik soilik adimenaren laguntzarik gabe denbora luzez erakargarri izatea posible dela pentsatzen duten emakumeak ahulak dira. “Jantziatarako, plazererako eta botereanganako neurrigabeko zaletasuna” basatien grina da; baina emakume zibilizatuak ere egoera berean daude.

**Laugarren atalean**, Wollstonecraftek dio jakintzat ematen dela emakumeek gizonek baino gizatasun eta sentiberatasun handiagoa dutela. Baina ezjakintasunak ez du ezer noblerik; eta, haren ondorioz, emakumezkoak berekoiak bihurtzen dira, haurren edo animalien moduan. “Emakumezko ahul asko ezagutu ditut, sentsibilitatea senarrarekiko lilurak harrapatuta zutenak”. Maitasun hori haien izaeraren eta ikuspegi itxien ondorioa da; emakume zentzudunak ere, gauza txiki eta pribatuetara emanak direnez, nekez irits daitezke heroismora, maitasunak bultzatzen ez baditu, behinik behin. Adiskidetasunak arrazoian izaten du funtsa; eta, ondorioz, ohikoagoa da gizonezkoen munduan, emakumezkoenean baino. Gainera, gizonak ere zuzenagoak izaten dira. Izan ere, “nola izan daitezke emakumeak zuzenak edo eskuzabalak, bidegabekeriaren esklabo badira?”

**Bosgarren atalean**, umeen heziketaren gaia jorratzen du Wollstonecraftek. Haurren zaintza emakumeari berariaz dagokion eginkizuna da. Horregatik, haiek ezgaitzen dituen ezjakintasunak ordena naturalaren kontrakoa izan behar du. Gizon asko arduratzen dira zaldien zainketaz eta ukiluak zaintzeaz; baina gutxiago direla sentituko lukete haur txikiei gutxieneko atentzioa jartzera behartuko balituzkete. Zenbat ume hiltzen dituen, ordea, emakumeen ezjakintasunak! Axolagabekeriak edo maitasunitsuak haurrak galbidean jarri ez baditu, zein gutxik jasotzen duten haurraren adimenerako egokia den

heziketa! Etxean, amek gaizki hazten dituzte umeak, mainekin; eta, zazpi urterekin, eskolara bidaltzen dituzte. Eta eskolan erabiltzen diren metodoek, ume asko behar den moduan portatzeko beharrezkoak izanagatik, bizio guztien haziak zabaltzen dituzte umeen artean, indarrez goldatutako lurrean bezala.

Wollstonecraften aburuz, zaldiek beti erantzuten dute ondo, gizatasunez eta irmotasunez tratatuz gero. Horregatik, zalantza du haiek bezatzeko metodo bortitzek ez ote dizkieten kalte sakonak eragiten. Baina, umeen kasuan, ez du zalantzarik: bere ustez ezin da inoiz ume bat indarrez mantsotu, batik bat lehenago (eskolaratu baino lehen, etxean) zoroen pare jokatzeko utzi bazaio. Izan ere, haurren heziketan, zuzentasunaren eta arrazoiaren kontrako indarkeria guztiak haien arrazoimenaren kaltetan dira. Gainera, Wollstonecraften aburuz, haurren izaera moralaren oinarria, haiek zazpi urte bete baino lehenago finkatu ohi da; hots, soilik emakumeen ardurapean igarotzen duten garaian. Horregatik, ondoren, heziketaren eginkizuna izaten da amak ezjakinak ez balira haurrek izango ez lituzketen akatsak zuzentzea.

Bestalde, beharrezkoa da emakumeen erokerien adibide aipagarri bat azpimarratzea: haiek gaizki tratatzen dituzte zerbitzariak, seme-alaben aurrean, eta eredu txarra ematen diete hala haurrei. Gainera, emakume gehienek umeak zerbitzarien esku uzten dituzte edota seme-alabak jainko txikiak balira bezala tratatzera behartzen dituzte zerbitzariak.

Naturak emakumeen eginbeharra bihurtu du seme-alabak heztean; baina ez daude horretarako prestatuta, sexuen arteko desoreka dela eta. Emakumeak ez dira amultsuagoak izango, harik eta gizartean berdintasun handiagoa ezarri arte, harik eta gizarte-mailak nahasi eta emakumeak askatu arte.

**Seigarren atalean**, Wollstonecraftek azken oharra egiten ditu. Moralistek aho batez diote, idazten du, bertuteak askatasuna behar duela garatzeko eta izaki bat ezin dela izan bertutetsua arrazoiak ez den beste indar bati jarraitzen badiu. Emakumeek gizartean balioa izan dezaten, aberria maitatzera bultzatu behar dira, haien arrazoimena alderdi guztietatik landuz; ezin da espero norberak ulertzen ez duena maitatzea. Bertute publikoa bertute pribatuaren eranskin bat besterik ez da. Gizaterian, hobekuntza handia izango litzateke emakumeen ohituretan IRAULTZA bat gertatuko balitz. Aberastasunak bertuteak baino errespetagarriago bihurtzen du gizona; eta emakumeen gorputzen gaineko laztanek landu gabe uzten dute haren adimena. Baina gizonek grinei jarraitzen diete, emakumeen adimenari baliorik eman gabe, plazer laburraren bila. Senar-emazteek adiskideak izan behar dute ezkontza sendotzeko, zeren "bertuteak alde egingo du sakabanatutako etxetik, eta deabruen legio oso batek hartuko du bizilekua, han." Gizonen eta emakumezkoen maitasunak ezin du purua izan, sentimenduetan bat egiten ez bada eta konfiantzarik ez badago.

Azkenik, ondorioztatzen du, emakumezkoen zentzugabekeria gehienak gizonaren tiraniatik datozela, eta gizonen zapalkuntzak eragiten duela emakumeen maltzurkeria. Emakumeen akats gehienak gizartean duten heziketaren eta egoeraren ondorioak dira. Emakumeak gizonen eskubideak baditu, haren mailara iritsiko da bertuteetan, zeren askatzen bada, hobetu egingo da.

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE MIGUÉLEZ, Katixa: *Berriz Zentauro*, Elkar Argitaletxeak, Donostia, 2022.
- DE GOUGES, Olympe: *La Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne*, Magnard, Paris, 2021.
- ESTÉVEZ, Xose: *La Ilustración en Euskal Herria*, Nabarralde Fundazioa, Iruñea, 2020.
- FUENTES LANGAS, Jesús. *Real Seminario Patriótico Bascongado de Bergara*. Auñamendi Entziklopedia [linean], 2023. Eskuragarri hemen: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/real-seminario-patriotico-bascongado-de-bergara/ar-124800/>
- GARCÍA, Luis Ignacio: *Estética de la diferencia sexual. Kant, el “bello sexo” y la reflexión estética*, in AISTHESIS 69 (2021): 381-401.
- IZENGABEA: *Caracasko Gipuzkoar Konpainia*, Wikipedia. [https://eu.wikipedia.org/wiki/Caracasko\\_Gipuzkoar\\_Konpainia](https://eu.wikipedia.org/wiki/Caracasko_Gipuzkoar_Konpainia)
- LUKÁCS, György: *El asalto a la razón. La trayectoria del irracionalismo desde Schelling hasta Hitler*, Ediciones Grijalbo, Bartzelona, 1972.
- MONTESQUIEU, Charles De Secondat: *El espíritu de las Leyes*, Istmo, Madril, 2002.
- PÉREZ GÓMEZ, Izaskun: *Euskal Foru Erregimena*, <https://historiaetageografia4.wordpress.com/euskal-herria/euskal-herria-antzin-erregimenean/>
- POLO, Carmen: *Inmanuel Kant, “La cuestión de las razas”*, in International Journal of Philosophy, 15 (2022), 368-371.
- POLO BLANCO, Jorge: *La modernidad del racismo contrastada con el pensamiento español del siglo XVI*, in Tópicos, 66 (2023), 421-459. Epub 19 de junio de 2023. <https://doi.org/10.21555/top.v660.2130>
- POSADA KUBISSA, Luisa: *Cuando la razón práctica no es tan pura. Aportaciones e implicaciones de la hermenéutica feminista alemana actual: a propósito de Kant*, in Isegoría, 6 (1992), 17–36. doi: <https://doi.org/10.3989/isegoria.1992.i6.322>
- ROUSSEAU, Jean-Jacques: *Emilio o de la Educación*, Alianza Editorial, Madrid, 2011.
- SÁENZ BERCEO, María del Carmen, Mary Wollstonecraft: Referente feminista, in REDUR (Revista Electrónica de Derecho de la Universidad de la Rioja), 11 (2013), 127-138.
- SANTOS HERCEG, José: *Inmanuel Kant: del racialismo al racismo*, in Thémata. Revista de Filosofía, 43 (2010).
- TOMASELLI, Sylvana (2020), *Mary Wollstonecraft*, Stanford Encyclopedia of Philosophy. <https://plato.stanford.edu/entries/wollstonecraft/>
- WOLLSTONECRAFT, Mary: *A Vindication of the Rights of Woman with strictures on political and moral subjects*, Affordable Classics, Torrazza Piemonte (TO), 2021.
- WOLLSTONECRAFT, Mary: *Vindicación de los derechos de la mujer*, Cátedra, Madril, 2018.
- WOLLSTONECRAFT, Mary: *A Vindication of the Rights of Men* - Wikipedia. [https://en.wikipedia.org/wiki/A\\_Vindication\\_of\\_the\\_Rights\\_of\\_Men](https://en.wikipedia.org/wiki/A_Vindication_of_the_Rights_of_Men)
- WOLLSTONECRAFT, Mary: *Vindicación de los derechos del hombre* - Wikipedia. [https://es.wikipedia.org/wiki/Vindicaci%C3%B3n\\_de\\_los\\_derechos\\_del\\_hombre](https://es.wikipedia.org/wiki/Vindicaci%C3%B3n_de_los_derechos_del_hombre)

- WOLLSTONECRAFT, Mary: *A Vindication of the Rights of Men*, J. Johnson, 1790. *Online Library of Liberty*, <https://oll.libertyfund.org/title/wollstonecraft-a-vindication-of-the-rights-of-men>.
- ZIGA, Itziar: *Malditas. Una estirpe transfeminista*, Txalaparta, Tafalla, 2014.